

FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZA TRANSMISIOARI BURUZKO **IKERKETA**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Aurkibidea

Hitzaurrea	3
Ikerketaren aurkezpena	5
Bilakaera soziolinguistikoa: lehen hizkuntzari begira	11
Ikerketaren irakurketa kuantitatiboa	37
A atala: Transmisioa esparruz esparru	
1. Transmisioa non	45
2. Bikote mistoak eta generoa	53
3. Euskara vs bi hizkuntzak	57
4. Ingurua	67
5. Familia	74
6. Faktore sozioafektiboak	77
7. Etxeko ingurunea	82
8. Beste hizkuntzak.....	86
9. Hezkuntza	91
10. Seme-alaben erabilera	97
11. Etorkizuna	105
B atala: Kontakizun pertsonalak	
D tipologia	111
B+ tipologia.....	115
B tipologia	120
A+ tipologia	125
A tipologia	129
X tipologia.....	133
Ondorioak eta gako nagusiak.....	136
Azken solasa: aldaketa garaian.....	149
Bibliografia	150

Hitzaurrea

Hizkuntzak iraun dezan eta indarberritu dadin, faktore giltzarria da transmisioa: belaunaldi berrietara transmititzen den bitartean, iraupena ziurtatua du hizkuntza batek. Transmisioa eteten bada, ordea, benetako arriskuan izango du bizi-indarra, hiztunak sortzeko berezko mekanismoa galdurik. Hala da euskararen kasuan ere: normalizazioa lortzeko, ezinbesteko osagaia da transmisioa.

Euskararen familia transmisioa du aztergai ikerketa honek: etxeko transmisioa, batik bat gurasoengandik seme-alabengana egindakoa, helburu duena mintzaira lehen hizkuntza gisa ematea (Kasares, 2017):

Familia bidezko hizkuntza transmisioa, familiak berma dezakeena batik bat gurasoek seme-alabei hizkuntza(k) irakastean. Etxeko belaunaldien arteko harremanetan gertatzen ohi da eta transmititzailer nagusiak gurasoak badira ere, horiekin batera etxeko beste helduek ere jokatzeko dute. Transmisio horrek mintzaira ama edo lehen hizkuntzatzat ematea du helburu eta hori hala gerta dadin, gurasoen (eta etxeko besteen) hizkuntza gaitasuna ezinbesteko baldintza da.

Transmisioaren beste dimentsio bati ere erreparatu zaio, nolana ere: transmisio sozialari, familiaz haragokoari (Kasares, 2017):

Hizkuntza transmisio soziala, belaunaldi bateko haur jendea hiztun bilakatzeko bidean mintzairaz jabetu, hizkuntza beretu eta hiztun taldeko kide izatera iristeko prozesuan gauzatzen dena. Haurrak euskaldun hazteko bidean familiaz harago gizarte harremanek eta erakundeek jokatzeko dute (auzo-komunitate hurbileko harreman sareek, eskolak eta hezkuntza arloko bestelako erakundeek, aisialdi antolatuak, gizarte elkarteak, hedabideak...). Beraz, hizkuntza transmisio soziala gizarteak bermatzen du belaunaldien arteko eta haur belaunkideen arteko elkarrekintzetan. Hizkuntza transmisio sozialaren xedea haurrak (mintzaira hori ama hizkuntza izan ala ez) komunikazio gaitasun (communicative competence [Hymes, 1967]) egokia eskuratzea da; hots, taldean komunikatiboki eraginkortasunez jokatzeko duen hiztun bilakatzea. Hala bada, gurasoen hizkuntza gaitasuna ez da abiapuntuko baldintza, nahiz haurra hiztun bilakatzeko bidean familiari egiteko garrantzitsua aitortu. Prozesu horri hizkuntza sozializazioa esatea proposatzen dut eta haren barnean familia bidezko hizkuntza transmisioa bereiztea.

Hizkuntza plangintzarekin lotutako teorietan, leku nabarmena du familia bidezko transmisioak: oinarri-oinarrizko aldagaitzat hartzen dute gutxiagotutako hizkuntzak normalizatzeko prozesuan. José María Sánchez Carrión *Txepetx*-ek (Sánchez Carrión, 1987), esate baterako, hizkuntzen zazpi funtzio zehaztu zituen: norbere identitatetik hasi, eta nazio funtziora artekoak. Familiak oinarrizko kokapena du funtzio horietan: identitate funtzioa barnebiltzen du. Areago, hizkuntzak ikasteko bi ibilbide zehaztu zituen Txepetxek, naturala eta kulturala, eta familia da zimendua bide naturalean. Joshua Fishmanen (Fishman, 1991) teorietan ere toki nabarmena dauka familiak. *Reversing Language Shift* ereduak zortzi pauso ditu hizkuntza biziberritzeko, eta seigarrena da mugarria, gertuko komunitateari dagokiona: etxeari eta inguruari.

Hamarkada luzeetako higaduraren ondoren, azken lau hamarkadetan aurrera egin du euskararen ezagutzak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Baina goraldi hori eskolaren ekarpenari zor zaio batik bat, ez familia bidezko transmisioari. Euskaldunen ezaugarriak aldatzen ari dira: gero eta gehiagok bigarren hizkuntza gisa jaso dute —gazteen artean, gehienek—, eta erosoago egiten dute erdaraz. Euskararen transmisioak eragin handia baitauka aldagai soziolinguistikoetan: gaitasunean, jarreran eta erabileran. Baita hurrengo belaunaldietarako transmisioan ere. Katea da.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz, familia transmisioa zertan den aztertu du Siadeco Ikerketa Elkartek. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izan ditu aztergai. Luze-zabal heldu zaio gaiari: adituen ekarpenak eta familien lekukotasunak elkartuz, datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboak gurutzatuz, transmisioaren oinarrietatik ondorioetaraino joz.

Ikerketaren aurkezpena

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zehaztu du zein den ikerketaren helburu nagusia: aztertzea familiek zer jokabide duten hizkuntza transmisioarekin lotuta, eta horretan eragina duten faktoreak zein diren jasotzea. Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-egitasmoak ondorengo galderei erantzutea zuen helburu:

- Zein dira euskararen alde hizkuntza-ohiturak aldatzeko zailtasunak?
- Zein dira hizkuntza-hautu jakinak hartzeko arrazoiak?
- Nola eragiten du aldaketa horretan testuinguru soziolinguistikoak?
- Nola eragiten diete, bereziki hiltun berriei, emozioek, sentimenduek, aurreiritziek, hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuan? Nola sentitzen dira elkarrekintza jakinetan?
- Nola aldatzen dira hizkuntza-ohiturak denboran zehar? (Bikotekideen arteko hizkuntza-aldaketa, bikotekideen eta seme-alaben artekoa, seme-alaben euren artekoa)
- Zein eragin du familiak, lagunartean edota lan-giroak hizkuntza-ohituren aldaketan?
- Zein dira gako mesedegarriak prozesu arrakastatsua bideratzeko?
- Benetako aldaketa bat burutzeko aldaketa erabatekoa eman behar da ala posiblea da harreman-hizkuntza apurka-apurka aldatzea?
- Nola erreakzionatzen duten beste solaskideek elkarrekintza jakinetan?

Azterketa egiteko familien tipologia bat ere proposatzen zuen Eusko Jaurlaritzak. Gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza konbinatuta, sei talde desberdin bereizten zituen:

D	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, eta bien lehen hizkuntza euskara da gutxienez.
B+ (B indartua)	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina batek bakarrik du lehen hizkuntza euskara.
B	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina haien lehen hizkuntza erdara da.
A+ (A indartua)	Guraso batek ondo egiten du euskaraz, eta euskara du lehen hizkuntza; besteak ez du ondo egiten euskaraz, haren lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.
A	Guraso batek ondo egiten du euskaraz, eta gaztelania du lehen hizkuntza; besteak ez du ondo egiten euskaraz, haren lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.
X	Bi gurasoetatik batek ere ez du ondo egiten, haien lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.

Aztergaiari ikuspegi osoarekin heldu nahi izan dio Siadecok, ikergaia zedarritzeko lau erpin zehazturik: transmisioa nola transmititzen den, jokabide horietan zer aldagaik eragiten duten, gurasoek ez ezik beste aktore batzuek zer rol duten, eta gaztetxoek zer baldintza dituzten eguneroko bizimoduan euskaraz aritzeko. Aztergai nagusi horri zeharkako beste gai batzuk ere atxiki zaizkio: hizkuntza jokabideak, ohiturak aldatzea, hiltun berrien egoera...

Hiru bide nagusi hartu dira familiako hizkuntza transmisioa aztertzeko: era desberdinetako familien lekukotasunak biltzea, adituen eta informazio emaile kualifikatuen iritziak jasotzea, eta zeharkako informazio iturriak baliatzea. Euskal Autonomia Erkidegoa izan da ikerketaren unibertsoa. Hiru bideetatik jasotako informazioa bateratu egin da amaierako txostenean, gaiak osotasunez eta sakontasunez jorratze aldera. Gainera, ikerketa osoan lau adituren laguntza izan du Siadecok, kontraste lana egiteko eta haien ekarpenak jasotzeko.

1. Familien lekukotasunak

Ikerketa kualitatiboa egin da mota desberdinetako familien artean, horretarako lagin estrategiko bat zehaztuta. Bi fasetan egin da ikerketa hori. Lehenik, 0-15 urteko seme-alabak dituzten 150 familia hartu dira, eta informazio kualitatiboa bildu da telefono bidezko galdetegi batekin —haiengana iristeko, hiru lurretatik hainbat udalerritako ikastetxeekin, euskara zerbitzuekin eta euskara elkarteekin harremanetan jarri da Siadeco—. Bigarrenik, horietatik 30 sendi hautatu dira, elkarriketa sakonagoak egiteko: gurasoen eta seme-alaben lekukotasunak jaso dira, aurrez aurreko elkarriketen bidez, 30 familia horien herrietan.

Osatutako lagina ahalik eta adierazgarriena izate aldera, hainbat irizpide hartu dira kontuan familiak hautatzerakoan, zehaztutako sei sendi tipologietakoak izateaz aparte. Hamar irizpide hauek:

- ☐ Herrialdea. Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa.
- ☐ Gune soziolinguistikoa. Lehena (euskaldunak %20tik behera), bigarrena (%20-50), hirugarrena (%50-80) edo laugarrena (%80tik gora).
- ☐ Udalerriaren tamaina. Txikiak (5.000 biztanletik behera), ertainak (5.000-20.000) edo handiak (20.000tik gora).
- ☐ Etxeko hizkuntza. Euskara, erdara edo biak.
- ☐ Bikoteko hizkuntza ohituren aldaketa. Ohitura aldatu dutenak edo ez dutenak.
- ☐ Familiako harreman sarea. Euskarazkoa, erdarazkoa edo bietakoa.
- ☐ Seme-alaben adina. 6 urte edo gutxiago, 7-11 urte edo 12-15 urte.
- ☐ Jatorria. EAEn jaioak, Espainian jaioak edo Espainiaz kanpokoak.
- ☐ Ikasketak. Oinarrizkoak, erdi mailakoak edo goi mailakoak.
- ☐ Maila ekonomikoa. Baxua, ertaina edo altua.

Telefono bidezko elkarriketak egiterakoan aztertu dira aldagai horiek guztiak, eta aintzat hartu dira aurrez aurreko elkarriketetarako 30 familiak hautatzerakoan, ahalik eta aniztasun handiena izan zezaten.

Guztira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 38 udalerritako familiekin jarri da harremanetan Siadeco. Udalerrri hauek dira, lurraldearen arabera ordenaturik:

Araba

Herria	Eskualdea	Gune sozio-linguistikoa	Biztanleria	Euskaldunen %
Agurain	Arabako Lautada	2	5.240	33,17
Amurrio	Arabako Kantaurialdea	2	10.366	33,69
Erriberagoitia	Arabako Ibarrak	1	827	24,88
Lantaron	Arabako Ibarrak	1	937	14,43
Lapuebla de Labarca	Arabako Errioxa	1	867	22,70
Laudio	Arabako Kantaurialdea	2	18.447	33,41
Oion	Arabako Errioxa	1	3.465	19,26
Gaubea	Arabako Ibarrak	1	1.068	19,34
Vitoria-Gasteiz	Arabako Lautada	2	243.815	27,28

Bizkaia

Herria	Eskualdea	Gune sozio-linguistikoa	Biztanleria	Euskaldunen %
Arrigorriaga	Bilbo Handia	2	11.951	38,47
Aulesti	Markina-Ondarroa	4	662	88,52
Bermeo	Gernika-Bermeo	3	16.865	73,34
Bilbo	Bilbo Handia	2	342.810	28,98
Elorrio	Durangaldea	3	7.398	61,88
Erandio	Bilbo Handia	2	24.157	31,04
Getxo	Bilbo Handia	2	77.530	33,28
Lekeitio	Markina-Ondarroa	4	7.212	81,71
Santurtzi	Bilbo Handia	2	45.651	26,18
Sestao	Bilbo Handia	2	27.311	24,32
Zamudio	Bilbo Handia	2	3.268	49,16
Zeanuri	Arratia-Nerbioi	4	1.250	80,33

Gipuzkoa

Herria	Eskualdea	Gune sozio-linguistikoa	Biztanleria	Euskaldunen %
Aia	Urola-Kostaldea	4	2.020	87,83

Amezketza	Tolosaldea	4	923	90,68
Asteasu	Tolosaldea	4	1.531	83,41
Azpeitia	Urola-Kostaldea	4	14.916	83,69
Beasain	Goierri	3	13.977	59,05
Donostia	Donostialdea	2	180.989	46,01
Eibar	Debabarrena	3	27.138	54,37
Elgoibar	Debabarrena	3	11.558	62,27
Hernani	Donostialdea	3	19.849	61,31
Hondarribia	Bidasoa Beherea	3	17.119	63,71
Ibarra	Tolosaldea	3	4.237	68,97
Oñati	Debagoiena	3	11.308	77,91
Pasaia	Donostialdea	2	16.629	43,17
Tolosa	Tolosaldea	3	19.069	70,94
Urretxu	Goierri	3	6.776	59,97
Zarautz	Urola-Kostaldea	3	23.188	74,14
Zumarraga	Goierri	3	9.868	51,06

Laginaren inguruko informazio gehiago jaso da txosteneko B atalean. Bertan, familiek, galdera ireki kualitatiboez gain erantzun behar izan duten inkestaren irakurketa kuantitatiboa eskaintzen da. Laginaren ezaugarrietan sakontzeko aukera ematen du, beraz.

2. Informazio emaila kualifikatuak

Hautatutako udalerrietako errealitatea ahalik eta zabalen aztertzeko, herri horietako egoera ondo ezagutzen duten 30 informazio emaila kualifikatutengana jo da. *Online* bidezko galdetegi bat bidali zaie horretarako, galdera irekiekin, iritzia emateko. Solaskide horiekin aztergai izan da familiako transmisioa zertan den herri bakoitzean, eta euskararen normalizazioan nolako eragina daukan egoera horrek. Familien herri eta hirietako errealitate soziolinguistikoa ondo ezagutzen duten informatzaileak dira: euskara teknikariak, euskara elkarteetako kideak, edo ikastetxeetako zuzendari, zuzendaritzako kide edo euskara arduradunak.

3. Zeharkako informazio iturriak

Ikerketa honetan bertan bildu da zuzeneko informazioa —bai familietan, bai informazio emaila kualifikatuen artean—, baina beste ikerketa batzuk ere aintzat hartu dira, ikerketa bera osatzeko eta

kontrastatzeko helburuz. Batetik, Inkesta Soziolinguistikoko datuak ustiari dira sakon: transmisioari buruzko datuak, eta horiek beste aldagai batzuekin duten lotura. Bestetik, Eustaten Biztanleria eta Etxebizitza Inkestaren datuak baliatu dira, osagarri gisa. Horrekin batera, transmisioa aintzat hartzen duten edo lotura duten aldagaiak aztertu dituzten beste ikerketa batzuk baliatu dira txosten honetan; aldian-aldian zehatz adierazita daude informazio iturri guztiak.

Ikerketan, Siadecoko lantalde teknikoaren bidelagun izan dira euskararen indarberritze prozesua gertu-gertutik jarraitzen duten hiru aditu. Kontraste lana egin dute azterketa martxan izan den garaian, baita azken txosten honetan ere. Honako hauek izan dira:

Iñaki Arruti. Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikaria da. Ibilbide oparoa egin du euskalgintzan, eta euskararen familia transmisioa izan du aztergaietako bat, hainbat artikulutan landu duena. Hizkuntza ohiturak aldatzeko proiektu pilotuetan ere jardun du.

Xabier Bengoetxea. Irakasle erretiratu da. Berritzeguneko hizkuntza normalizazioko teknikari gisa aritu zen. Ikerketa soziolinguistikoen esparruan ere jarduna da, batik bat euskararen arnasguneak aztergai hartuta.

Paula Kasares. Euskal filologian doktorea da, eta NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea. Euskararen transmisioari buruz egin zuen doktore tesia: *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskarabideko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria da.

4. Oinarrizko hiztegia

Ikerlanean erabili diren zenbait terminoren ulermena errazte aldera, *Soziolinguistika Hiztegia*-n edo Inkesta Soziolinguistikokoan horien inguruan ematen diren definizioak bildu dira segidan. Transmisioaren gaia kokatzeko eta giltzarri diren zenbait kontzeptu aurkezteko ere balio du ariketak:

Hizkuntza transmisioa: Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzea, bereziki familiaren eta hezkuntza sistemaren bidez.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:41).

Sozializazioa: Pertsona (haurra, bereziki), inguruneko gizarte eta kulturaren balio, arau eta jokabideak eskuratuz, bizitza sozialera egokitzea eta gizarte horretako kide bihurtzea.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 35).

Lehen hizkuntza: Haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 22).

Bigarren hizkuntza: Lehen hizkuntzaren ondoren ikasten den hizkuntza. Euskaldun berrientzat

euskara bigarren hizkuntza da.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 20).

Etxeko hizkuntza: etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 43).

Elebiduna: Euskara eta beste hizkuntza bat ondo ulertu eta hitz egiten dituen pertsona.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 58).

Erdaldun elebakarra: Euskaraz batere hitz egiten ez duen pertsona, eta ez ondo ulertzen ez irakurtzen duena.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 58).

Euskaldun zaharra: Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 60).

Euskaldun berria: Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 59).

Jatorrizko elebiduna: Lehen hizkuntzak euskara eta gaztelania izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 60).

Elebidun hartzailea: Euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen duen pertsona.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 58).

Hizkuntza gaitasuna: Hitzun batek hizkuntzaz duen ezagutza maila. Gaitasun horren bidez, perpausak sortzeko eta ulertzeko gai da hitzuna, baita perpaus bat gramatikala den edo ez den ebazteko ere.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:49).

Hizkuntza gaitasun erlatiboa: Elebidunak hiru multzotan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

- Euskal elebidunak, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnak.
- Elebidun orekatuak, berdin moldatzen direnak euskaraz zein erdaraz.
- Erdal elebidunak, erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013:25).

Hiztun osoa: Hizkuntza erabilera osoa, hots gizarte funtzio guztiak behar bezala betetzeko modukoa, eta hizkuntza kontzientzia bizia dituen hiztuna.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 16).

Hizkuntza kontzientzia: Norberaren hizkuntzari kultura balio bereizgarria ematek eta hizkuntza horrek norberaren hizkuntza komunitatea definitzen duela kontsideratzetik sortzen den motibazio arrazionala. Motibazio horren bidez, hizkuntzaren ezagutzari eustea eta ezagutza hori sakontzeko joera sustatzen da.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 15).

Bilakaera soziolinguistikoa: lehen hizkuntzari begira

Ikerketa soziolinguistikoak argitaratzean, bi aldagairi erreparatu ohi zaie gehienbat: ezagutzari eta erabilerari. Euskararen transmisioa aztergai denez, beste aldagai bati erreparatuko zaio bereziki oraingoan: lehen hizkuntzari. Zuzeneko lotura du familiako transmisioarekin. Honako hau esan nahi du adierazle horrek: herritar horrek zer hizkuntza ikasi zuen —edo zituen— 3 urte bete arte. Haurtzaroan jasotako hizkuntza da; kasu gehien-gehienetan, etxean eskuratutako hizkuntza. Aldagai aldaezina da lehen hizkuntza: hori jaso zuen haurtzaroan, nahiz eta geroztik besteren bat ikasia izan.

Lehen hizkuntza ardatz duen datu bilketa sakona egin da ikerketa honetarako. Atalez atal ageri dira datu xeheak, gurasoen lekukotasunekin eta adituen ekarpenekin batera. Hala ere, informazio hori testuinguruan ulertze aldera, komeni da euskararen bilakaera soziolinguistikoari buruzko ertz nagusiak gogoan izatea.

Bilakaera hori aztertzeko, bi inkesta dira informazio iturri nagusiak. Batetik, Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren ardurapekoa: bost urtean behin egiten dute Euskal Herri osoan, eta azterketa honetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak hartu dira kontuan. Bestetik, Eustaten inkestak: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika —hamar urtean behin egiten dute bakoitza, bost urteko txandatan—. Bi ikerketen artean badago alde nabarmen bat: Inkesta Soziolinguistikoak 16 urtez gorako herritarrak hartzen ditu kontuan, eta Eustaten inkestek, 2 urtetik gorakoak. 2016koa da Eusko Jaurlaritzaren azken inkesta,


baita Eustaten Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika ere.

Baga: gaitasuna gora

Hizkuntza gaitasunari erreparatzen bazaio, argia da joera: euskaraz dakiten herritarrak gero eta gehiago dira, nahiz eta oraindik gutxiengoa izan. Inkesta Soziolinguistikoaaren arabera, hiru herritarretik bat da euskalduna (%34). Hogei urteko bilakaerari erreparatuz gero, argia da goraldia 1996tik 2016ra: bai portzentajetan (6 puntu), bai kopuru absolututan (137.000 herritar).

Inkestak erakusten duen beste errealitate bat: ia euskaldunen zakua ere handitzen ari da, eta jada gehiengoa osatzen dute euskara ulertu behintzat egiten dutenek —euskaldunak eta euskaldun hartzaileak batuta—: %53. Orain hogeitaz gutxiengoa zuten bi multzo horiek: %43.

1. grafikoa. Euskararen ezagutzaren bilakaera




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Datozen urteetan areagotu egingo dira euskaldunen kopuru horiek. Euskararen ezagutza belaunaldi berrien bidez ari da hedatzen, eta Inkesta Soziolinguistikoa kontuan hartu gabe daude 16 urtez azpiko herritarrak. Eustaten inkestak iragartzen du aurrerabidea. 2 urtez gorako herritarrak hartuta, izan ere, hau da banaketa, haren arabera: %42 euskaldunak; %18 ia euskaldunak; %39 erdaldunak.

Gero eta herritar gehiagok dakite euskaraz, baina gutxiengoa dira oraindik. Horrekin lotuta, aintzat hartzekoa da euskararen ezagutza non ari den areagotzen, zein lekutan dagoen gero eta euskaldun gehiago. Hara: euskaldun gehienak bizi diren eskualdeetan, herritarren erdiak baino gutxiago dira euskaraz egiteko gai. Hamar eskualdetan da euskararen ezagutza %50etik beherakoa, eta haietan bizi dira euskaldunen %61 —biztanleria osoaren %74 bizi da eskualde horietan—. Euskaldunak gehiengoa diren hamar eskualdeetan bizi dira euskaldunen %39. Eustaten datuak dira eskualdeei buruzkoak, eta, beraz, 2 urtetik gorako herritarrek daude aintzat hartuta.

A mapa. Euskaldunak, eskualdearen arabera

Koloreak dentsitatea adierazten du, euskaldunen portzentajea; biribilak, euskaldun kopurua.




Iturria: Eustat. Siadecok landua.


Ezagutzari buruzko datuak aztertzean, kontuan hartzekoa da joera ere: hamarkada hauetan zein izan den eboluzioa. Nabarmena da joera: euskaldun gutxien dagoen eskualdeetan ari da aurrerakadarik handiena egiten euskararen ezagutza. Ezagutza txikiena den bost eskualdeetan, bikoiztu baino gehiago egin da euskaldunen portzentajea 1996tik 2016ra. Ezagutza handiagoarekin, txikiagoa da igoera. Ezagutza mailarik handiena duten eskualdeen kasuan, aldiz, galera izan da urteotan: hiru eskualdetan, jaitsi egin da euskaldunen ehunekoa.

2. grafikoa. Euskararen ezagutzaren eboluzioa eskualdeka (%)

Herritarren erdiak baino gutxiago euskaldunak diren eskualdeak



Herritarren erdiak baino gehiago euskaldunak diren eskualdeak




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Gisa bereko azterketa udalerriz udalerriz eginda, joera horiek nabariago ageri dira:

- Ezagutza igotzen. 140 udalerritan areagotu da euskaldunen portzentajea 1996tik 2016ra. Gune soziolinguistiko guztietako herriak daude zerrenda horretan, baina gehiago dira bigarren gunekoak (85) eta hirugarrenekoak (41). Badago aldea gune batetik bestera, hala ere: baxuago daudenek izan dute irabazirik handiena. Ikuspegi soziolinguistikotik, baditu ondorioak horrek: lehen gune soziolinguistikoa, euskaldunak %20 baino gutxiago diren udalerriek osatua, desagertzeaz dago. 11 udalerriz daude multzo horretan: 7.500 biztanle. Ezagutza igo den udalerrietan 1.900.000 biztanle pasatxo bizi dira.
- Ezagutza jaisten. 110 udalerritan jaitsi da euskaraz dakitenen ehunekoa. Biztanlez, hala ere, nabarmen pisu txikiagoa dute udalerriz horiek: 220.000 herritar dituzte. Batik bat laugarren gune soziolinguistikoko udalerriz dira (83), eta gainerakoak, hirugarren gunekoak (27). Multzo honetako udalerriz guztiak 10.000 biztanlez azpikoak dira, sei izan ezik: Oñati, Azkoitia, Azpeitia, Gernika-Lumo, Bermeo eta Mungia.


3. grafikoa. Euskararen ezagutzaren eboluzioa herriz herri (%)



Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Ondorengo mapak 2016ko argazkia ematen du: euskararen ezagutzari dagokionez, zein den udalerri bakoitzaren ehunekoa.

B mapa. Euskararen ezagutza 2016an, udalerriaren arabera (%)




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Biga: erabilerak, hazkunde motelagoa

Euskararen erabilera areagotu egin da, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera: azken datuek diote herritarren %13k egin ohi dutela batik bat euskaraz, eta beste %7 erdaraz adina mintzo ohi direla euskaraz. Bost herritarretik batek egiten du, beraz, euskararen erabilera trinkoa: erdaraz adina edo gehiago egiten dute euskaraz. Hogei urtean bi puntu hazi da erabilera: 60.000 herritar gehiago.


4. grafikoa. Euskararen erabilera trinkoa



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Erabileraren igoera hori proportzioan begiratzen bada, nabari da diferentzia bat: ezagutzak izandako igoera baino apalagoa da. Alegia: euskaldun gehiago dago, baina euskaldunen artean proportzioan gutxiago dira euskaraz aritzen direnak. 1996ko inkestaren arabera, euskaldunen %64 aritzen ziren maiz euskaraz, erdaraz adina edo gehiago; 2016an %61 ziren. Etxeko erabileran are nabarmenagoa da aldea: 1996ko inkestan, euskaldunen %65ek adierazi zuten euskaraz egin ohi zutela etxean; 2016an, %53k.

5. grafikoa. Euskararen erabilera trinkoa euskaldunak aintzat hartuta (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Biztanleria eta Etxebizitza Inkestak ere joera berdina erakusten du etxeko erabilerari buruzko datuetan. Gero eta herritar gehiagok egiten dute euskaraz etxean: bai gehienbat euskaraz (%14), bai erdararekin tartekatuta (%10). Ordea, erabilera ez da hazi ezagutzaren proportzioan: 1996an, euskaldunen %73 aritzen ziren euskaraz edo bi hizkuntzetan etxean; 2016an, berriz, %59.

Euskararen ezagutzan alde nabarmena dago eskualde batzuetatik besteetara, eta etxeko erabileraren datuak sakon aztertuta, diferentzia horiek areagotu egiten dira. Zazpi eskualdetan, herritarren %5 ere ez dira aritzen etxean euskaraz. Zazpi eskualde dira, baina populazioan pisu handikoak: erkidegoko herritarren erdiak baino gehiago bizi dira haietan, %55. Euskarari dagokionez, ordea, pisu txikiagoa dute: euskaldunen %38 eta etxean euskaraz jarduten dutenen %12. Tartean daude Bilbo Handia eta Arabako Lautada. Beste eskualde batzuek, berriz, pisua irabazten dute etxeko erabilerari dagokionez: Donostialdeak, Urola Kostak, Tolosaldeak, Goierrik, Debagoienak...

C mapa. Euskararen etxeko erabilera, eskualdearen arabera




Iturria: Eustat. Siadecok landua.


Hamarkada hauetan izan dira aldaketak erabileran, hala ere. Ezagutzak egindako bidearen gisakoa ageri da, are nabarmenago: euskaldun gutxien dagoen eta gutxien hitz egiten den lekuan areagotu da erabilera —hiru puntu baino gutxiago hogeit urtean—; euskaldun gehien dagoen eta gehien mintzatzen den tokietan, ordea, jaitsi —hamar puntu arteko galerak ere bai—. Datuak hamar urteko tarteetan ikusita, hara: 1996tik 2006ra jaitsiera nabarmenagoa izan zen, eta harrezkero gora egin du erabilerak, baina jaitsierari buelta ematetik oso urrun.

6. grafikoa. Euskararen etxeko erabileraren eboluzioa eskualdeka (%)

Herritarren erdiak baino gutxiago euskaldunak diren eskualdeak



Herritarren erdiak baino gehiago euskaldunak diren eskualdeak




Iturria: Eustat. Siadecok landua

Udalerrrikako azterketak ageriagoan jarri ditu desoreka horiek:


- Erabilera areagotzen. Euskararen erabilera 103 udalerritan areagotu da 1996tik 2006ra. Euskarak presentzia txikia duen herriak dira gehienak: udalerri horietatik 83tan, nahiz eta euskararen erabilera areagotu, ez da %10era iristen. Batez beste 2,1 puntu areagotu da erabilera herri horietan. Biztanleria aldetik udalerri handiak daude multzo horretan: 1.675.000 herritar bizi dira, erkidegoko herritarren %77.
- Erabilera jaisten. 147 udalerritan egin du atzera euskararen etxeko erabilerak hogeitun urtean. Euskararen erabilera handiagoko udalerriak dira, oro har: nahiz eta jaitsiera jasan, udalerrien erdietan, 73tan, euskaraz aritzen dira etxeen erdietan baino gehiagotan. Erabilerak batez beste 7,7 puntu egin du atzera udalerri multzo horretan. Kontuan izatekoa da, hala ere, 33 udalerritan hogeitun puntu baino gehiago jaitsi dela erabilera hogeitun urtean. Erabilera igo den udalerri multzoaren aldean, biztanlez txikiagoa da udalerri sorta hau: 500.000 herritar bizi dira, erkidegoko biztanleen %23.

7. grafikoa. Euskararen etxeko erabileraren bilakaera herriz herri (%)




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

D mapa: Euskararen etxeko erabilera 2016an, udalerriaren arabera



Iturria: Eustat. Siadecok landua.

E mapa: Euskararen etxeko erabileraren bilakaera (1991-2016), udalerriaren arabera




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Higa: euskaldunen soslaia

Ezagutzaren eta erabileraren arteko diferentzia gero eta handiago hori ulertzeko, ezinbestekoa da euskaldunen soslaia erreparatzea. Kopuruz, bai, gero eta gehiago dira euskaraz dakiten herritarrak, baina beste ezaugarri batzuk dituzte. Hor sartzen da zuzenean jokoan lehen hizkuntzaren aldagaia. Handitu ez, jaitsi egin da hogei urtean: lehen hizkuntza euskara duten herritar gutxiago dago, bai proportzioan —lau puntu behera—, bai kopuru absolututan —65.000 lagun gutxiago—. Lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara aldi berean dituztenak gehiago dira, nahiz eta oraindik proportzioan gutxi izan. Lehen hizkuntza erdara dutenak areagotu egin dira: lautik hiru pasatxo dira.


8. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Euskarak lehen hizkuntza gisa izandako jaitiera hori aztertzean, kontuan hartu behar da aldagaiaren bilakaera. Abiapuntuan, 1996ko Inkesta Soziolinguistikoa, hau zen joera: zenbat eta zaharrago, gehiagoren lehen hizkuntza zen euskara —65 urtetik gorakoetan, %33rena; 34 beherakoetan, %18rena—. Orain, ordea, 16-24 urte artean dago lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajerik handiena: %22. Urrun, beraz, 1996an adin talde zaharrenak zeukan portzentajetik. Horren alloan, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara dituztenak, batik bat adin talde gazteetan.

9. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera, adin taldearen arabera (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.


Joera horiek zehatzago aztertzeko, Eustaten Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Inkestari erreparatu zaio sakon, 16 urtez azpiko herritarren informazioa ere bai baitauka. Adin talde gazteenak hartu dira aztergai: 2-4 eta 5-9 urte. Joera interesgarriak ageri dira. Batetik, gaztelaniaren transmisioa jaitsi egin da: 1986tik 2016ra, hamahiru-hamalau puntu. Bestetik, euskararen transmisioak gora egin du, baina azken hamarkadan, behera. Tarteko aldagaiak dauka igoera esanguratsua, etengabea: euskara eta gaztelaniaren aldi bereko transmisioak. %9tik %17ra igo da 2-4 urtetan, eta %8tik %14ra 5-9 urtetan. Beste hizkuntza batzuk jaso dituzten umeen portzentajea ere igo da, baina mugatua da oraindik (%3-4).

10. grafikoa. 2-4 eta 5-9 urteko herritarren lehen hizkuntza (%)

2-4 urte



5-9 urte




Iturria: Eustat. Siadecok landua

Laga, boga, sega: lehen hizkuntzaren eragina

Beste aldagai soziolinguistiko batzuekin lotura estua du lehen hizkuntzak. Finean, faktore giltzarria da euskararen erabilerari begira: lehen hizkuntza euskara duten euskaldunek nabarmen gehiago egiten dute euskaraz, bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenek baino. Eta hori da bilakaera: gutxiago dira lehen hizkuntza euskara dutenak, eta gehiago bigarren hizkuntza gisara ikasi dutenak, batik bat eskolan. Euskararen transmisioa funtsezko aztergaia da, beraz. Areago kontuan izanda transmisioa ez dela hizkuntza arauak belaunez belaun pasatze hutsa.

Ezagutza. Umetan zer hizkuntza jaso den, horren arabera alde handia dago hizkuntza gaitasunean: euskara jaso duten gehienek badute euskaraz egiteko gaitasuna. Gero eta gutxiago gertatzen da euskara galtzea. Erdara jaso dutenen artean irabazia dago, gero eta gehiagok dakite euskaraz, baina gehienak ez dute ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunik.


11. grafikoa. Hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Erraztasun erlatiboa. Euskaraz jakitetik harago, erabiltzeari begira bada funtsezko beste aldagai bat: erosotasuna, zein hizkuntzatan moldatzen den hiztuna erraz. Lehen hizkuntza giltzarri da erraztasun erlatiboan. Umetan euskara jaso zuten euskaldunen ia erdiek egiten dute aiseago euskaraz. Etxean euskara eta erdara jaso dituzten euskaldunen artean, ordea, zazpitik batek ere ez du errazen euskaraz egiten, eta erdara jaso duten euskaldunen artean, %1ek. Badago diferentzia nabarmen bat: erdara jaso duten euskaldunek erraztasun txikiagoa dute euskaraz egiteko, euskara jaso dutenek erdaraz egiteko baino. Ondorioa agerikoa da: euskaraz erdaraz bezain aise edo aiseago egiten duten gehienek euskara dute lehen hizkuntza.


12. grafikoa. Erraztasun erlatiboa, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Erabilera orokorra. Inkesta Soziolinguistikoko datuetatik ondoriozta daiteke lehen hizkuntzaren arabera oso alde handia dagoela euskararen erabileran. Hara: euskara lehen hizkuntza duten hiru euskaldunetik bik erdaraz baino gehiago egiten dute euskaraz; etxean bi hizkuntzak jaso dituzten euskaldunetan lautik batera erortzen da portzentajea; eta lehen hizkuntza erdara duten euskaldunetan, %6ra.


13. grafikoa. Erabilera orokorra, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Hedabideen kontsumoa. Erabilera orokorrean soilik ez, euskarazko edukien kontsumoan ere alde esanguratsua dago lehen hizkuntzaren arabera. Siadecok 2017an egindako ikerketa baten arabera (*Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak*), euskarazko prentsara jotzen duten euskaldunen portzentajea diferentzia hauek daude lehen hizkuntzaren arabera: etxean euskara jaso zuten euskaldunen %28k dute euskarazko prentsa gehien irakurtzen dituzten bi hedabideen artean; euskaldun berrien artean, berriz, %10ek.


14. grafikoa. Euskal prentsa gehien irakurritako bi hedabideen artean duten euskaldunak (%)



Iturria: Siadeco. *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak*.

Jarrera. Euskararen aldeko jarrera hedatua dago Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Inkesta Soziolinguistikoak dioenez, baina badaude aldeak lehen hizkuntzaren arabera. Umetan euskara jaso zuten herritarren artean %93 ageri dira euskararen erabilera sustatzearen alde; erdara jaso zutenen artean, erdiak pasatxo (%57). Lehen hizkuntza erdara dutenen kasuan, beste multzo esanguratsu bat erdiko jarrera dutenena da: hirutik bat ez dago ez alde, ez aurka (%31). Euskararen erabilera bultzatzearen aurkako jarrera, beraz, gutxiengoarena da nabarmen.


15. grafikoa. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Lehen hizkuntza, umetan transmititutako hizkuntza, aldagai garrantzitsua da euskara gaitasunari eta erabilerari dagokionez. Ez aldagai hori huts-hutsean: lehen hizkuntzak lotura du hiztunaren erosotasunarekin, inguruan euskaraz aritzeko aukerarekin, euskararen irudiarekin... Finean, euskarazko sozializazioarekin. Horregatik guztiagatik da giltzarria euskararen transmisioa zertan den aztertzea. Gaur-gaurkoz, izan ere, alde nabarmena dago euskara etxean jaso dutenen eta ez dutenen artean: euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duten euskaldun gehienak erdaraz bizi dira. Hona Siadecok 2017an egindako inkesta baten ondorioak, lehen hizkuntzaren arabera gurutzatuta.


16. grafikoa. Euskaraz bizitzea, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Siadeco. Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak.

Lehen hizkuntza eskualdeen arabera aztertuta, nabari da ezagutzarekin eta etxeko erabilerarekin baduela erlazioa: euskara sendoen dagoen lekuetan dute herritar gehiagok euskara lehen hizkuntza. Lau eskualdetan dute herritar gehienek euskara lehen hizkuntza (Markina-Ondarroa, Urola kosta, Gernika-Bermeo eta Tolosaldea); erkidego hamar biztanletik bat eskas bizi da eremu horietan (%9). Eskualde populatuagoetan, ordea, gutxiengo nabarmena dira euskara lehen hizkuntza gisa dutenak: zazpi eskualdetan, %6 baino gutxiagok dute euskara etxean jasotako hizkuntza. Eskualde horien artean daude Bilbo Handia eta Arabako Lautada: erkidegoko biztanleen %55 dira eremu horietan.

F mapa. Euskara lehen hizkuntza gisa, eskualdearen arabera




Iturria: Eustat. Siadecok landua.


Ezagutzaren eta erabileraren kasuan agertutako joera bera nabari da bilakaera aztertzean: euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa baxuena den eskualdeetan, haietan ari da portzentajea areagotzen; herritar gehiagok etxean jasotako hizkuntza euskara duten eskualde gehienetan, berriz, kontrakoa da norabidea.

17. grafikoa. Lehen hizkuntza euskara dutenen eboluzioa eskualdeka (%)

Herritarren erdiak baino gutxiago euskaldunak diren eskualdeak



Herritarren erdiak baino gehiago euskaldunak diren eskualdeak




Iturria: Eustat. Siadecok landua

Euskarak lehen hizkuntza gisa izandako gorabeherak udalerririk udalerri aztertuta, bi multzo ageri dira:

- Euskara lehen hizkuntza gisa gora. Udalerrien gutxiengoan areagotu da euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea: 74 herritan. Euskarak presentzia mugatua duen udalerriak dira ia guztiak, lehen eta bigarren gune soziolinguistikoetakoak: nahiz eta portzentajea igo, herri horietatik 72tan %10 ere ez dira etxean euskara jaso dutenak. Izatez, hogeitaz batzuek beste izan duten gorakada ez da oso adierazgarria: 0,9 puntu. Nahiz udalerrien gutxiengoa izan, biztanlerian pisu handia dute: erkidegoko biztanleen %51.
- Euskara lehen hizkuntza gisa behera. Nabarmen gehiago dira euskarak lehen hizkuntza gisa atzera egin duen herriak: 176. Hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetakoak dira gehienak: 99 udalerritan, herritarren erdiek baino gehiagok dute euskara lehen hizkuntza, nahiz eta jaitiera nabariak izan. Batez beste, sei puntu egin du atzera lehen hizkuntzak hogeitaz batzuek udalerri horietan. Batez bestekoaren azpian badira galera adierazgarriagoak: 46 herritan, hogeitaz batzuek gorakoa da galera —herri txikiak dira gehienak, arnasguneak—. Txikiagoak dira multzo honetako herriak: erkidegoko biztanleen %49 dituzte.

18. grafikoa. Lehen hizkuntzaren eboluzioa herriz herri (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Bilakaera ilustratzeko hiru argazki: 1986, 1994 eta 2008

Datu kuantitatiboen bilakaerarekin batera, aintzat hartzekoa da ikuspuntu kualitatiboa ere. Transmisioari buruz egindako hiru lan aztertu dira horretarako, 1986tik gaur egun arte nolako aldaketa izan den jakiteko:

- 1 *Hizkuntzaren transmisio faktoreei buruzko ikerketa*. Siadeco, 1986.
- 2 *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Siadeco-HPIN, 1994.
- 3 *Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn*. HPS, 2008.

1 *Hizkuntzaren transmisio faktoreei buruzko ikerketa*. Siadeco, 1986.

Hizkuntzaren transmisioari buruzko ikerketa kualitatiboa egin zuen Siadeco Ikerketa Elkartek 1986. urtean. Horretarako, 600 inkesta egin zituen, 500 Hego Euskal Herrian eta 100 Ipar Euskal Herrian. Jatorriz euskaldunak ziren elkarriketatuen 358, eta jatorriz erdaldunak 242.

Belaunaldien arteko degradazioa. 1986ko ikerketa horretan, Siadecok antzeman zuen degradazio bat gertatzen ari zela euskararen ezagutzan, eta are nabarmenago euskararen erabileran.

- Ikerketan parte hartu zutenen aitona-amonek proportzio handiagoan ezagutzen eta erabiltzen zuten euskara, erantzun zutenen aita-amen belaunaldikoek baino.
- Euskara gehien aitona-amonekin eta bilobekin hitz egiterakoan erabiltzen zuten erantzuleek.
- Euskara gutxiago erabiltzen zuten gurasoekin eta seme-alabekin hitz egiterakoan.
- Euskara gutxien, ezkontide edo senar-emaztegaiekin hitz egiterakoan.

Huts egindako transmisioa. Degradazio horren arrazoi gisa, Siadecok ohartarazi zuen familiako bidezko hizkuntza transmisioak huts egiten zuela. Ondorengo arrazoi hauek sumatu zituen:

- Jatorriz euskaldunak ziren inkestatuek giro erdaldunagoetako ezkontideak zituzten, batik bat hizkuntza tipologia altua zutenek (jatorrizko hizkuntza asko landu eta goi mailako gaitasuna lortu zutenek).
- Familia berria sortzeak erdalduntze bat ekarri zuen jatorriz euskaldunak zirenentzat; aldi berean, euskarara hurbiltzeko bidea zen jatorriz erdaldunentzat. Baina galerak handiagoak ziren irabaziak baino.
- Erantzuleek gehiago egiten zuten euskaraz seme-alabekin, ezkontidearekin baino. Uste zuten gurasoek baino gehiago seme-alabek ikasi beharrekoa zela. Seme-alabei zegokienez, euskararekiko jarrera ona zuten.
- Erdaldunek, batez ere Euskal Herrikan kanpo jaiotakoek, ahalegin txikia egin zuten euskara ikasteko, eta saiatu zirenetatik askok ez zuten ahalegin hori euskaraz ongi ikasteraino eraman.

Familiatz besteko faktoreak. Familiako transmisiotik aparte, honako faktore hauek nabarmendu zituzten:

- Eskolak atzendu zituen etxetik euskara zekitenen ezagutza eta erabilera. Euskararen transmisio sozialari kalte egin zion irakaskuntzak, eta hori kitatzeko euskarari irakaskuntzan sarbide osoa ematea proposatu zuten, horrela bakarrik jarri ahalko zelakoan euskara normalizazio bidean.

- Lan mundua zen gizarteko alor erdaldunenetakoa. Lanean egunean 8-10 ordu pasatzen zituztenez urteko hilabete gehienetan, esparru garrantzitsutzat jo zuten: ohartarazi zuten ezinbestekoa zela euskarari sarbidea ematen hastea esparru horretan, gizartean euskararen normalizaziora iristeko.
- Bizitza sozialari dagokionez, erdal giroa zen nagusi elkarte gehienetan, eta, praxian behintzat, erdararen aldeko eragina zuten elkarte horien jendearengan, nahiz teorian euskararen aldekoak izan. Izen euskalduna zuten maiz, baina barruan erdara zen nagusi; euskararekiko jarrera baikorrak baziren ere, txikia zen erabilera.
- Sindikatu eta alderdi politikoetan bazegoen euskara onartzeko joera ideologiko bat, baina estali gisa erabiltzen zen, erdararen aldeko praxia justifikatzeko.
- Jatorriz erdaldun izan eta euskaldundutako herritar askok oztopo handi bat zuten: inguru erdaldun betean bizitzea. Frustrazio pertsonala ekartzen zien horrek, eta ikasten hainbeste kostatakoa ezin erabiltzea. Horrekin, herdoildu eta atzendu egiten zitzairen euskara, ez erabiltzearen ondorioz.

2. *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa. Siadeco-HPIN, 1994.*

Transmisioaren inguruko beste ikerketa bat ondu zuen Siadecok zortzi urte geroago, bi informazio iturritan oinarrituta:

- > 1978-1991 bitartean Siadecok berak eta HPIN Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako azterketa soziolinguistikoak
- > 1991n egindako biztanleen errolda

1986tik 1994ra euskararen transmisioan emandako jauzia irudikatzeko, ikerketako zenbait ondorio azpimarra daitezke:

- Aurreko hogeitaz urteetan familia bidezko hizkuntza transmisioan hobekuntza handia izan zen familia euskaldunen artean. Bai bi guraso euskaldunek osatutako familia tipologietan (%70etik %92ra), baina guraso euskaldun bakarrekoetan ere bai: euskalduna ama zenean %17tik %68ra, eta aita zenean, %12tik %58ra.
- Hobekuntza horrek adierazten zuen belaunaldi berrietan ez zela gertatzen, lehen bezainbat, guraso euskaldunen aldetik seme-alabei euskararik ez transmititzea.
- 1994an inkestatutakoen aitona-amonek hobeki transmititu zietela euskara beren seme-alabei —hau da, inkestatuen gurasoei—, haiek beren umeei baino. 1994an elkarriketatuen gurasoena da etenik handienekoa.
- Belaunaldi horretako aldeko argudio bat ere bai: beren eskuetan galtzeko arriskuan ikusi zutena berreskuratzeko asmoz, ahalegin handia egin zutela seme-alabei euskara transmititzeko.

Inflexio puntua aipatu zuen Siadecok 1994ko ikerketan. Aurreko belaunaldietako higadura edo erosioa gutxitu egin zela azken urteetan, eta guraso euskaldunek lehen baino proportzio handiagoan transmititzen zutela euskara.

Kanpoko eragina. Ohartarazi zuen, hala ere, aldaketa horretan kanpoko baldintzek eragin zutela gehiago, familia barnekoek baino. Horrek adierazten zuen euskararen transmisioa aurrerantzean ez zela izango prozesu natural baten bidez soilik gauzatuko: prozesu kulturalaren bidez ere gertatuko zela. 1994ko ikerketaren aurretik, kanpoko faktore horiek euskararen transmisioaren aurka jotzen zuten, batez ere giro soziopolitikoak. Orduan, ordea, alde jotzen hasiak ziren, besteak beste, haurren eta helduen euskarazko irakaskuntza zabaltzeko izanagatik, edo komunikabideetan eta administrazioetan euskarak lortutako presentziagatik.

1994ko ikerketan aitortu zuten, dena den, giroak ez zuela maila berean eragiten lurralde eta eremu soziolinguistiko guztietako familietan. Alegia, emaitzak hobeak zirela baldintzarik onenak zeudenean: gurasoen ezagutza maila altua, irakaskuntzan presentzia handia eta eremu euskalduna. Nabarmendu zuten eremu soziolinguistikoarena zela eragin handieneko aldagaia: zenbat eta zona euskaldunagoa, orduan eta emaitza hobeak.

Eremu zabalagoa. Ordura arte familiak eta hurbileko gizarteak zuten eraginik nabarmenena seme-alaben hizkuntza egoeran, baina sumatu zuten gizartearen erreferentziak askoz zabalagoak eta konplexuagoak zirela: mugikortasun geografiko handiagoa, hezkuntzaren inguruan antolatutako jardueren eragina eta komunikabideen inpaktua aipatu zituzten, besteak beste. Sozializazio esparru asko zabaldu zirela, eta familiaz kanpoko harremanak zabalagoak zirela.

Datu kuantitatibo esanguratsuak ere ematen zituen 1994ko ikerketak:

- ☐ **Guraso euskaldunak.** Familien laurdenetan guraso bat edo biak euskaldunak ziren.
 - » Bi gurasoak euskaldunak zituzten seme-alaba gehien-gehienek (%93) ongi zekiten euskaraz. Guraso euskaldun bakarra zuten seme-alaben erdiek baino gehiagok ongi menderatzen zuten: guraso euskalduna ama zenean %68k, eta aita zenean, %59k.
- ☐ **Guraso erdaldunak.** Familien hiru laurdenetan gurasoek ez zutela euskara ongi ezagutzen.
 - » Euskara ongi ezagutzen ez zuten gurasoen seme-alaben %15ek menderatzen zuen euskara ongi.
- ☐ **Eremuak.** Euskaldun proportzio handiak zituzten eremuekin bat zetorren euskararen transmisioaren eragin handiena. Ikuspegi geografikoak zera adierazten zuen: guraso eta seme-alaben arteko transmisio naturalerako girorik egokiena euskarak presentzia sozial nabarmena zuen lekuetan zegoela.
- ☐ **Joerak.** Guraso eta seme-alaben arteko transmisio proportziorik handienak lortzen ziren testuinguruek eta baldintzek indar gutxiago zuten: baserri kutsuko herri txikiak eta nukleo bat baino gehiagoko familia handiak.
- ☐ **Familiaren pisua.** Ohartarazi zuten ez zela familia bidezko transmisioaren fenomeno sinplifikatu behar: eremu euskaldunetan erdaldunetan baino hobetu funtzionatu arren, guraso euskaldunak zituzten seme-alaba gehienek ongi jaso zuten euskara.
- ☐ **Guraso euskaldun bakarra.** Ikerketak azaleratu zuen guraso euskaldunak biak zirenean baino okerrago funtzionatzen zuela transmisioak guraso euskaldun bakarrarekin. Giro erdaldunetan ageri zen joera ahulena: erdaldunen presentzia nagusitu ahala, guraso euskaldun bakarren transmisioak behera egiten zuten.
- ☐ **Jatorria.** Gurasoen jaiolekuari erreparatuta, familia bidezko hizkuntza transmisioa batez ere EAEn jaiotakoan artean bideratutako prozesu naturala zen.

3. *Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn. HPS, 2008.*

XXI. mendean sartuta, euskararen belaunez belauneko transmisioari buruzko ikerketa egin zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2008. urtean. Datu kuantitatiboak 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsutik eskuratu zituen, HPSk berak landutako diseinu bati jarraituz, Eustatek berariaz egindako ustiapen bati esker.

Ikerketa horren ondorio nagusiek modua ematen dute 1990eko hamarkadaren hasieratik 2000koaren hasierara izandako bilakaera irudikatzeko:

- **Adina.** Lehen hizkuntza euskara edo biak zituztenen ehunekoak gora egiten zuen adinean behera egin ahala.
- **Biak.** Kopuruei begira, artean talde txikia osatzen zuen arren, hazkunderik handiena euskara eta gaztelania, biak lehen hizkuntza gisa eduki zituztenen taldean ari zen gertatzen.
- **Bi gurasoak elebidunak.** Euskararen transmisioa bermatuta zegoen: seme-alaben %95ek euskara jasotzen zuela lehen hizkuntza gisa; gehienek, euskara soilik.
- **Gurasoen hizkuntza gaitasun erlatiboa.** Erabakigarria zen hizkuntza transmititzeko prozesuan, hizkuntza gaitasun orokor bereko bikoteek oso modu desberdinetan transmititzen zutelako euskara, euren lehen hizkuntzaren arabera: lehen hizkuntza euskara izan edo ez.
- **Ama eta aita.** Amaren hizkuntza identitateak aitarenak baino pisu handiagoa zuen transmisioan. Era berean, amak hizkuntza arloan zuen jarrerak aitarenak baino eragin handiagoa zuen seme-alaben erabileran.
- **Guraso bakarra edo euskaldun berriak.** Transmisioa ez zegoen guztiz bermatua guraso bakarra zenean euskalduna, edo bi gurasoak euskaldun berriak zirenean.
- **Galera.** Euskara lehen hizkuntza zutenen %1ek baino gutxiagok galtzen zuten erabat, eta %7,4k partez.
- **Elebidunak.** Gurasoetako bat gutxienez elebiduna zen familietan, seme-alaben %70 ere elebiduna zen.
- **Gurasoen lehen hizkuntza.** Bi gurasoak euskaldun zaharrak ziren familietan, lehen hizkuntza euskara soilik zuten seme-alabak ziren nagusi. Gurasoetako bat edo biak euskaldun berriak zirenean, nabarmen handitzen zen euskara eta gaztelania, biak batera transmititzeko joera.
- **Lehen hizkuntza eta etxeko erabilera.** Begien bistakoa zen seme-alaben lehen hizkuntzaren eta etxean erabili ohi zen hizkuntzaren arteko paralelismoa.
- **Erabilera katea.** Seme-alaben hizkuntza erabilerak gurasoen erabileraren isla ziren.
- **Erabilera joera.** Euskaraz gero eta gutxiago hitz egiteko joerari buelta eman zitzaion, baita gazteen artean ere. Alabaina, erabileraren hazkundearen erritmoa ezagutzaren hazkundearena baino askoz geldoagoa zen.

Ikerketaren irakurketa kuantitatiboa

Familia bidezko hizkuntza transmisioa aztertzeko ikerketa honetako kopuru zehatzak honako hauek dira: 144 elkarrizketa egin dira guztira; horietatik 32, aurrez aurre, familien herrian, eta beste 112, telefonoz. Denek inkesta labur bat bete dute, hasteko, galdera kualitatiboek modu irekian erantzun aurretik. Galdera kualitatiboen azterketa hurrengo ataletan luze-zabal ageri da. Edonola ere, inkestan jasotako emaitzei ere erreparatu zaie atal honetan, labur bada ere.

144 elkarrizketa horiek ez dute adierazgarritasun estatistikorik EAEn 16 urtetik beherako seme-alabek dituzten familia guztiekiko. Hala ere, inkestako datuak aintzat hartu dira hainbat joera aztertzeko, eta datu kualitatiboak aztertzean baliagarri dira, testuingurua kontuan izateko. Ikerketan erabilitako laginaren ezaugarriak ere xehatu dira.

Elkarrizketatutako familien ezaugarriak

Aztergai diren sei familia tipologietako sendiekin egin dira elkarrizketak: B+ tipologiakoetan gehien (%22); atzerago daude B eta A tipologiak (%19); eta segidan D tipologia (%15), A+ (%13) eta X (%12).

1. taula: Elkarrizketatutako familien tipologia

	Kop.	%
D	21	14,6
B+	32	22,2
B	28	19,4
A+	18	12,5
A	28	19,4
X	17	11,8
GUZTIRA	144	100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

D	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, eta bien lehen hizkuntza euskara da gutxienez.
B+ (B indartua)	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina batek bakarrik du lehen hizkuntza euskara.
B	Bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina haien lehen hizkuntza erdara da.
A+ (A indartua)	Guraso batek ondo egiten du euskaraz, eta euskara du lehen hizkuntza; besteak ez du ondo egiten euskaraz, haren lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.
A	Guraso batek ondo egiten du euskaraz, eta gaztelania du lehen hizkuntza; besteak ez du ondo egiten euskaraz, haren lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.
X	Bi gurasoetatik batek ere ez du ondo egiten, haien lehen hizkuntza kontuan hartu gabe.

Gune soziolinguistiko guztietan egin dira inkestak: lehenengoan (euskaldunak %20 baino gutxiago), bigarrenean (%20-50), hirugarrenean (%50-80) eta laugarrenean (%80 baino gehiago). Familia tipologia guztiak elkarriketatu dira gune guztietan —salbuespena lehen gunea da: ez da D tipologiako sendirik elkarriketatu—.

2. taula: Elkarriketatutako familiak, tipologiaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
1. gune soziolinguistikoa	0	1	2	1	4	2	10
2. gune soziolinguistikoa	5	15	20	6	13	7	66
3. gune soziolinguistikoa	9	12	5	7	9	6	48
4. gune soziolinguistikoa	7	4	1	4	2	2	20
Guztira	21	32	28	18	28	17	144

Iturria: Siadeco, 2019.

Ikasketei dagokienez, elebidunen artean handiagoa da goi mailako ikasketak dituztenen portzentajea.

3. taula: Elkarriketatuen ikasketak

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Oinarrizkoak	1 %4,8	0 %0,0	0 %0,0	0 %0,0	1 %3,6	3 %17,6	5 %3,5
Erdi mailakoak	3 %14,3	6 %18,8	9 %32,1	6 %33,3	12 %42,9	8 %47,1	44 %30,6
Goi mailakoak	17 %81,0	26 %81,3	19 %67,9	12 %66,7	15 %53,6	6 %35,3	95 %66,0
Guztira	21 %100,0	32 %100,0	28 %100,0	18 %100,0	28 %100,0	17 %100,0	144 %100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Ikasketak lotuta daude, neurri batean, familien maila sozioekonomikoarekin. Euren burua erdi mailatik gora kokatu duten familiak tipologiaren arabera sakabanatuago dauden arren, euren burua erdi mailatik behera kokatu duten sendi gehienak gurasoetako bat edo biak elebakarrak diren familia tipologietan daude.

4. taula: Elkarriketatutako familien maila sozioekonomikoa

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Erdi mailatik behera	0 %0,0	3 %9,4	1 %3,6	3 %16,7	4 %14,3	3 %17,6	14 %9,7
Erdi mailan	18 %85,7	26 %81,3	23 %82,1	12 %66,7	21 %75,0	13 %76,5	113 %78,5
Erdi mailatik gora	3 %14,3	3 %9,4	4 %14,3	3 %16,7	3 %10,7	1 %5,9	17 %11,8
Guztira	21 %100,0	32 %100,0	28 %100,0	18 %100,0	28 %100,0	17 %100,0	144 %100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Etxeko hizkuntza ohiturak

Familia tipologiak ezinbesteko eragina du bikoteko harreman hizkuntzan; batzuetan, izan ere, bikotekideetako bat gutxienez ez da euskalduna. Hala ere, biak euskaldunak diren kasuetan ere badaude aldeak. D tipologiakoa da euskararen erabilerarik handiena, bikoteko bien lehen hizkuntza euskara denean; euskaldunak izan arren, lehen hizkuntza euskara ez denean, jaitsi egiten da erabilera. Eta areago bikoteko kide bat erdalduna denean.


5. taula: Bikoteko harreman hizkuntza

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	20 %95,2	19 %59,4	15 %53,6	0 %0,0	0 %0,0	0 %0,0	54 %37,5
Gaztelania edo beste hizkuntza bat	0 %0,0	9 %28,1	9 %32,1	14 %77,8	27 %96,4	17 %100,0	76 %52,8
Berdintsu euskara eta gaztelania (edo beste bat)	1 %4,8	4 %12,5	4 %14,3	4 %22,2	1 %3,6	0 %0,0	14 %9,7
Guztira	21 %100,0	32 %100,0	28 %100,0	18 %100,0	28 %100,0	17 %100,0	144 %100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Lehen hizkuntzak badu eragina bikoteko erabileran, eta seme-alabekiko erabileran ere bai. Aztertu da elkarriketatuek zer hizkuntza erabiltzen duten umeein, beren lehen hizkuntzaren eta bikotekidearen gaitasuna aintzat hartuta. Bi joera: batetik, euskara lehen hizkuntza dutenek euskaraz egiten diete seme-alabei, bikotekidearen hizkuntza gaitasuna gorabehera —euskara edo biak izan lehen hizkuntza, ez dago alderik horren arabera—; lehen hizkuntza erdara dutenek, ordea, asko aldatzen dute erabilera bikotekidearen arabera.

19. grafikoa. Seme-alabekiko hizkuntza, elkarriketatuen lehen hizkuntzaren arabera: bikotekideak euskaraz ondo dakienean (%).



Etxean soilik ez, bikote tipologiaren arabera alde handia dago familiako senideekin duten hizkuntza erabileran ere. D tipologian da erabilerarik handiena, eta lehen hizkuntza euskara ez denean edo bikoteko kideen hizkuntza ezagutza gutxiagotu ahala, txikiagoa da erabilera.

6. taula: Familia zabaleko hizkuntza nagusia, tipologiaren arabera

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	16 %76,2	11 %34,4	2 %7,1	5 %27,8	2 %7,1	0 %0,0	36 %25,0
Gaztelania edo beste hizkuntza bat	1 %4,8	4 %12,5	24 %85,7	1 %5,6	25 %89,3	17 %100,0	72 %50,0
Berdintsu euskara eta gaztelania (edo beste bat)	4 %19,0	17 %53,1	2 %7,1	12 %66,7	1 %3,6	0 %0,0	36 %25,0
Guztira	21 %100,0	32 %100,0	28 %100,0	18 %100,0	28 %100,0	17 %100,0	144 %100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Eskolaz kanpoko erabilera

Seme-alabek aisialdian eta eskolaz kanpoko jardueretan dituzten hizkuntza erabileretan eragin handia du guraso tipologiak: gurasoek lehen hizkuntza euskara dutenean, orduan egiten dute umeek euskaraz gehien; hortik irtenda, lekua irabazten hasten da erdara. Badago ñabardura bat: A+ tipologian baxuagoa da erdara jotzen duten seme-alaben ehunekoa, B tipologian baino.

7. taula: Seme-alaben eskolaz kanpoko hizkuntza erabilera, familia tipologiaren arabera

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	18 %85,7	17 %53,1	9 %32,1	6 %33,3	8 %28,6	7 %41,2	65 %45,1
Gaztelania edo beste hizkuntza bat	1 %4,8	7 %21,9	17 %60,7	8 %44,4	14 %50,0	8 %47,1	55 %38,2
Berdintsu euskara eta gaztelania (edo beste bat)	2 %9,5	8 %25,0	0 %0,0	4 %22,2	5 %17,9	2 %11,8	21 %14,6
Zehaztu gabe	0 %0,0	0 %0,0	2 %7,1	0 %0,0	1 %3,6	0 %0,0	3 %2,1
Guztira	21 %100,0	32 %100,0	28 %100,0	18 %100,0	28 %100,0	17 %100,0	144 %100,0


Iturria: Siadeco, 2019.

Guraso tipologiaren alboan, bada beste aldagai giltzarri bat: testuinguru soziolinguistikoa. Zenbat eta inguru euskaldunagoa, gehiago erabiltzen dute hurrek euskara eskolatik kanpo. Bi aldeko txanpona da: hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan, etxean erdaraz aritzen diren neska-mutil askok egiten dute euskaraz eskolatik kanpo; inguru erdaldunagoetan, ordea, familia euskaldunetako haur askok jotzen dute erdarara kalean.

Erosotasuna

Seme-alabak zein hizkuntzatan sentitzen diren erosoan, nabari dira gurasoekiko jardunak badaukala eragina. Euskaraz aritzen badira guraso-umeak, seme-alabek erraztasun handiagoa dute euskaraz jarduteko; erdarara jotzeko joera badute, erosotasunak ere bide hori hartzen du. Finean, bistakoa da gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura. Are, nabari da bi hizkuntzetan berdintsu aritzean erdara gailentzen dela erosotasunari dagokionez.

20. grafikoa. Seme-alaben erosotasuna, gurasoekiko erabileraren arabera



Iturria: Siadeco, 2019.

Inguruaren eragina ere nabarmena da. Zenbat eta eremu euskaldunagoa, handiagoa da euskaraz eroso sentitzen diren seme-alaben proportzioa: hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan, gora egiten du euskaraz aise aritzen diren umeen ehunekoak, baita jatorriz euskaldunak ez diren gurasoak edo bikote mistoak izanda ere. Dena ez du inguruak definitzen, hala ere: D eta B+ tipologiako familietan, adibidez, euskaraz erosoago moldatzen dira umeak, nahiz eta gune erdaldunagoetan bizi; aldiz, X tipologiakoak, erdaraz aiseago eremu euskaldunenetan ere.

Erabilerak erosotasunean eragiten du, eta erosotasunak, erabileran. Aztertu denean, adibidez, seme-alabek zer hizkuntza erabiltzen duten eskolaz kanpoko jardueretan eta aisialdian, nabari da aldea. Ez da ahaztekoa inguruak zer eragin daukan, horrek ere definitzen baitu seme-alabek zer hizkuntzatan egingo duten esparru horietan.

8. taula: Seme-alaben erabilera eskolaz kanpo, erosotasunaren arabera

	Euskaraz erosoago	Erdaraz erosoago	Berdintsu	Zehaztu gabe	Guztira
Euskara	46 %67,6	8 %17,8	11 %39,3	0 %0,0	65 %45,1
Gaztelania edo beste hizkuntza bat	12 %17,6	33 %73,3	10 %35,7	0 %0,0	55 %38,2
Berdintsu euskara eta gaztelania (edo beste bat)	10 %14,7	4 %8,9	7 %25,0	0 %0,0	21 %14,6
Zehaztu gabe	0 %0,0	0 %0,0	0 %0,0	3 %100,0	3 %2,1
Guztira	68 %100,0	45 %100,0	28 %100,0	3 %100,0	144 %100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Continuum bat dago erabileran: gurasoein erabiltzen duten hizkuntzaren arabera aldatu egiten da seme-alaben erosotasuna —eta, horrekin, seme-alaben euren erabilera—. Areago, ordea, gurasoen bikoteko hizkuntzaren arabera aztertzen bada seme-alabena, berbera da joera.

9. taula: Seme-alaben erosotasuna, gurasoen harreman hizkuntzaren arabera

	Bikoteko hizkuntza euskara	Bikoteko hizkuntza erdara	Bikoteko hizkuntza biak	Guztira
Euskaraz erosoago	46 %85,2	14 %18,4	8 %57,1	68 %47,2
Erdaraz erosoago	3 %5,6	41 %53,9	1 %7,1	45 %31,3
Berdintsu	5 %9,3	21 %27,6	2 %14,3	28 %19,4
Zehaztu gabe	0 %0,0	0 %0,0	3 %21,4	3 %2,1
Guztira	54 %100,0	76 %100,0	14 %100,0	144 %100,0


Iturria: Siadeco, 2019.

Adina

Hizkuntza transmisioaren oinarriak haurren lehen urteetan ezartzen baldin badira ere, gaitasunak eta erabilera ohiturek eragina izaten dute aurrerabidean. Adinean gora egin ahala jaitsi egiten da euskararen erabilera. Kontuan izatekoa da testuinguru erdaldunak direla nagusi, eta erabilera joeretan eragin handia daukala horrek.

Gurasoek seme-alabekin aritzeko duten joera ere aldatu egiten da adinean gora egitean: lekua galduz joaten da euskara. Euskaraz badakiten gurasoen artean, bietara aritzeko joera gailentzen hasten da 12 urtetik aurrera.

21. grafikoa. Seme-alabekiko erabilera, gurasoen gaitasunaren eta seme-alaba gazteenaren adinaren arabera: gurasoak euskaraz ondo hitz egiten duenean (%)



Iturria: Siadeco 2019


A atala:

Transmisioa esparruz esparru

1. Transmisioa non

Gurasoen hizkuntza gaitasuna giltzarria da euskara seme-alabei transmititzeko, eta haien lehen hizkuntza ere bai. Belaunez belauneko familia transmisioa da sendoena: etxean euskara jaso zuten guraso guztiek transmititzen diete euskara seme-alabei gaur egun, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa dioenez. Ordea, gurasoen lehen hizkuntza gisa erdara agertzen denean edo bietako batek euskara ez dakienean, pixkanaka apalduz joaten da euskararen transmisioa. Hara: gurasoetako bakarrak dakienean euskaraz eta lehen hizkuntza erdara duenean, umeen erdiek ez dute euskara jasotzen etxean, eta jasotzen dutenek erdararekin batera ikasten dute. Bi gurasoak euskal hiztun berriak direnean, alegia, etxetik kanpo ikasiak, bostetik batek ez du euskara transmititzen etxean.

22. grafikoa. 3-15 urtekoen transmisioa, gurasoen ezaugarrien arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuen berariazko zenbait gurutzaketa egin dira ikerketa honetarako. Kasu honetan, familia tipologiak eratu dira, 3-15 urte arteko seme-alabak dituzten inkestatuen hizkuntza gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren eta euren bikotekideenaren arabera. Guztira 1.294 familia eratu dira, gainerako 24ek ez dutelako bikotekiderik, inkestarten arabera (gehienak erdaldunak dira).

Hasteko, tipologia bakoitzak EAEn duen pisua kalkulatzeko, datuak haztatu egin dira, horretarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza erabiltzen duen haztapan indizea aplikatuta. Ariketa horren emaitza da ondorengo taula, 2016. urtean 3-15 urteko seme-alabak zituzten familien banaketa irudikatzen duena, tipologiaren arabera.

Familien hiru laurdenetan bikotekideetako bat edo biak erdaldunak dira, eta familien ia erdietan, biak erdaldunak. Familia mistoen portzentajeak laurdena gainditzen du, eta bi euskaldun berrik osatutako familien pisua txikia da oraindik (%4,5). Euskara transmititzeko baldintzarik onenak dituen D tipologikoak familien %15 inguru dira.

10. taula: Familia tipologia bakoitzaren pisua, 2016ko inkestaren arabera (%)

D	B+	B	A+	A	X	Guztira
15,0	6,7	4,5	11,5	15,7	46,6	100

Iturria: Siadeco, 2019.

Inkesta Soziolinguistikoko datuetan oinarrituta, D tipologiako familien %94k euskara transmititu dute, eta %6k, euskara eta erdara. Tipologia horretatik irtenda, txikiagoa da erabat euskara transmititu dutenen ehunekoa, eta igo egiten da bi hizkuntzen transmisioa, areago gurasoetako batek euskara ez dakienean. Datu horien arabera, euskara transmititu ez dutenak gehiago dira B tipologian (bi gurasoak euskaldun berriak), A+ tipologian baino (guraso bat euskalduna, euskaldun zaharra). X tipologian, gurasoen %4k gaztelania ez beste erdara bat transmititu dute.

11. taula: Lehen seme-alabaren lehen hizkuntza, familia tipologiaren arabera (2016, %)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	93,6	70,7	46,6	5,5	1,0		21,6
Euskara eta gaztelania	6,4	24,3	36,4	82,5	47,9	0,2	21,3
Gaztelania		5,0	17,0	11,9	50,4	96,0	55,2
Beste bat					0,7	3,8	1,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Ikusita nolako desberdintasunak dauden guraso tipologia batetik bestera, interesgarria da bilakaera aztertzea, bi aldetatik: guraso tipologia bakoitzaren pisua nola aldatu den eta tipologia bakoitzean zer eboluzio izan duen euskararen transmisioak. Inkesta Soziolinguistikoko ez du modurik ematen luzetarako azterketa bat egiteko, 2016 aurreko aldietan ez baitzen guraso tipologia horiek osatzeko moduan egin galdetegia. Beste informazio iturri batzuk hartu behar dira kontuan, hortaz. Alderaketa egiteko egokierarik onena Eusko Jaurlaritzaren 2008ko ikerketak ematen du (*Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn; aurreko atalean azertua*); beste informazio iturri bat du, 2001eko zentsua, baina familia tipologia berberak eraiki zirenez, badago konparaketa egiteko modua.

Ikerketa horretan, 2001eko zentsua hartu zuten oinarri, eta 2-29 urteko herritarren gurasoei erreparatu zieten; hots, 1972-1999 artean jaioetakoen aita-amei; azterketa honetarako, berriz, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datuak ustiari dira, eta familia tipologiak eraikitzean, 3-15 urteko herritarren gurasoak hartu dira aintzat, alegia, 2001-2013 artean haurrak izan zituztenak. Aldeak nabari dira inkesta batetik bestera. 2001eko zentsuaren arabera, 2-29 urteko herritar gehienak X tipologiako sendietan jaio ziren: hamarretik zazpi. D tipologiako familia zortzitik bakarra zen.

12. taula: Familia tipologia bakoitzaren pisua, 2001eko zentsuaren arabera (%)

D	B+	B	A+	A	X	Guztira
12,9	1,8	1,0	9,0	4,5	70,9	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2008. Siadecok landua.

Tipologia bakoitzaren pisua aztertzearekin batera, interesgarria da ikustea bakoitzean zertan den euskararen transmisioa. 2001eko datuen arabera, euskararen transmisioa hedatua zegoen D tipologian (%1ek ez zuten transmititu 1972-1999 artean); hortik irtenda, ezagutza jaistean edo lehen hizkuntza euskara ez denean, guraso gutxiagok transmititu zuten euskara. Euskararen transmisioa handiagoa A+ tipologian, B tipologian baino; alegia, euskara seme-alabei gehiago transmititu zien guraso euskaldun zahar bakarrak, bi guraso euskaldun berrik baino.

13. taula: Seme-alaben lehen hizkuntza, familia tipologiaren arabera (2001, %)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	93,9	76,2	32,2	46,9	11,6	1,7	19,7
Euskara eta erdara	4,7	16,2	18,9	34,6	21,3	3,5	7,7
Erdara	1,4	7,6	48,9	18,5	67,1	94,8	72,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Siadecok landua

Bi ikerketen arteko alderaketa egiteko, ez da ahaztu behar zer desberdintasun dituzten: Inkesta Soziolinguistikoa da bat, eta zentsua bestea; batek 1972-1999 arteko transmisioa du aztergai, eta besteak, 2001-2013 artekoa. Alde horiek ahaztu gabe, joera interesgarriak erakusten ditu bi ikerketak alboan jartzeak. Hona gako nagusiak:

- X tipologiaren jaitsiera nabarmena da: familien %71 ziren 1972-1999an umeak izan zituztenen artean, eta %47 dira 2001-2013 epealdian. Horrek aldatu egiten ditu orekak: datu horien arabera, gaur egun umeak dituzten familia gehienetan gurasoetako batek behintzat badaki euskaraz.
- Gainerako tipologia guztiek egin dute gora, baina ez neurri berean. Irabazirik txikiena D tipologiak izan du, bi kideak euskaldun zaharrak dituzten bikoteenak; bikote mistoek egin dute gora batez ere, eta bereziki A tipologiak, non kide euskaldunak bigarren hizkuntza gisa ikasi duen euskara. Eskolaren eragina nabari daiteke, beraz, gaur egungo guraso belaunaldian.
- Aldaketa horrek egokiera jarri du euskararen transmisioak pauso bat eman dezan aurrera, baina aldatu egin dira transmisio moldeak. Euskara eta erdara aldi berean transmititzeak hartu du indarra —hirukoiztu egin da ia—, eta igoera apalagoa izan du erabat euskarazko transmisioak, bi puntukoa. Aldaketa sakona da. Hara: 1972-1999an, bi hizkuntzak jasotzen zituztenen ehunekoa ez zen heltzen euskara jasotzen zutenen erdira ere; 2001-2015ean, elkarren parean daude bi transmisio moldeak.
- Erdara soilik transmititzen dutenak nabarmen gutxiago dira, baina oraindik ia bostetik hiru. Tipologia guztietan jaitsi da erdararen transmisioa, X tipologian izan ezik —kasu horretan, gurasoek ez dakite euskaraz; areago, tipologia horretan izan da aldaketa bat, gaztelaniak ez beste hizkuntza batzuek gora egin baitute transmisioan, migrazioekin lotuta—.

14. taula: Familia tipologia bakoitzaren eboluzioa pisuan eta hizkuntza transmisioan (%)

	Euskara		Euskara eta erdara		Erdara		Pisua	
	72-99	01-13	72-99	01-13	72-99	01-13	72-99	01-13
D	93,9	93,6	4,7	6,4	1,4	0,0	12,9	15,0
B+	76,2	70,7	16,2	24,3	7,6	5,0	1,8	6,7
B	32,2	46,6	18,9	36,4	48,9	17,0	1,0	4,5
A+	46,9	5,5	34,6	82,5	18,5	11,9	9,0	11,5
A	11,6	1,0	21,3	47,9	67,1	51,1	4,5	15,7
X	1,7	0,0	3,5	0,2	94,8	99,8	70,9	46,6
Guztira	19,7	21,6	7,7	21,3	72,7	57,1	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Familekin egindako elkarriketetan agerian geratu da euskararen transmisioan nolako garrantzia duten gurasoen gaitasunak eta lehen hizkuntzak. Ikerketa honetarako zehaztutako sei tipologietako sendiak bildu dira elkarriketetan —gurasoen gaitasuna eta lehen hizkuntza konbinatzen dituzte tipologiek—, eta alde adierazgarriak nabari dira batzuetatik besteetara.

Bi gurasoak euskaldunak direnean eta euskara dutenean lehen hizkuntza, erabat bermatua dago euskararen transmisioa, datuek diotenez. «Naturaltasuna» aipatu dute era horretako familek. Ez dute berariazko erabakirik hartu euskara transmititzeko: «berez» egin dute, familiako katea segituz.

«Naturala izan da. Beti euskaraz egin dugu etxean; beraz, ez dugu erabaki bat behar izan» (Zamudio-D)

«Ez da erabaki bat izan. Horrela atera zaigu» (Aulesti-D)

«Biak euskaldunak izanda, natural irten zaigu» (Zeanuri-D)

«Ez zen erabaki kontziente bat izan. Biok etxean jaso genuen euskara, eta ez genuen zalantzarik izan euskaraz umeei egiteko orduan» (Eibar-D)

«Euskaldun zaharrak gara, eta beti euskaraz mugitu gara. Ez genuen zalantzarik izan» (Beasain-D)

«Erabaki beharrik ere ez dugu izan. Biak gara euskaldun zaharrak, eta guztiz logikoa da seme-alabak euskaraz hezte. Ez gara ezertan oinarritu. Gure familiaren jarraipen naturala besterik ez da» (Azpeitia-D)

Hala ere, soslai horretako gurasoen artean ere badira transmisioari buruz gogoeta egin duten aita-amak. Badituzte ezaugarri batzuk: adibidez, udalerri erdaldunagoak izatea bizileku eta euskararen erabilerari dagokionez gorabeherak eduki izana —gaztetan edo helduaroan erdaraz aritzeko ohitura izatea—.

«Erabaki kontziente bat izan zen, baina, aldi berean, naturala. Oso euskaltzaleak gara. Garrantzia eman diogu, zalantzarik gabe» (Gasteiz-D)

«Kontzienteki egin genuen seme-alabei euskaraz egiteko hautua. Erabaki genuen gure etxeak euskararen arnagune izan behar zuela» (Bermeo-D)

Hori da, hain zuzen, mendeetan euskararen belaunez belauneko transmisioari eutsi dion familia tipologia. Alabaina, azken hamarkadetako paradigma aldaketa kontuan hartuta, nabari da D tipologiako familiak ez direla modu esanguratsuan areagotu, eta bestelako ezaugarriak dituzten familia motak ere ari direla euskara transmititzen.

D tipologiatik aterata, aldatu egiten da transmisio moldea. Gurasoen gaitasuna murriztu edo lehen hizkuntza aldatu ahala, datuek jaitziera erakusten dute, oro har, datu kuantitatiboek erreparatuta. Aldeak daude, dena den, tipologia batetik bestera. Bestalde, euskara transmititzen duten familietan aldaketa handi bat nabari da: gogoeta bat dago oinarrian, gaia esplizitu egitea, eta erabakia hartzea. Gehienetan ez da berez-berez etorritako kontua, erabaki kontziente baten ondorioa baizik:

«Naturala izan bada ere, gu euskaldunak garelako, haurdunaldian hitz egin genuen gai horri buruz. Beraz, erabaki kontziente bat izan zen: guretzat garrantzitsua zen seme-alabek ama hizkuntza gisa edukitzea euskara» (Getxo B+)

«Erabaki kontzientea izan da, eta balio izan du gure harremana euskaraz indartzeko. Erabaki guztiz politikoa izan da» (Laudio B)

«Erabaki erabat kontzientea izan da. Aspaldi saiakerak egin genituen gure harremana euskalduntzeko, baina, batez ere, umeen etorrerarekin eta haurdunaldiarekin hartu genuen erabakia. Bikote harremana indartzeko balio izan digu, nahiz eta kostata izan den» (Amurrio B)

«Haurdunaldian hartu genuen erabakia: seme-alaba euskaldunak nahi genituela erabaki genuen. Bikotekideak esfortzu handia egin du, ez baita asko moldatzen euskaraz. Oso pozik gaude ondo atera zaigulako» (Agurain A+)

«Argi neukan euskaraz hezi behar genuela semea. Nahiz eta nire bikotekideak ez jakin euskaraz, hark ere argi zuen euskara izango zela etxeko hizkuntza, ahalik eta neurri handienera» (Santurtzi A)

«Jarrera politiko bat izan da. Gaztelaraz erosoago sentitzen naizen arren, badakit euskararen transmisioa beharrezkoa dela hizkuntza bizirik mantentzeko» (Zeanuri B+)

Gurasoen gaitasuna gutxitzearekin, txikiagoa da euskararen transmisioa. Alde batetik, ezagutza kontu bat dago oinarrian: gurasoek ohartarazi dute ez daukatela euskara transmititzeko adinako gaitasunik. Bestetik, ordea, badago beste aldagai bat ere: gogoetarik eza. Inertziak eraman ditu erdara transmititzera. Adierazgarria da, hala ere, familia batek baino gehiagok emandako argudio bat: etxean ez dutela euskara jaso seme-alabek, baina euskarazko eskolara bidaltzea erabaki dutela.

«Korronte jarraitu genion. Umeak gaztelaniaz heztea ez zen erabaki bat izan. Naturala izan zen euskara ez irakastea, ez baitauek nahiko gaitasun. D ereduan apuntatu genuen. Hori izan zen gure ekarpena» (Arrigorriaga A)

«Nik berandu ikasi nuen euskaraz, eta haurrak jaiotzerako erdipurdi moldatzen nintzen; beraz, ez, ez genuen lortu euskarazko transmisioa ematea. Denborarekin lortu dut alabarekin euskaraz aritzea, baina giro erdalduna daukagu etxean» (Sestao A)

«Gaztelania transmititzea ez zen erabaki kontzientea izan. Guretzat erosoagoa da gaztelaniaz aritzea: nik badakit hitz egiten, baina ez jaiotasunez, eta bikotekidea ikasten ari da. Hala ere, D ereduan matrikulatu genituen umeak, guretzat inportantea baita tokiko hizkuntza jakitea» (Elgoibar A)


«Betidanik gaztelaniaz egin dugu etxean, eta ez dugun planteatu guk geuk euskara irakastea. Baina D ereduan apuntatu ditugu. Hori izan da gure ekarpena euskararen transmisiorako» (Agurain X)

«Gaztelaniaz hezi gara beti, eta naturala izen gure alaba gaztelaniaz heztea. Ona izango zatekeen euskara ikasi bagenu umea jaio aurretik, baina ez genuen egin, eta gaztelaniaren bidean jarraitzen dugu» (Zamudio X)

«Ez gara ezertan oinarritu: ez dakigu euskara, eta ezin diegu umei irakatsi» (Oñati X)

Euskararen transmisioak zer bilakaera izan duen, eta bide batez, tipologiaen arabera egon daitezkeen aldeak aztertu nahirik, Inkesta Soziolinguistikoko adin taldeen datuak aztertu dira sakon: 16 urtetik gorako herritarrei zer hizkuntza transmititu zieten etxean, guraso biak euskaldunak izanik edo gurasoetako bakarra izanik. Bi gurasoak euskaldunak izanik, 16-34 urteko hamar herritarretik bederatzik jaso dute euskara etxean —hogei urtean zazpi puntu gora—; euskalduna guraso bakarra denean, gutxiago dira erdara soilik jaso duten seme-alabak, baina igoera ez da euskararen transmisioetik etorri, aldi berean bi hizkuntzak transmititzetik baizik. Aldaketa da, nolanahi ere: 50 urtetik gorako gehieneri ez zieten euskara transmititu guraso bakarra zenean euskalduna.

23. grafikoa. Lehen hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.


16 urtetik gorako herritarren datuak dira horiek, nolanahi ere: alegia, 2000. urteaz atzerako joerak erakusten dituzte, nola joan den euskararen transmisioa aurrera egiten —serie osoa kontuan hartuta, ia XX. mende osoko eboluzioa dago oinarrian—. Azken hamarkadako joera zein den ikusteko, beste datu batzuei begiratu behar zaie: zein den adin talde gazteenen lehen hizkuntza. Aurreko urteetan hasitako joerak sendotu egin direla erakutsi dute datuek: gaztelaniaren transmisioa txikiagoa da, baina aldaketa hori ez da joan zuzenean euskararen zakura, bi hizkuntzen multzora baizik. Gero eta haur gehiagok jasotzen dituzte etxean euskara eta gaztelania.

24. grafikoa. 2-4 eta 5-9 urteko herritarren lehen hizkuntza (%)

2-4 urte



5-9 urte



Iturria: Eustat. Siadecok landua

Familiekin egindako solasaldietatik ateratako ondorioen gisakoak eman dituzte herrietako adituek ere. Gaitasunari eta erraztasunari heldu diote: guraso askok oztopoak dituztela euskaraz mintzatzeko, ez direla eroso aritzen, eta gaztelaniara eramaten dituela horrek. Aditu batzuek ohartarazi dutenez, adinean aurrera egin ahala galera bat dakar horrek: ume-umetan, bai, euskaraz aritzen dira, baina koskortu ahala, erdarara pasatzen dira.

«Zenbat eta gaitasun handiagoa, orduan eta aukera handiagoa euskara transmititzeko» (Zumarraga)

«Guraso asko ez dira euskaraz eroso sentitzen, eta seme-alabei oso umeak direnean baino ez diete egiten euskaraz» (Santurtzi)

«Gurasoen ezaugarri linguistikoek berebiziko eragina dute. Etxean normaltasunez jaso dutenak orokorrean motibatuago daude seme-alabei euskara transmititzeko. Eskolan ikasi dutenei dagokienez, bi joera nabari dira: batetik, hizkuntza bereziki zaintzen dutenak, txikitan izan ez zutena seme-alabei eman nahi dietenak; bestetik, nolabaiteko axolagabekeria dutenak, euskara jakin arren transmisiorako kontzientziarik ez dutenak» (Tolosa)

«Guraso gehienentzat bigarren hizkuntza da euskara, hau da, eskolan jaso edo euskaltegian ikasi dute. Beraz, ahalegin berezi eta kontzientea egin behar dute, gaitasun txikiagoa dutelako. Asko galtzen dira bidean» (Agurain)

«Bikote gutxi dira haien artean euskaraz aritzen direnak, eta haurrek 12 urte baino gehiago dauzkatenean, umeekin gaztelaniaz hitz egitera salto egiten dute. Bikotearekin euskaraz hitz egiten duten familietan bakarrik bermatzen da benetako transmisioa. 12 urte artekoa ez baita transmisio erabatekoa» (Donostia)

«Euskararen transmisioaren kalitatean galera handia dagoela esango nuke, hau da, seme-alabak txikiak diren bitartean euskara erabiltzen dute, baina, urteetan gora joan ahala, hizkuntza beharizan konplexuagoak sortzen direnean, hainbat gurasok hizkuntza aldatzen dute, eta, era horretan, haurrek ez dute garatzen behar besteko erraztasunik eta baliabiderik hizkuntza eredu osotua izateko» (Bermeo)

«Euskara eskolan ikasi duten belaunaldiak dira guraso, baina lehen hizkuntza ez dute euskara, eta, ondorioz, gehienetan etxeko hizkuntza ere ez. Bikote hizkuntza ez behintzat. Seme-alabei euskaraz egin diete txikitan, D eredura eraman dituzte (besterik ez dago herrian), baina handitzen diren heinean etxeko hizkuntza ere aldatzen doa gaztelarara. Euskara eskolan ikasi duten gehienen kasuan, transmisioa ez, erabilera da arazoa» (Zarautz)

«Joera ezberdinak ikusten ditut. Batetik, jokabide oso kontzientea duten gurasoak: beren buruari euskara transmititzea helburu gisa ezartzen diotenak, eta gaztelaniari nolabaiteko galga jartzen diotenak. Bestetik, euskara zein gaztelania transmititzen dutenak, gehiegi planifikatu gabe. Gurasoen gaitasun linguistikoaren arabera izaten da bakoitzak hartzen duen pisua» (Gasteiz)

Familia tipologia bakoitzeko transmisioaren bilakaera aztertzeko, Inkesta Soziolinguistikoko datuen beste ustiaketa bat egin da bi belaunaldi alderatuta: inkesta erantzun dutenek eta haien gurasoek zer transmititu duten. Alderaketak erakusten du euskararen transmisioak aurrerapausoa eman duela, eta batez ere bi hizkuntzenak.

15. taula: Inkestatuen gurasoek eta inkestatuek transmititutako hizkuntza, familia tipologiaren arabera (%)

		Tipologia						Guztira
		D	B+	B	A+	A	X	
Lehen belaunaldia	Euskara	87,9	67,2	73,8	11,5	6,9		17,5
	Euskara eta gaztelania	5,1	32,8		55,0	20,8	1,0	6,5
	Gaztelania	7,0		26,2	33,5	72,3	93,4	72,0
	Beste bat						5,6	4,0
Bigarren belaunaldia	Euskara	93,6	70,7	46,6	5,5	1,0		21,6
	Euskara eta gaztelania	6,4	24,3	36,4	82,5	47,9	0,2	21,3
	Gaztelania		5,0	17,0	11,9	50,4	96,0	55,2
	Beste bat					0,7	3,8	1,9


Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

2. Bikote mistoak eta generoa

Orain arte ikusitako datuek agerian jarri dute alde nabarmena dagoela bikote batzuetatik besteetara: euskaldunak guraso biak diren edo ez, eta zein den haien lehen hizkuntza. Diferentzia berehalako bat badago bi gurasoak euskaldunak izan edo bikote mistoak izan: bikote mistoetan, salbuespena da umeari euskara soilik transmititzea. Ez da harritzekoa, kontuan hartuta gurasoetako batek ez dakiela euskaraz, edo ez behintzat komunikatzeko adinako gaitasunarekin. Bikote misto horietan beste aldagai bat sartzen denean, alegia, euskaraz badakien gurasoak lehen hizkuntza ez duenean, handitu egiten da transmisiorik eza: era horretako familietan, umeen erdiek ez dute euskara jasotzen etxean.

Baina zein da diferentzia euskaraz dakiena aita edo ama izan? Inkesta Soziolinguistikoko datuen gurutzaketak agerian jarri du diferentzia: euskalduna ama izateak eragin handiagoa du transmisioan. 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datuen arabera —16 urtetik gorako herritarrek hartuta—, guraso euskalduna ama zutenean erdiek jaso dute euskara etxean —gehienek erdararekin batera—: %52k. Euskalduna aita izan dutenek, berriz, transmisio txikiagoa izan dute: hirutik batek, %36k.


25. grafikoa. Seme-alaben lehen hizkuntza familia mistoetan (%).



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Aita-amen transmisio horren eboluzioa aztertuta, joera bat nabari da: txikitzen ari da aldea, eta aita euskaldunek gero eta gehiago transmititzen dute euskara —amek ere bai, baina proportzioan igoera txikiagoa da haiena—. 2016ko datuak hartuta, hara: 16-34 urte dituztenetan, lau puntuko aldea dago euskararen transmisioan ametatik aitetara; 35-49 urterekin, berriz, 30 puntukoa; eta 49 urtetik aurrera, hemezortzi puntukoa.

26. grafikoa. Seme-alaben lehen hizkuntza familia mistoetan, seme-alaben adinaren arabera (%).




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Datu horiek eta atzeragokoak aztertuta, nabari da euskararen transmisioak nabarmen egin duela aurrera familia mistoetan —2006ko eta 1996ko Inkesta Soziolinguistikoetan ere egin dira gisa bereko gurutzetak—. Honako ondorio hauek jar daitezke mahai gainean:

- 1950etik atzera, euskararen galera orokortua zen familia mistoetan: guraso euskaldun bakarra zuten gehienek, lautik hiruk, ez zuten euskara jaso etxean. Proportzioan, oso bazterrekoa zen gisa horretako familien pisua: orain baino askoz gutxiago ziren.
- Garai horretatik aurrera, 1960ko eta 1970eko hamarraldietan, txikiagoa da transmisioaren galera familia mistoetan, baina batik bat emakumeen rolari zor zaio hori: bikotekide erdalduna aurkitu zuten emakumeek nabarmen hobeto eutsi zioten euskararen kateari, gizonezko euskaldunek baino.
- 1980ko hamarkadatik aurrera txikiagoa da genero desoreka hori, nahiz eta artean nabari den diferentzia emakume euskaldunen seme-alaben alde. Familia misto gehienetan euskara transmititzen diete seme-alabei ordutik aurrera, kasu gehienetan erdararekin batera.

Diferentzia desagertu ote den iradokitzen dute 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datu batzuek. 3-15 urteko seme-alabak dituzten gurasoei galdetzen diete zein hizkuntza transmititu duten, eta, datu horien arabera, familia mistoetan handiagoa da gizonezkoen transmisioa emakumezkoena baino. Kontuan izatekoa da, ordea, datu horiek badutela desberdintasun bat orain arte aipatutakoekin: lehen hizkuntzaz galdetzean, inkestatuari egiten zaio galdera, zer transmititu dioten; 3-15 urtekoen transmisioari dagokionez, berriz, transmititzaileari egiten zaio galdera, gurasoari.


27. grafikoa. 3-15 urtekoen lehen hizkuntza, familia mistoetan (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Generoa eta transmisioa aipatzean, aztertzekoa da aurkako norabidea ere: gurasoek berdin ematen ote dieten euskara semei eta alabei. Aita-amen transmisioaren gisako joera ageri da: diferentziak izan dira, baina gero eta txikiagoak dira. Azterketa hori egiteko, Eustaten datuak baliatu dira, Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikaren informazioa. 1986ko inkestan, 0,6 puntuko aldea zegoen lehen hizkuntzan gizonetatik emakumeetara; 2016koan, 0,1 puntu eskasekoa. Areago, 2016an, euskara eta bi hizkuntzak batuta, handiagoa da gizonezkoen portzentajea, emakumezkoena baino.

28. grafikoa. Herriarren lehen hizkuntza, sexuaren arabera (%)




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

3. Euskara vs bi hizkuntzak

Urteotan jaitsi egin da lehen hizkuntza gisa euskara duten herritarren kopurua, eta igo euskara eta erdara aldi berean jaso dituztenena. Oraindik portzentajeaz ez dute pisu handirik —16 urtetik gorako herritarren %6—, baina bilakaera soziolinguistikoa ikusita, arretaz zaintzeko fenomeno da. Eustaten datuetan nabarmena da joera: 19 urtez azpiko herritarren %14k jaso dituzte bi hizkuntzak etxean. 30 urtean bikoiztu baino gehiago egin da portzentaje hori. Areago, ikusita euskara lehen hizkuntza ez duten gurasoek eta bikote mistoek joera handiagoa dutela bi hizkuntzak transmititzeko, uste izatekoa da portzentaje horiek igo egingo direla datozen urteetan.

29. grafikoa. Lehen hizkuntza, adinaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Grafiko horrek erakusten du hiru belaunalditan zer bilakaera egin duten lehen hizkuntzaren aldagaiak. Hara: 5-14 adin taldearen gurasoak 37-46 urte bitartean daude batez beste (haurrak izateko batez besteko adina 32 urtean egon zen 2002-2011 artean), eta aitona-amonak, 65-74 urte bitartean (1970-1979 artean, batez beste 28 urterekin izan zituzten haurrak). Hona, beraz, hurbilketa bat eginda, nola aldatu den lehen hizkuntza hiru belaunalditan:

16. taula: Lehen hizkuntza hiru belaunalditan

	Seme-alabak (5-14 urte)	Gurasoak (34-46 urte)	Aitona-amonak (65-74 urte)
Euskara	21,1	15,8	19,4
Euskara eta erdara	13,8	4,5	2,5
Erdara	65,1	79,7	78,1
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat. Siadecok landua

Bi hizkuntzak transmititzearen oinarrian badaude gurasoen ezagutzarekin lotutako faktoreak. Batetik, bikote mistoetan: gurasoetako batek ez duenez gaitasunik, erabat murrizten da euskara soilik transmititzeko aukera. Bestetik, lehen hizkuntza euskara ez dutenen artean: euskaraz aritzeko erraztasunik ez dute horietako askok, eta, areago, gaitasun aldetik mugak dituzte. Kontuan hartzekoa da muga horiek zer dakarten kasu batzuetan: umetan, bai, euskaraz egitea, baina haurrak koskortu ahala, gaztelaniara jotzea, gurasoak ez direlako gai elkarriketei euskaraz eusteko.

«Lehen alaba jaio zenean, erabaki genuen euskaraz hezi behar zuela. Momentu batean, hala ere, nire euskara maila baxuegia zen behar zituen azalpenak emateko. Segun eta zein gai azaltzeko, gaztelaniara jotzen nuen. Eta, horrela, asko galdu dut nik, eta nire seme-alabek ere bai» (Agurain B+)

«Hurrei euskaraz egiteko hautua egin nuen txikiak zirenetik. Nirekin [ama] denbora gehiago pasatzen zutenaz, euskara izan zuten ama hizkuntza, eta euskaraz hitz egiten zuten. Hala ere, bikotekideak ez daki euskaraz, eta egun, ahal dugun moduan aritzen gara etxean» (Erandio A+)

«Etxean euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten diegu hurrei. Euskaraz hitz egitea erabaki kontzientea izan da. Bizi garen eremuan, egunerokoan ez da erraza euskara erabiltzea, bertako jendeak ez baitaki euskaraz» (Gaubea B)

Nolanahi ere, sumatu da beste irizpide bat guraso batzuen artean: propio egindako hautua izatea bi hizkuntzak transmititzeko. Izatez, beste ikerketa batzuetan ere ikusi dute hori euskaldun berrien artean (Ortega et al, 2016): euskara eta gaztelania transmititzearen aldeko mezua, bakarra baino hobe delakoan bi jasotzea.

«Nahi genuen gure seme-alabek euskaraz zein gaztelaniaz ondo ikastea, eta, beraz, etxean bi hizkuntzak transmititzeko erabakia hartu genuen» (Beasain B)

«Semearekin euskaraz hitz egiten genuen, baina oporrak kanpoan igaro izan ditugu beti, eta semeak arazoak zituen gazteleraz komunikatzeko. Ondorioz, semeari erakusteko asmoz, batzuetan gazteleraz hitz egitea erabaki genuen, eta ohitura hori hartu genuen» (Elgoibar B+)

Seme-alabek etxean bi hizkuntza jasotzeak, bestalde, lotura estua dauka etxeko harremanetako erabilerarekin. Joera hau oso zabalduta dago gurasoen artean: haurrak izatean euskara irakatsi etxean —areago, bikotean horri buruzko gogoeta eginda—, baina gurasoen artean erdaraz aritu. Horretan zerikusia dute orain arte aipatutako faktoreek —ezagutzak eta erraztasunak—, baina badago haiekin lotutako beste aldagai bat ere: hizkuntza ohiturak. Izatez, etxeko testuinguru horretan nabarmentzen dira gehiago tipologia batzuetako eta besteetako gurasoen arteko diferentziak: lehen hizkuntza euskara duten guraso bikote gehienek adierazi dute euskaraz aritzen direla etxean, ez seme-alabekin soilik; gainerako tipologiaetan, berriz, hedatuta dago hizkuntza aldatzea, eta, areago, baita umeekin ere erdaraz jardutea.

«Dena euskaraz egiten dugu, eta seme-alabek ere hala egiten dute, giro oso euskalduna daukagulako» (Zamudio D)

«Gure kasuan euskaraz egiten dugu bikotean ere, eta seme-alabek badakite euskara dela etxean hitz egiten den hizkuntza, heldu zein gazte izan» (Pasaia D)

«Bikotekideak eta biok erdaraz ezagutu genuen elkar, eta horrela egiten jarraitzen dugu. Zalantzarik gabe, gure semeak hori barneratu du. Nik hasieratik euskaraz ez jakitea eta horrek ekarritako hizkuntza ohiturak dira etxean euskaraz gehiago ez egiteko arrazoiak» (Oion B+)

«Bikotekidea euskaldun berria da, eta harekin gazteleraz hitz egiteko ohitura dut. Etxean denok gazteleraz egiten amaitzen dugu» (Elgoibar B+)

«Nik eta nire bikotekideak berandu ikasi dugu euskara, eta, egia esan, batez ere titulua edukitzeko ikasi dugu. Bion artean gaztelaniaz aritzeko ohitura daukagu» (Lapuebla de Labarca B)

«Euskaldun berriak garenez, betidanik eduki dugu ohitura gure artean erdaraz hitz egiteko, batez ere umea jaio baino lehenagoko garaietan. Ohitura nahiko sendoa da, eta hori da arrazoi nagusia etxean euskaraz gehiago ez egiteko» (Subijana B)

«Asko kostatzen zaigu euskaraz egitea. Hitz asko galduta ditugu. Haurra hazi ahala, pixkanaka utzi diogu euskaraz uneoro hitz egiteari» (Eibar B)

«Euskaldun berria izanik, haserretzen naizenean gazteleraz egiteko joera dut, eta serio hitz egin behar dudanean ere gazteleraz egiten dut. Bat-batekotasun uneetan zailtasunak izaten ditut euskaraz egiteko» (Zeanuri B)

«Saiatzen gara umeen aurrean euskaraz egiten. Batzuetan haiei eskatzen diegu euskaraz egiteko, eta gero guk gazteleraz jarduten dugu gure artean. Haurrak ohartu egiten dira, noski» (Agurain A+)

«Denborarekin, euskarak tokia galdu du etxean: hazi ahala, hurrek joera hartu dute gazteleraz hitz egiteko. Eta azkenean, hurrei gazteleraz erantzuteko ohitura hartu dut» (Erandio A+)

«Gero eta gehiago egiten dugu gazteleraz seme zaharrenarekin, eta hori arriskutsua izan daiteke alabari begira, horretara ohitu daiteke eta» (Bermeo B)

Etxeko hizkuntzan eta bikoteko harreman hizkuntzan familia batzuetatik besteetara zer alde dagoen aztertzeke, Inkesta Soziolinguistikoko datuak baliatuta osatu dira bi taula. Aldeak nabarmenak dira. Bikoteko harreman hizkuntzari dagokionez, adibidez, aldea dago bikoteko ezagutzaren arabera: mistoetan eta erdaldunetan, erdaraz aritzea da joera —kontuan izan bikoteko kide batek gutxienez ez dakiela euskaraz ondo—. Bikoteko bi kideak euskaldunak diren kasuetan, alde handia dago lehen hizkuntzaren arabera: D tipologia, bostetik lau aritzen dira gehienetan euskaraz; B+ tipologia, erdiak ere ez; eta B tipologia, bostetik bat eskas.

17. taula: Bikoteko harreman hizkuntza, tipologiaren arabera (%)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Beti euskaraz	62,8	29,4	9,9				11,8
Euskaraz erdaraz baino gehiago	18,0	14,1	7,8				4,0
Euskaraz erdaraz beste	6,3	13,3	13,7		1,2		2,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	7,8	22,1	31,2	11,6	3,7	1,6	6,7
Beti erdaraz	1,5	15,0	34,0	80,2	93,3	93,7	70,3
Ez dagokio (Ez dauka)	3,6	6,1	3,4	8,2	1,8	4,7	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Etxeko hizkuntzari dagokionez, portzentajeak aldatu egiten dira; aintzat hartu behar da erabilera horretan sartuta daudela seme-alabak ere, edo etxean bizi diren beste pertsona batzuk —aitona-amonak, adibidez—. Hala ere, nabari da lotura badagoela bikoteko hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren artean.

18. taula: Etxeko hizkuntza, tipologiaren arabera (%)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Beti euskaraz	70,1	36,6	12,7	4,4			14,0
Euskaraz erdaraz baino gehiago	17,9	24,4	21,6	1,1			5,4
Euskaraz erdaraz beste	8,7	24,9	33,5	23,6	5,6		8,1
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	1,8	11,7	26,4	32,8	33,3	8,3	15,1
Beti erdaraz	0,2	1,7	4,7	37,5	61,1	91,3	56,8
Ez dagokio (bakarrik bizi da)	1,3	0,7	1,1	0,6		0,4	0,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Hizkuntza ohiturak

Bikotean euskaraz aritu ohi ez diren guraso ugari hizkuntza ohiturak eman dituzte argudio gisara: bikotean hasi zirenean gaztelania zutela hizkuntza, eta oso nekeza zaiela aldatzea. Haien solasetatik ondoriozta daiteke elkar elikatzen duten aldagaien zirkulu batean egon direla urteetan: gaitasun mugatua, erdaraz aritzeko joera eta erabilera txikia. Bikotea sortzeko garaia da, izatez, hizkuntza ohiturak finkatzeko momentu giltzarrietako bat. Bada aldaketarako beste garai apropos bat: umeak izateko momentua. Gogoeta eragiten du gurasoen artean —bistan geratu da ikerketa honetan—, eta, umearekiko harremanak ez ezik, bikotekoak ere aztertzen dituzte guraso batzuek. Gutxiengo dira, nolana ere.

«Gure artean gazteleraz hitz egiten genuen hasieran, baina haurrak izan aurretik aldatu genuen. Haurrei euskaraz egitea erabaki kontziente bat izan zen» (Santurtzi B)

«Seme-alabak eduki baino lehen, erdara gehiago erabiltzen genuen gure artean, eta umeak edukitzearekin batera eman genion buelta horri. Guk haiei baino gehiago eragin digute haiek guri» (Urretxu B)

«Bikotekideak erraztasun handiagoa dauka gazteleraz. Batzuetan erdarara pasatzen da, eta harekin, ni. Baina oso gutxitan gertatzen da orain; lehen gehiagotan gertatzen zen» (Donostia A+)

Izatez, gehiago dira hizkuntza ohiturak aldatzea lortu ez duten aita-amak: umei euskaraz egin bai, edo, areago, umei euskaraz eginarazi bai, baina beren artean euskaraz egiten ez dutenak. Adierazgarria da lekukotasun batean baino gehiagotan zer adierazi duten umeen jokabideari buruz: kargu hartzen dietela seme-alabek.

«Bikotekidearekin gazteleraz ari naizenean, batzuetan haurrek errieta egiten digute. Batzuetan 'euskararen poliziak' dira». (Bermeo A+)

«Batzuetan azkartasunagatik erdaraz egiten badut denek ulertzeko, seme-alabek errieta egiten didate, eta euskaraz hitz egiteko esan» (Azpeitia A+)

«Umeen aurrean gazteleraz egiten dugunean, errieta egiten digute» (Zeanuri B)

«Umeak esan izan digu guk ez dugula euskaraz egiten gure artean eta berari exijitzen diogula. Gustatuko litzaiguke bikote harremanean ere euskaraz egitea, baina asko kostatzen zaigu betidanik izan dugun ohitura aldatzea» (Subijana B)

Gurasoen eragina

Umearen beraren hizkuntza ohituretan gurasoek nolako eragina duten, haurraren hizkuntza ibilbidea noraino markatzen duen etxeak, guraso gehienek adierazi dute eragin handia daukatela haien jokabideek. Euskaraz aritzen direnek eta ez direnek, tipologia batzuetako eta besteetako aita-ama gehienek uste dute eragina badagoela, eta, areago, horietako batzuek ohartarazi dute ez dela iritzia soilik, sumatzen ari direla seme-alabak ari direla gurasoen ohiturak berenganatzen.

«Gu seme-alaben eredu gara, eta garrantzitsua izango da gurasoak euskaraz entzutea, gero haiek gu kopiatuko gaituzte eta» (Azpeitia D)

«Badauka eragina. Giro osotara euskalduna daukagu etxean, eta haurrak oso ohitura daude dena euskaraz komunikatzera» (Amezketta D)

«Erabateko eragina du. Eskolan ari dira euskara ikasten, baina gurasoen hizkuntza gaztelania bada, esan daiteke freno bat dela hori» (Agurain X)

«Gurasoak bizi diren hizkuntzan biziko dira seme-alabak. Seme-euskaldunak izateko, oinarritzkoa da etxean gurasoek euren artean euskaraz egitea» (Bilbo B+)

«Seme-alabek entzuten bagaituzte gaztelaniaz hitz egiten bikotean, ohitura har dezakete beren artean gaztelera egiteko» (Hernani A+) 179

«Bai, eragina du. Etxean gehien entzuten duten hizkuntza gaztelera da, eta pentsatzen dut gure jarduteko modu hori nahiko sartua edukiko dutela» (Beasain A)

«Dударik gabe, badu eragina. Gu gaztelera entzuten gaituzte, eta hizkuntza hori helduen hizkuntza gisa identifikatuko dute, eta euskara, umeen hizkuntza gisa» (Elgoibar A)

«Bikotean gaztelaniaz aritzen gara, eta imitatu egiten gaituzte. Euskaraz ari direla, gaztelaniara pasatzen dira. Eta gure errua da hori» (Gasteiz A+)

«Imitatu egiten gaituzte. Gure bikote harremanean gaztelera aritzeak ez du batere onik ekartzen seme-alabentzat. Baina horrela egiten dugu, eta ez dugu gure komunikazioa zalantzan jarriko» (Arrigorriaga B)

Badira, hala ere, uste dutenak gurasoen jokabideak ez daukala eraginik seme-alabengan. Gutxiengoa dira. Argudiatu dute beste eremu batzuek eragin handiagoa dutela —eskola eta herria aipatu dituzte, besteak beste— eta umeek badutela gurasoez bestelako jokabidea: aita-amak erdaraz aritu arren, euskaraz mintzo direla umeak.

«Umeek beren artean gaztelaniaz egiten dutenean, ez dut uste gurasoen eraginagatik denik. Guraso euskaldunak dituzten ume askok gaztelaniaz egiten baitute beren artean. Beraz, ez dut uste bikoteko hizkuntzak eragina duenik seme-alabengan» (Beasain D)

«Momentuz ez dut uste eragina duenik; etorkizunera begira, ez dakit. Hala ere, seme-alabek bikotekidea eta biok gaztelera entzuten gaituztenean, euskaraz egiteko esaten digute» (Lekeitio B+)

«Uste dut ezetz, ez duela eraginik. Guk erdaraz hitz egiteak ez du kalterik ekartzen: gehiago lantzen dute hizkuntza hori» (Pasaia B)

«Gurasook elkarren artean gaztelera egin arren, etxean alabek euren artean beti euskaraz egiten dute, eta gurasoei ere hala hitz egiten dute» (Beasain A+)

«Ez du eraginik. Haien zat normala da guk gaztelera hitz egitea. Ez dut uste asko eragiten duenik euskarari dagokionez» (Zeanuri A+)

«Ez dut uste eraginik duenik. Nahiz eta nik eta nire bikotekideak gaztelera egiten dugun, haurrek euskara hutsean egiten dute» (Oñati A)

Gurasoen lekukotasunetan sumatutako joerak nabarmendu dituzte herriz herriko adituek ere. Batetik, hizkuntza ohiturak aldatzeari dagokionez, sumatu dute aita-amentzat momentu giltzarria izan ohi dela haurrak edukitzea, bikoteko hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsa egiten dutela sendi batzuek. Kontua da nolako mugak dituen aldaketa horrek. Batetik, aldaketa umeekiko harremanera mugatzen ote den, edo bikotean bertan ere astintzen ote dituzten hizkuntza ohiturak; bestetik, aldaketa horiek iraungitze data bat ote duten, umeak koskortu ahala lehengora bueltatzen ote diren.

Umeak jaio berritan, bai, aldaketa sumatu dute adituek. Baina, urteak joan ahala, ahultzen joaten dela ohartarazi dute gehienek.

«Guraso izan arte gaztelaniaz aritu diren euskaldun oso askok euskaraz egiten dute guraso izandakoan» (Santurtzi)

«Umeak normalizatzaileak dira. Faktore bat dira bikote batean edo bikoteko kide batean euskara berreskuratzeko edo gehiago erabiltzeko. Edo gurasoen arteko harremanetan euskara presenteago egoteko» (Agurain)

«Umeak izateak izugarritzko eragina du hizkuntza ohituretan. Gurasoek nahi dute umeek euskara ikastea eta erabiltzea, eta horretan eurek ahalegina egiten dute. Umeak txikiak direnean oso nabarmen ikusten dut. Baina horrek oso epe mugatua du: umeak euren kabuz ibiltzen hasten direnean (10 urtetik aurrera) gurasoak asko erlaxatzen dira. Beharbada, pentsatzen dutelako umeak euskara dakiela, ikasi duela» (Ermua)

«Haurrak txikiak direnean eragiten dute gurasoen hizkuntza ohituretan Hizkuntza ohitura horiek ez dira finkoak, eta haurrak adinean gora doazen heinean, euren eta gurasoen arteko harremana gaztelaniara pasatzen da. Zenbat eta jario gutxiago euskaraz, are eta errazago egiten dute gurasoek aldaketa hori» (Elgoibar)

«Esango nuke bikotean gaztelaniaz hitz egiteko joera duten hainbat euskaraz hasten direla seme-alabak izatean. Batzuek aldatuko dute ohitura, baina beste askok, seme-alabekin euskaraz egin arren, beren artean gaztelaniaz jarraitzen dute. Esango nuke seme-alabekin hartutako hizkuntza ohitura gehienak denbora mugaturako izaten direla» (Tolosa)

«Arazoa, askotan, umeak hazten doazenean dator, hizkuntza ohiturak aldatzen hasten direnean. Ohikoa da 6-8-10 urtera bitartean euskaraz aritu diren familiak apurka-apurka gaztelera erabiltzen hastea. Batzuetan, gurasoek beraien artean erdaraz aritzen direlako, eta umeek imitatu nahi dituztelako; besteetan, lagunekin dutelako ohitura hori; eta, azkenik, kasu batzuetan gurasoen euskara mailak ez duelako ematen oinarritzko elkarriketetatik (ume txikiekin izan ditzakegunak) eta eguneroko eremuetatik haragoko euskara mailarik» (Elorrio)

«Umeak diren artean gurasoek euskaraz egiten diete baina, nagusitu ahala gaztelaniara jotzen du guraso askok. Beraz, ohitura finkoak beharrean, denbora mugaturako izaten dira» (Oñati)

«Haurrak koskortzen direnean, zenbait gurasotan sumatzen da aldaketa: ohitura hori dutenek errazago jotzen dute espainolez hitz egitera seme-alabei ere» (Amezketza)

«Umea handitu ahala gaztelania berriro agertu eta nagusitu egiten da. Haurra txikia den bitartean, badirudi burbuila moduko zerbait sortzen dela, eta bizimodua horren inguruan antolatzen dela. Handitu ahala, burbuila hori ahuldu egiten da, eta 'kanpoko' ingurune linguistikoa nagusitu egiten da berriro ere» (Gasteiz)

«Bikoteko hizkuntza euskara izanda haurrak ere euskaraz mintzatzen dira, baina gure eskualdean gutxi dira... Dena den, gurasoetako batek, gutxi bada ere, euskara zerbait badaki eta bikotean euskara erabiltzera animatzen bada, hurrek euskara gehiago erabiltzen dute. Era berean, kontrako norabideak ere euskara mintzatzeri darama: haurrak izateak eta euskal ereduaren eskolatuta izateak gurasoak animatu ditu euskara ikastera edota euskara, ahal duten neurrian, erabiltzera» (Añana)

Beste aditu batzuek ohartarazi dutenez, gainera, denbora soilik ez, aldaketaren neurria ere kontuan hartzekoa da: ohitura aldaketa ahula sumatzen dute herri batzuetan, bikoteko joerak aldatzera iristen ez dena.

«Gero eta guraso gehiago entzuten dira kalean umeek euskaraz egiten. Kontua da hizkuntzaren erabilera oso une puntualetara mugatzen dela gehienetan. Alternantzia bikote askorengan nabari da: seme-alabekin hartzen diren ohiturak gehienetan mugatuak dira, eta ez dira bizitzako momentu guztietan eta etengabe gertatzen» (Etxebarri)

«Hurrek gurean oraindik ez dituzte aldatzen bikote ohiturak. Gurasoek haurrari euskaraz egiten diote, baina euren artean erdaraz aritzen dira. Haurrari euskaraz aritzeko ohitura esango genuke 7-8 urterekin aldatzen hasten dela, eta umeak ere erdara jotzen duela gurasoen hizkuntza ohitura zein den ikusita» (Getxo)

«Guraso gazteek euskaraz egiten diete seme-alabei, batez ere binakako harremanetan —ama edo aita, umeekin dagoenean—, baina oso gutxi dira gurasoak elkarrekin euskaraz egiten dutenak, baita seme-alaben aurrean ere» (Zamudio)

«Badaude bikotean erdara erabili eta seme-alabekin euskaraz egiten dutenak. Horregatik, seme-alabek ez dute euskara erabiltzen» (Arrigorriaga)


«Inguru erdaldunetan, askotan seme-alabak izaten dira familiara euskara ekartzen edota hurbiltzen dutenak. Ezagutu izan ditut bikote hizkuntza aldatu dutenak seme-alabak jaio direnean. Baina hizkuntza alternantzia handia dago gehienetan» (Erandio)

«Egia da haurren aitzakian gurasoen hizkuntza ohiturak aldatu izan ohi direla, baina zailago ikusten dut denbora luzez mantentzea. Asko asko, haurrak koskortzen direnean, gaztelaniara pasatu ohi dira. Bikotean gaztelaniaz egin eta haurrei euskaraz egiten dieten kasuetan, euskara galtzaile ateratzen da. Haurrak, gurasoen jarrera ikusirik, gaztelaniaz hasten dira haiekin ere, eta, egoera linguistikoa arrotza ez zaienez, familiarri erraz egiten zaio erdarara pasatzea» (Beasain)

«Guraso askori hori gertatzen zaie gauza inportanteak esateko edo azalpen sakonagoak emateko baliabide gabe aurkitzen direlako euskaraz» (Bilbo)

Ettxeko erabileran desberdintasunak daude seme-alabei transmititu zaien hizkuntzaren edo hizkuntzen arabera. Interesgarria da aztertzea, adibidez, erabileran zer diferentzia dagoen erabat euskara transmititu duten etxeetan eta euskara eta erdara transmititu dituztenetan. Inkesta Soziolinguistikoko datuak hartu dira horretarako, 3-15 urteko seme-alabak dituzten gurasoen datuak. Euskara soilik transmititu den etxeetan, salbuespena da erdararen erabilera nagusi izatea (%2). Biak transmititu direnean, berriz, erdara da nagusi hamar etxetik zazpitan. Horra hor, beraz, aldea: bi hizkuntzak jaso dituztenek euskara ere badute lehen hizkuntza, baina ez etxeko ohiko hizkuntza.


30. grafikoa. Etxeko erabilera, seme-alaben lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Etxeko elebitasun hori, bi hizkuntzak jasotzea, aurrerapentzat jo daiteke, bereziki erdara hutsezko testuinguruetan. Kontuan hartzekoa da, adibidez, familia mistoetako bilakaera, euskara lekua egiten ari delako transmisioan. Ordea, ezin daitezke elkarren parean jarri erabat euskarazko transmisioa eta ele bietakoa: euskara gaitasunean eta erabileran diferentzia handia dago. Garbi adierazten dute hori Inkesta Soziolinguistikoa datuek.

31. grafikoa. Lehen hizkuntzaren arabera aldea (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Transmisioan nolako aldea dagoen, aztertu da familia tipologia bakoitzeko seme-alabek nolako euskara gaitasuna duten. Kontuan izatekoa da egungo euskara gaitasunaz galdetu dela, eta seme-alaba horietako gehienak euskaraz eskolatuta daudela. Horren ondorioa da X tipologiako gurasoak izanda ere euskara gaitasun ona izatea seme-alabek —gurasoek emandako datu aitortuak dira denak—. Eskolaren eragin konpentsatzailea bistakoa da, baina, hala ere, badira aldeak: D, B+ eta A+ tipologietan ia guztiek dakite ongi edo nahiko ongi euskaraz; hortik behera, areagotzen hasten da maila kaskarra dutenen ehunekoa, nahiz eta gutxiengoa izan kasu guztietan.

19. taula: Lehen seme-alabaren euskara gaitasuna, familia tipologiaren arabera (%)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Ongi euskaraz	99,5	96,9	87,8	94,0	79,1	59,7	76,4
Nahiko ongi euskaraz	0,5	2,4	10,7	6,0	15,4	23,8	14,9
Zertxobait		0,7	1,5		4,7	9,9	5,5
Hitz batzuk					0,4	3,9	1,9
Ezer ez					0,3	2,7	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Seme-alaben gaitasunak gurasoen ohiturekin nolako lotura duten aztertu nahirik, gaitasunari buruzko datuak hiru aldagairekin gurutzatu dira: etxeko hizkuntza, gurasoen hizkuntza eta gurasoek lagunekin erabiltzen duten hizkuntza. Gehienek adierazi dute haurrek ondo egiten dutela euskaraz, baina ongi egiten ez dutenen pisua handiagoa da etxean erdaraz aritzen direnen artean edo gurasoak erdaraz aritu ohi direnean. Areago, etxetik kanpokoari begiratuta, aldea ageri da gurasoek lagunartean erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez ere.

20. taula: 1.seme-alabaren gaitasuna, etxeko hizkuntzaren, gurasoen harreman-hizkuntzaren eta gurasoek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzaren arabera (%)


	Etxeko hizkuntza					Gurasoen harreman hizkuntza					Gurasoen hizkuntza lagunekin					
	Beti euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Beti erdaraz	Beti euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Beti erdaraz	Beti euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Beti erdaraz	Beti euskaraz
Ongi	100,0	97,2	94,0	85,0	63,9	99,4	100,0	96,7	93,2	69,3	99,6	96,1	96,6	82,7	67,3	100,0
Nahiko ongi		2,8	6,0	14,1	21,2	0,6		3,3	6,0	19,3	0,4	3,1	3,0	14,8	19,7	
Zertxobait				0,8	9,0				0,8	7,4		0,9	0,4	1,9	7,8	
Hitz batzuk					3,3					2,5				0,7	2,9	
Ezer ez				0,1	2,6					1,5					2,3	
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

4. Ingurua

Familiako transmisioak etxea du oinarri, baina gurasoetatik haragoko faktoreek ere badute eragina. Inguruaren arabera, izan ere, aldatu egiten da euskararen transmisioa. Inkesta Soziolinguistikoko datuak aztertu dira gune soziolinguistikoak aintzat hartuta, eta aldeak agerian geratu dira. Adibidez, euskara etxean jaso dutenen ehunekoa erabat desberdina da gune batetik bestera.


32. grafikoa. Lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Areago, ordea: dentsitatearen arabera ez da aldatzen euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea soilik. Zenbat eta gune euskaldunagoa, handiagoa da euskara lehen hizkuntza dutenen gaitasuna, erraztasun erlatiboa eta erabilera. Inguruak bai baitauka eragina horietan ere: erabilera aukeretan eta arau sozialetan, adibidez.


33. grafikoa. Lehen hizkuntza euskara dutenen ezaugarriak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Lehen hizkuntza euskara dutenei bakarrik ez, erdara dutenei ere eragiten die inguruak. Zenbat eta gune euskaldunagoa, gehiagok lortzen dute euskaraz aritzeko gaitasuna eta erraztasuna, eta erabilera ere handiagoa dute. Nolanahi ere, nabarmena alde handia dagoela lehen hizkuntza euskara, erdara edo biak izan: lehen hizkuntza euskara dutenek daukate gaitasunik handiena, erraztasunik handiena, eta erabilerarik handiena.


34. grafikoa. Lehen hizkuntza erdara dutenen ezaugarriak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Kontua da bigarren gune soziolinguistikoan bizi direla herritar gehienak gaur-gaurkoz: %72. Eremu horretan gutxiengoa dira euskaldunak: %20-50. Are, euskaldun gehienak ere bigarren gune soziolinguistikoan bizi dira: %56. Euskaldun dentsitate handiagoko lekuetan nabarmen herritar gutxiago bizi da: %28. Bilakaera ikusita, suma daiteke euskara transmititzeko abagune egokixeagoa zabaltzen ari dela: herritar gehiago bizi dira bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan, eta lehen gune soziolinguistikoaren pisua erabat jaitsi da 30 urtean. Bilakaera hori zuzenean lotua dago euskararen ezagutza hedatzearekin. Baina kontuan izateko beste aldaketa bat ere badago: laugarren gune soziolinguistikoak ere galdu du pisua. Eta eremu hori da transmisioa ahalbidetzeko aproposena.

35. grafikoa. Euskararen ezagutza gune soziolinguistikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Gunea	Herritarren %	Euskaldunen %	Ia euskaldunen %	Erdaldunen %
2016				
Lehena	0,4	0,1	0,3	0,6
Bigarrena	72,1	56,2	79,6	85,6
Hirugarrena	24,2	37,0	18,8	13,0
Laugarrena	3,3	6,7	1,2	0,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
1986				
Lehena	56,2	17,0	59,6	71,8
Bigarrena	27,7	36,3	29,3	23,6
Hirugarrena	11,9	31,6	9,9	4,2
Laugarrena	4,2	15,1	1,2	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat. Siadecok landua

Bizitokiko egoera soziolinguistikoarekin soilik ez, hurbilagoko inguruarekin ere badute lotura gurasoen ezaugarri soziolinguistikoek: adibidez, Inkesta Soziolinguistikoko datuetan gurutzatzen bada guraso tipologia bakoitzean nolako lagunartea duten, lotura adierazgarriak ageri dira. D tipologiaiko gurasoek lagunarte euskalduna dute: hamarretik bederatzitan, laguneren erdiak baino gehiago dituzte euskaldunak. Ordea, tipologia zenbat eta euskara gutxiagokoa, lagunarteak ere norabide hori du.

21. taula: Lagunetatik zenbatek dakiten euskaraz, familia tipologiaren arabera (%)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Denek edo ia denek	61,1	42,8	22,6	38,4	12,3	7,0	22,6
Erdiek baino gehiagok	28,5	20,8	28,0	18,7	15,6	11,3	16,8
Erdiek	6,4	21,9	29,9	19,5	30,6	20,3	20,3
Erdiek baino gutxiagok	3,3	11,0	14,0	12,7	33,2	40,6	27,5
Inork ez edo ia inork ez	0,7	3,5	5,5	10,6	8,5	20,8	12,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua.

Lagunarteko erabilera erabat baldintzatzen du harreman sareak: euskaraz ez dakiten lagunartean nekez arituko dira euskaraz. Badaude diferentzia batzuk, hala ere, ezagutzaren taulatik erabileraren taulara. A+ eta A tipologietan, familiako gurasoetako batek ez daki euskaraz, eta horrek eragina du erabileran. B eta B+ tipologietan ere alde adierazgarriak daude lagunarteko ezagutzatik erabilerara: B tipologian, adibidez, gurasoen erdiak baino gehiago aritu ohi dira erdaraz, nahiz eta bost lagunartetik bakarrean ez jakin kide gehienek euskaraz.

22. taula: Lagunekiko harreman hizkuntza, familia tipologiaren arabera (%)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Beti euskaraz	46,5	14,7	6,1	10,4	,8		9,6
Euskaraz erdaraz baino gehiago	27,7	16,8	5,0	9,4	3,0		7,0
Euskaraz erdaraz beste	14,3	30,6	33,6	5,4	4,0	1,2	7,5
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	9,6	30,1	19,5	16,6	21,4	7,1	12,9
Beti erdaraz	1,9	7,7	35,8	58,2	70,9	91,7	63,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Inguruaren eragina handia dela ondoriozta daiteke gurasoekin izandako elkarriketetatik. Egoerak euskara transmititzera bultzatzen dituela azaldu dute guraso batzuek, inguru euskaldunetan bizi direnek: kalean, egunerokoan leku handia daukala euskarak, eta horrek berak indartu duela euskara transmititzeko premia. Areago, etxeko transmisioaren osagarri ere badela nabarmendu dute.

«Naturala izan da guztiz. Bizi garen eremuak euskaraz bizitzera behartzen gaitu nolabait. Asteasu eta inguruko herriak oso euskaldunak dira, eta ez luke zentzurik edukiko umeak euskara ez den beste hizkuntza batean hezteak» (Asteasu B+)

«Umeak eduki aurretik argi genuen euskaraz heziko genituela. Eta haurdunaldi prozesuan ere asko hitz egin genuen horretaz. Erabaki erabat kontzientea izan zen. Egia esateko, ez dago beste aukerarik Oñatin biziz gero» (Oñati A)

«Inguru euskaldun batean bizi gara, eta garrantzitsu ikusten genuen haurrak hasieratik testuinguru horretan linguistikoki integratuta egotea» (Beasain A)

«Mesedegarria da herriko egoera: Azpeitian edonon hitz egin daiteke euskaraz» (Azpeitia A+)

«Berez atera zitzaigun euskara transmititzea. Biak euskaldunak gara, eta Elorri bizi izanda, natural egin genuen» (Elorrio B+)

«Herri euskaldun batean bizi garenez, komenigarria eta lagungarria iruditzen zitzaigun haurrei hizkuntza gisa euskara transmititzea» (Aulesti B+)

«Zeanurin euskaraz ez badakizu, gaizki zabiltza. Herri euskalduna da, eta euskara egoki transmititzeko inguru mesedegarria» (Zeanuri B+)

«Oso inguru mesedegarria da. Amezketa herri oso euskalduna da, eta erraztasunak ematen ditu bizitza euskaraz egiteko eta, beraz, seme-alabak hezteko» (Amezketa D)

Inguru erdaldunetan bizi diren guraso batzuek, ordea, kontrakoaz ohartarazi dute: herri inguru erdalduna izatea oztopo dela transmisioan, eta euskara transmititzeak ekimen handiagoa eskatzen duela.

«Euskaraz egitea erabaki genuen, eta Gasteizen bizi izanda, erabaki kontzientea izan zen» (Gasteiz B+)

«Ez da batere mesedegarria egoera, inondik inora. Herri erdalduna da oso» (Sestao A)

«Gure herriko egoera ez da batere mesedegarria seme-alabei euskara egoki transmititzeko. Oso herri erdalduna da» (Oion A)

«Egoera oztopatzailea da. Oro har, harreman guztiak gaztelaraz egiten dira kalean, tabernetan. Umeen artean askotan erdaraz aritzen dira. Guraso askorekin ere erdaraz. Ez da egokia transmisiorako» (Amurrio B)

«Nahiko zaila da egoera: inguru erdalduna alde guztietan. Ez da batere erraza seme-alabak euskaraz hezteko, ohartzeko gustua hartzen baitiote gaztelaniari» (Gasteiz X)

«Nahiko argi daukat egoera oztopatzailea dela. Bilbon proportzioan euskaldun asko badago ere, orokorrean oso zaila da euskarazko bizitza egitea, eta horrek eragina du euskara ikasten ari diren pertsonengan» (Bilbo D)

«Oso oztopatzailea da Gasteizko egoera. Etxean euskaraz egiten dugu, baina umeak sozializatzeko hizkuntza gaztelania da, lagunekin gaztelaniaz jolastean dute gehienetan. Beren kabuz ikasi dute gaztelania» (Gasteiz D)

Herrietako solaskideek azaldu dute inguruak baduela eragina transmisioari dagokionez: erraztaile edo oztopatzaile dela.

«Euskaraz ikasi izan duten guraso asko eta asko ikusten ditut beren seme-alabekin gazteleraz hitz egiten, batez ere euskaldunak ez diren herrietan. Herri euskaldunetan kontrako kasua ere ikusten da: euskaraz trebeegiak ez diren gurasoak euskaraz saiatzen, inguruan bultzatuta» (Zeanuri)

«Ezin uka daiteke biografia linguistikoak eragina duenik, baita Azpeitian ere. Oro har, Azpeitiko gurasoek, edozein delarik beren biografia linguistikoa, ahalegin betea egiten dute beren seme-alabek euskara ikas dezaten. Horretan eragin handia du euskarak Azpeitian duen bizi-indar etnolinguistikoak, gaur-gaurkoz eragozpen handia baita euskararik jakin gabe Azpeitian bizitzea. Azpeitiko haurrek etxetik kanpo dituzten ohitura linguistikoak ez daude etxe barruko ohituren baldintzapean, baizik eta gainontzeko adinkideek edo eskolakideek hizkuntzari dagokionez jarraitzen duten arau sozialean» (Azpeitia)

«Ingurune linguistikoak izugarrizko eragina du. Gure ingurunea erdalduna da, eta, beraz, euskaldun batek erdaraz egin badigu, uste du gu erdarara pasatu behar dugula. Hori da gure gizartearen legea» (Agurain)

«Inguru euskalduna izatea izugarri garrantzitsua da: gure herrian badira bikote mistoak (guraso bat euskalduna eta beste erdalduna), baina herrian bizi badituzte aiton-amonak, osaba-izebak... bataila irabazia dago» (Amezketza)

5. Familia

Inguruak transmisioan duen eragina aztertzean, ezin da ahaztu familia ingurua ere: gurasoetatik seme-alabetarakoa izan arren transmisio molderik ohikoena, kontuan hartzekoa da sendiko beste pertsona batzuen rola ere, batez ere aitona-amonena. Kontuan izatekoa da euskararen ezagutzan saltoa dagoela gurasoetatik aitona-amonetara: adinean gora eginda, gutxiagok dakite euskaraz.

Aldea zenbatekoa den estimatzeko, ama izateko adinari erreparatu zaio. INE Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, 2018an EAEn batez beste 33 urtekoa da ama izatekoa adina; horri jarraituz, batez beste gurasoek 33-48 urte dituzte seme-alabek 15 urte egin arte. Ama horiek noiz jaio ziren, 33 urte atzera eginda, INEren arabera 1985ean batez beste 29 urterekin izan ziren ama. Horri jarraikiz, aitona-amonak 62-77 urte dituzte. Eustaten datuetan adin multzo horiek aztertzen badira, bistakoa da aldea, batik bat ezagutzan: guraso gehienek ulertu gutxienez egiten dute euskara, eta ia bostetik bi gai dira hitz egiteko; ordea, aitona-amonak gehienek, bostetik hiruk, ez dute ulertu ere egiten euskara, eta laurdenak eskas dira mintzatzeko gai.

Nolanahi ere, guraso tipologiaren arabera aldeak erabat nabarmen geratzen dira familiako esparrua zabaltzean. D tipologian, bi gurasoak euskaldunak direnean eta etxean jaso dutenean, oro har familia euskalduna izaten da, eta, hortaz, euskararen transmisioa eta erabilera sendotu egiten du sendiak. Hala ere, badira tipologia horretan ere familiako kide erdaldun batzuk, gutxiengoak; horien eragina mugatua dela adierazi dute aita-amek.

«Oso ondo eragiten du familiak. Familia erabat euskaldunak ditugu, eta haurrak euskaraz jarduten du aitona-amonekin eta lehengusuekin ere» (Azpeitia D)

«Familia giroan euskaraz egiten dugu, eta horrek eragin positiboa du transmisiorako zein erabilerarako» (Pasaia D)

«Familia euskalduna dugu, eta hori oso pozgarria da guretzat: umeei beren artean euskaraz jolasten dute, adibidez» (Donostia D)

«Denak euskaldunak dira, eta familiak positiboki eragiten du» (Aulesti D)

«Familian euskaldunak ditugu, eta onerako eragiten dute. Aitona-amonak gurekin bezalaxe egiten dute, euskaraz. Egia da bikotekidearen aldetik familiako zati bat, izeba-osaba batzuk, erdaldunak direla, edo erdararako joera dutela; baina ez da arazoa» (Azpeitia D)

«Guztiak dira euskaldunak, aitona bat izan ezik, eta nahiko giro euskalduna daukagu familian. Ezin gara kexatu» (Gasteiz D)

«Familian ez dugu oztoporik. Nire gurasoak euskara ikasten ari dira bilobekin duten komunikazioa hobetzeko, eta bikotekidearen aldetik familia euskalduna da» (Zeanuri D)

Tipologia horretatik aterata, berriz, aldatu egiten da familiako egoera: erdaldunak gero eta gehiago dira, eta familiako hizkuntzan eragina du horrek. Familia mistoei dagokienez, umeei erlazioan agerian geratzen dira bi alde horiek: familia adar batekin euskaraz aritzen dira, eta bestearekin, erdaraz. Kide gehienak erdaldunak direnean, berriz, bi jokabide nabari dira: jokabide elebiduna dute batzuek —umeei euskaraz, helduen artean erdaraz—,

eta beste batzuek, erabat erdarazkoa. Egoera horien aurrean, hala ere, jokabide desberdinak hartzen dituzte gurasoek. Aita-ama batzuek kezka kutsutan hitz egin dute, kontziente direlako familiako harreman horiek oztopatzaile direla umeen hizkuntza ibilbidean; areago, kezka hori oinarritzat hartuta, euskararen erabilera bermatzeko estrategia batzuk ere badituzte familia batzuek —adibidez, euskara gaitasuna daukaten senideekin gehiago erlazionatzea, edo, euskaraz badakitenez, umeen arteko harremanak bultzatzea—. Badira beste jite bateko jarrerak ere: familian gaztelaniaz aritzea onuragarritzat jotzen dutenak.

«Nire bikotekidearen familia nahiko euskalduna da, eta horrek asko laguntzen du umeek aitona-amonekin eta lehengusuekin ere euskara praktika dezaten. Nire aldeko familia erdalduna da, eta ezin dut berdina esan» (Oion B+)

«Nire amak euskaraz egiten du haurrekin —nirekin ere bai umetan—, baina niri eta neba-arrebei, gaztelera. Familia giroan oro har euskaraz hitz egiten dugu umeekin, baina helduekin gaztelera egiteko ohitura dugu, nahiz eta aldatzen ari den» (Santurtzi B+)

«Familiak ez du modu positiboan eragiten, argi daukagu. Denak erdaraz aritzen dira. Nire anaiak ere ikasi du euskaraz, eta haren seme-alabak izango dira gure haurrak euskaraz jolasteko izango duen aukera bakarra» (Lapuebla de Labarca B)

«Bi familiak dira erdaldunak. Hala ere, izeba batek ondo egiten du euskaraz, eta askotan joaten gara haren etxera, lehengusuen artean euskaraz hitz egin dezaten. Gainontzean, aitona-amonekin dena erdaraz egiten dugu, baita umeek ere» (Pasaia B)

«Ez jakin arren, ez dute arazorik jartzen familian. Gaztelera presente dago, baina ahalegina egiten dute gutxiago hitz egiteko eta euskarari tokia uzteko» (Sestao B)

«Aitona-amonak euskara ikasten hasi dira jubilatuen elkarte batean, umeekin euskarazko komunikazio minimo bat bermatzeko. Hala ere, ia osotara erdaldunak dira, eta horrek eragin negatiboa du euskararen transmisioan. Haiek ere nahiko arduratzen ditu gai horrek, baina nahiko zaharrak dira hutsetik euskara ikasten hasteko» (Arrigorriaga B)

«Orokorrean gaztelaniaz aritzen dira bi familietako gehienak, eta horrek eragin negatiboa du. Baina zaila da aldatzea. Etxean saiatzen gara, eta nahiko ondo atera zaigu» (Agurain A+)

«Familia ia osoa erdalduna da. Nire aitak lehen euskara erabili ohi zuen egunerokoan, baina erabiltzeari utzi zion orain hamarkada pare bat, eta gaztelaniaz egiten du orain. Pena da» (Aia A)

«Erdaldunak dira gure familiakoak, eta familian beti gaztelania entzun dute umeek. Egoera hori naturalizatu da. Baditugu osaba-izeba batzuk euskaraz dakitenak, eta azkenaldian gero eta denbora gehiago igarotzen dugu haiekin, erabaki hori hartu genuelako, lehengusuen artean euskaraz jolas zezaten» (Beasain A)

«Familia erdaldunak ditugu, eta giro erdalduna da nagusi bazkarietan, adibidez. Umeak ez dira kexatzen: gustatzen zaie gaztelera hitz egitea» (Pasaia A)

«Bikotekidearen familiaren zati bat, osaba-izeba batzuk, erdaldunak dira, edo joera hori dute. Erdara erabiltzen dute haurrekin. Baina ez da arazoa, praktikan jarri behar dute eta» (Azpeitia D)

Umeekin daukaten harremana kontuan hartuta, aitona-amonen errealitatea da bereziki aintzat hartzekoa. Eusko Jaurlaritzak 2017an kaleratutako *Ikuskerak* txostenaren arabera, bilobak dauzkaten aitona-amonen artean bostetik bik baino gehiagok asteen behin gutxienez zaintzen dituzte umeak (%42), eta beste hamarretik batek, hilean behin baino gehiagotan. Hortaz, aitona-amona gehienek zaintza lanak egin ohi dituzte —zaintza horretan denbora

gehiago ematen dute amonek, aitonek baino—.

«Aitona-amonekin denbora asko pasatzen dute umeek, eta haiek ez dakite euskaraz» (Agurain B)

«Aitona-amonak erdaldunak dira, eta denbora asko pasatzen dute umeekin. Haurrak ohituta daude gaztelaraz aritzera» (Arrigorriaga B)

«Aitona-amonek ez dakite batere euskaraz; ulertu ere ez dute egiten. Eta askotan uzten ditugu umeak haiekin, gure etxean bertan, gure lanorduak direla eta» (Arrigorriaga B)

«Etxeko hizkuntza garrantzitsua da. Gure alabek aitona-amonengandik ikasi zuten gaztelara» (Azpeitia B)

«Aitona-amonak etortzen direnean gertatzen da gaztelarara pasatze hori, baina ez da gehiegitan izaten» (Bilbo D)

Hain justu ere, herrietako informatzaile kualifikatuek ohar hori egin dute: zaintza lanetan zeresan handia izaten dutela aitona-amonek.

«Umeen zaintza orduak oso garrantzitsuak dira, eta hor protagonista dira kasu askotan aitona-amonak. Gure herrian asko dira umeak zaintzen zituzten aitona-amonak, eta horien artean badira garai batean gurera kanpotik etorritakoak, eta horiekin gaztelaniara pasatzen dira segituan haurrak» (Elgoibar)

«Txikiak direnean, zaintzailearen eragina oso handia da. Honelako kasuak datozkit burura: bikote mistoa, aitona-amonak erdaldunak, eta haurrak txikitan euskaraz oso hitz gutxi, zaintzaileak aitona-amonak izanda» (Tolosa)

«Aitona-amonek, zaintzaileek... Eragina dute kasuan kasu, baina esango nuke gero eta gutxiago dutela. Eta norabide bietan dute: batzuetan, euskara indartzeko; beste batzuetan, kontrakorako» (Erandio)

«Ume batentzat izugarritzko gehigarri afektiboa da aitona-amonak euskaraz aritzea. Aitona-amonak, gehienetan, maitagarriak dira, harremana gozagarria da ia beti... Aitona-amonek euskaraz egiten badiete, afektiboki eragingo die. Gure eskualdean ez da hori gertatzen, oraindik ez dago aitona-amonak euskaldunak, kanpotik etorritako baten bat salbu» (Agurain)

«Eragin zuzena du umeak norekin pasatzen duen denbora gehiena: aitona-amonek gaur egun denbora handia pasatzen dute ilobekin» (Lekeitio)

«Aitona-amonen eragina handia eta nabarmena dela esango nuke, eta jatorriz euskaldunak direnak transmisore onak dira. Umeak asko egoten dira parkean, eta txikiak diren bitartean, guraso edo familiakoekin eta hor euskaraz egiten da» (Bermeo)

6. Faktore sozioafektiboak

Ezaugarri soziolinguistikoetatik harago, aztertzekoa da euskarak nolako irudia daukan gizartean, eta zer iritzi dauden hedatuta. Eusko Jaurlaritzak horri buruzko proiektu bat landu zuen 2016an: EGOD Euskararen Gaietako Oinarritzako Diskurtsoak. Azterlan horretan sumatu zuten euskarari buruzko iritzi batzuk hedatuta daudela: garrantzitsua dela euskara, aukera gehiago zabaltzen dituela, gizartean integratzeko tresna dela... Nolanahi ere, iritzi horietan ere nabari dira aldeak euskaldunetatik erdaldunetara. Umeek euskara ikastearen garrantziarekin, bai, ados datoz euskaldun hartzaile eta erdaldun gehien-gehienak ere, baina euskarari buruzko interesean alde adierazgarria dago euskaldunetatik erdaldunetara.



36. grafikoa. Euskarari buruzko iritziak (%) I



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Siadecok landua.

Aldekotasun hori jaitxi egiten da, ordea, norbere egoerari era zuzenagoan eragiten dioten aldagaiak txertatzean: euskara jakitearen ezinbestekotasunak, esaterako, zatiketa handiagoa sortzen du. Areago, badago herritar multzo esanguratsu bat uste duena euskara ikastea zama handiegia dela.

37. grafikoa. Euskarari buruzko iritzia (%) II



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Siadecok landua.

Euskarari buruzko iritziek zer oinarri duten, badira aldagai interesgarri batzuek Eusko Jaurlaritzaren inkesta horretan. Kontuan hartzekoak dira lau erpin hauek behintzat:

Identifikazio hizkuntza. Herritar gehienek gaztelaniarekin identifikatzen dute beren burua: hirutik bik ia (%63). Hizkuntza ezagutzarekin badu harremana identifikazio hizkuntzak, baina ez horrekin soilik: hiru euskaldunetik batek (%36) gaztelaniarekin ere identifikatzen du bere burua —horietako erdiek, gaztelaniarekin soilik, eta beste erdiek, euskararekin eta gaztelaniarekin aldi berean—.

Irudia. Euskara eta gaztelania aipatzean, herritarrei ez datozkie hitz berberak burura. Euskararekin, zera aipatu dute maizenik: Nire lurra, Euskal Herria. Gaztelaniarekin berriz, hau: Hizkuntza bat.

Berezko hizkuntza. Bost herritarretik hiruk uste dute euskara eta gaztelania direla hemengo berezko hizkuntzak, biak (%61). Nabarmen gutxiagok, hirutik batek diote euskara dela berezko hizkuntza (%35). Hizkuntza gaitasunaren arabera alde handiagoa dago iritzi horretan: euskaldun gehienek uste dute euskara dela berezkoa (%60); erdaldun gehienek, ordea, biak dituzte berezkotzat (%74).

Etorkizuneko erabilera. Hizkuntzen erabilera nolakoa izatea nahi duten, etorkizun elebiduna desio dute herritar gehienek (%78), baina euskararen erabilera gaur egungoa baino handiagoa izanik (%55). Etorkizunean erabat euskaraz egiteko nahia euskaldunen artean ere ez da gehienena (%25), ezta 4. gune soziolinguistikoan ere (%26). Erdaldunei dagokienez, gehienak agertu dira elebitasunaren alde (%81), baina horietako bostetik bik ez dute nahi euskara orain baino gehiago erabiltzerik (%32).

Iritzi horien oihartzunak nabari dira gurasoen solasetan. Zehazki erreparatu zaio euskara zertan oinarrituta transmititu duten gurasoek —transmititu duten gurasoek—, zer argudio eman duten. Badira gorabeherak. Batetik, aurreko ataletan azaldutako ildoan, familiako belaunez belauneko transmisioa dago: euskara jaso, euskara eman.

«Gu euskaldunak gara, eta guztiz logikoa zen seme-alabei euskara transmititzea» (Donostia D)

«Biak gara euskaldun zaharrak, eta guztiz logikoa da umeak euskaraz hezte» (Azpeitia D)

«Beti euskaraz egin dugu, eta, ondorioz, hori transmititu dugu» (Elorrio D)

Bestetik, ordea, badira lehen hizkuntza euskara ez duten gurasoak, edo bikote mistoak. Kasu horietan, euskara transmititzearen oinarrian beste arrazoibide batzuk ageri dira. Hiru dira nagusiak. Bat, sentimenduekin lotua: Euskal Herrian bizi izanik eta euskaldun sentiturik, inportantea dela euskara transmititzea. Bestea, gurasoek eurek egindako ahalegina, euskaldun berriekin lotua: euskara ikastea esfortzua izan dela aita-amentzat, eta lortutako hori transmititu egin behar dietela seme-alabei. Hirugarrenik, neurri mugatuagoan, argudio utilitarioa: euskara ikastea garrantzitsua dela laneratzeko.

«Bikotekidearentzat eta niretzat erosoagoa da gaztelaniaz aritzea. Hala ere, D ereduan apuntatu genituen seme-alabak, guretzat inportantea delako tokiko hizkuntza jakitea» (Elgoibar A)

«Haurrak euskaraz hezteko erabakia hartu genuen. Euskal Herrian bizi gara, eta bertako hizkuntza denez, denok ikasi beharko genuke» (Aia A)

«Euskaldun sentitzen gara, eta ez dugu zalantzarik izan gure haurrak ere horrela hezi behar ditugula» (Zamudio A+)

«Oso argi geneukan euskara nahi genuela haurarentzat. Hemengoak gara, eta garrantzitsua da gure lurraldeko hizkuntza zabaltzea eta hurrengo belaunaldiei transmititzea» (Arrigorriaga B)

«Nire amonak bazekien euskara, eta Francoren diktadurako pertsekuzioaren ondorioz utzi zion hitz egiteari. Euskararen gaiari nahiko garrantzi eman diogu, familian berreskuratzeko helburuarekin» (Gasteiz A+)

«Jaio baino lehenago pentsatuta genuen gure seme-alabek euskaraz egingo zutela. Inguru euskaldun batean bizi gara, eta garrantzitsua ikusten genuen testuinguru horretan linguistikoki integratuak egotea» (Beasain A)

«Guk euskaraz ikasi genuen, eta logikoa zen esfortzu hori seme-alabengan irudikatzea» (Bilbo B)

«Euskaldun berri moduan, seme-alabak euskaraz heztearabaki genuen» (Bilbo B)

«Biok euskaraz ikasi dugu, eta akatsa litzateke garrantzirik ez ematea hurrengo belaunaldiak euskaraz hezteari» (Sestao B)

«Asko kostatu zitzaigun euskara ikastea, eta behin ikasita, argi genuen seme-alabak edukiz gero euskaraz heziko genituela» (Subijana B)

«Argi geneukan, nahiz eta gu ez ibili oso fin euskaraz, gure seme-alabek euskara ikasi behar dutela. Gerorako, eskolarako, unibertsitaterako eta batez ere lanerako oso garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik apuntatu genituen D ereduan» (Sestao A)

«Gehiena euskaraz irakurtzen dute. Kezka eduki dugu euskara jakin dezaten, batez ere lan arloko etorkizunari begira» (Arrigorriaga A)

Aditu gehienak bat etorri dira gurasoen uste eta jarrera horiek giltzarri direla euskara egoki transmititzeko: uste dute seme-alabei transmititu egiten zaizkiela euskarari buruzko jarrerak, zer balio ematen zaion euskarari. Eta horrek, jakina, eragina dauka seme-alaben hizkuntza ibilbidean.

«Esango nuke euskararekiko sentimenduak positiboak eta onak direnean errazagoa dela transmisioa gauzatzea. Aurreiritziek ez diote inolako mesederik egiten. Hau da, gurasoen artean euskararekiko sentimendua ez bada positibotasunean oinarritzen —adibidez, lanerako behar dutelako eta presiopean—, horrek ez die laguntzen umeei» (Etxebarri)

«Hizkuntzarekiko maitasuna, gorrotoa, indiferentzia, balorazio positiboa edo negatiboa... Dena transmititzen da hitzen eta jarreraren bidez» (Santurtzi)

«Euskara transmititzeaz gain, oso garrantzitsua da hizkuntzarekiko atxikimendua eta nortasuna lantzea ere. Euskara transmititzerakoan sentimendu eta emozio positiboak lantzen badira, haurra motibatuko dugu euskara erabiltzera. Horregatik, berebiziko garrantzia du etxean eta eskolaz kanpoko jardueretan euskara erabiltzeak» (Elgoibar)

«Euskaraz egiteko gaitasun nahiko izanez gero, aldeko sentimenduak lagungarriak dira. Baina alderantziz, ez. Emozioak transmititu egiten dira, baina jokabideak dira eraginkorrak, eredugarri bihurtzen direlako» (Zamudio)

«Hizkuntzari lotutako sentimenduak (eta aurreiritziak) hizkuntzarekin batera transmititzen dira belauneko belauneko katean. Egiten duguna gara, eta egiten dugun hizkuntzak egiten gaitu gu; eta, gure aurrekoak ez ezik, gure ondorengoak ere bai» (Azpeitia)

«Orokorrean, familia euskaltzaleetako seme-alabek euskararekiko atxikimendu handiagoa dute, berena den zerbait bezala bizi baitute. Euskara jakinda ere garrantzirik ematen ez diotenen seme-alabek etxeok bezala jokutzen dute. Eta, azkenik, hizkuntza ez dakitenen artean ere oso nabaria da emozioen transmisioa. Zenbait familiatan, jakin ez arren, mezu positiboak ematen dituzte, aurrerapenak txalotzen dituzte... Eta horrek asko laguntzen du» (Tolosa)

«Euskararekiko atxikimendua duten gurasoek euskara transmititzen dute etxean. Baina hori gutxienezkoa da. Faktore emozionalak sartuko dira tartean atxikimendu horri heltzeko. Iritsi garen lekuraino ematen du faktore emozionalak. Beste modu batean lortu behar dugu. Ezin dugu pentsatu hobekuntzarik lortuko dugunik faktore afektiboa landuta. Faktore funtzionalak nagusitu beharko dira: euskarak funtzionalitatea lortu behar du gizartean, gurasoek balioa emateko eta etxean transmititzeko ahalegina egiteko» (Agurain)

«Hizkuntza baten transmisioan, erabateko garrantzia dute faktore emozionalak. Transmisio horretan ez baita soilik hizkuntza bera transmititzen: izandako hizkuntza ibilbidea eta esperientzia ere transmititzen da (gurasoek nola jaso duten hizkuntza, eta zer bizipen izan dituzten). Ondorioz, hizkuntzari ematen diogun balioa eta transmititzen dugu» (Donostia)

Euskararen balioarekin lotuta, tentuz aztertzekoa da euskarak zer-nolako irudia daukan gizartean. Aditu gehienak bat etorri dira ildo batzuk seinaltzerakoan: aldektasuna baduela, irudi ona, baina batez ere umeekin eta eskolarekin lotua.

«Irudi atsegina du, baina umei edo gaztetxoei lotuta doana» (Etxebarri)

«Sektore handi batentzat euskarak irudi positiboa du herrian; euskaltzaletasuna ondo ikusten dute. Hala ere, badago sektore espainol handi bat gurean, eta horiek mehatxu gisa ikusten dute euskara. Erdararen militante dira, eta euskara inposizio bezala ikusten dute. Kontuan izan Getxon oraindik A eredu dagoela hezkuntza publikoan, eta matrikulazioa mantendu egiten dela» (Getxo)

«Euskara esparru asko irabazten ari da, baina oraindik ez da gaztelaniaren pareko, batez ere lan munduan; askorentzat, gainera, euskara=eskola da. Guraso gehienek ez dute bereziki ezer transmititzen euskararekiko; beste gai batzuekin daude kezkatuta» (Elgoibar)

«Euskararekin lotutako sentimenduek eta aurreiritziek badute eragina transmisioan. Gaur egun, dena den, emozioek pisu gutxiago daukatela esan daiteke. Euskara eskolako hizkuntza da bereziki D erudian dabiltzan umeentzat eta, agian horregatik euskarak lehen baino karga emozional gutxiago dauka» (Bilbo)

«Euskarak transmititzen du gurea dela, behar dela aldektasun sinbolikoa. Eskolan ikasi behar dela. Umeen, gazteen eta abertzaleen kontua dela, baina ez dela beharrezkoa. Lanerako ez dela beharrezkoa. Adin batetik gorako erdaldunek uste dute salbuetsita daudela» (Agurain)

«Esango nuke euskararen balio sozialari buruz zabaldua dagoela aurreiritzi bat: gauza serioetarako euskarak ez digula horrenbeste balio» (Bermeo)

«Euskararekiko atxikimenduak eragiten du euskara era kontzientean transmititzeko gogo. Bilaketa aktiboa egiten da: euskarazko ekitaldiak bilatzen dira, euskarazko programak, euskarazko liburuak... Atxikimendu hori transmititu egiten da» (Gasteiz)

7. Etxeko ingurunea

Etxeko transmisioa aztergai dela, interesgarria da gurasoen hizkuntza gaitasunaz eta ahozko erabileraz haragoko faktoreei ere erreparatzea: euskarak zer toki daukan etxean, euskal kulturak zer sarbide duen. Hitz batean esateko, hizkuntza gaitasunetik harago, euskarak zer bizi-indar duen etxean.

Etxeko inguruneaz eta euskarazko edukiez galdetuta, bereziki bi arlo hartu dituzte hizpide gurasoek: liburuak eta telebista. Eta alde nabarmena dago batzuetatik besteetara: hedatua dago seme-alabek euskarazko liburuak edukitzea —eskolaren osagarri, edo gurasoek beren kabuz erosita—, baina telebistan erdarazko kontsumoa dago erabat hedatua.

«Umeen liburuak, denak euskaraz. Telebistan, ez hainbeste: eduki gehienak gazteleraz izaten dira» (Santurtzi A)

«Marrazki bizidunak askotan erdaraz ikusten dituzte; euskarazko gutxi gustatzen zaizkie. Liburuak eta ipuinak, batez ere euskaraz» (Agurain A)

«Umeen liburu ia guztiak euskarazkoak dira, hala saiatu izan garelako jaio zenetik; gurasoon liburu gehienak, berriz, erdarazkoak dira. Telebistan, erdaraz ikusten dugu gehiena» (Donostia A+)

«Liburuetan asko dauzkagu euskaraz. Telebista ez dugu ikusten, eta horren ordez, Youtube erabiltzen dute seme-alabek; nik dakidala, ia dena gazteleraz. Kezka ematen digu, egia esan» (Arrigorriaga B)

«Irakurri, gehiena euskaraz irakurtzen du semeak. Baina bideo jokoetan eta telebistan, gaztelaniaz, eskaintza handiagoa delako» (Elgoibar B+)

«Euskara liburuetara mugatu dugu betidanik. Telebista guztia erdaraz ikusi ohi dugu, baita marrazki bizidunak ere» (Oion B+)

Aurreko joerak zabalduta egonagatik ere, badira liburuetan eta telebistan euskarazko edukiak gailen diren sendiak. Egingako elkarriketetatik gutxiengo nabarmena dira:

«Euskarak toki asko du etxean. Umeen liburu guzti-guztiak euskaraz, eta telebistan ETB3 ikusten dugu. Liburutegitik, hasieran pelikula guztiak euskaraz hartzen genituen; orain, erdi eta erdi» (Pasaia A)

«Etxean euskaraz ikusten dugu telebista, eta liburuak irakurri ere bai. Euskara da gure hizkuntza, eta horrekin sentitzen gara eroso» (Oñati A+)

Telebistari dagokionez, adierazgarria da joera bat: umea koskortu ahala, gehiago jotzen du erdarazko edukietara, eta euskarazkoak baztertzera jotzen du. Ez da ahaztekoa faktore bat: guraso gehien-gehienek gaztelaniazko telebista kateak ikusten dituzte, eta koskortu ahala, gurasoen roletan sartu ohi dira umeak. Gurasoek, nolanahi ere, beste argudio bat eman dute: euskarazko eskaintza «kalitate» txikikoa dela, kopuruz ere apalagoa dela eskaintza, eta umeek nahiago izaten dituztela erdarazkoak. Bada salbuespen bat: *Goazen* telesaila aipatu du familia batek baino gehiagok.

«Lehen, haurrak txikiagoak zirenean, ETB3 gehiago ikusten zen etxean, baina orain askoz gehiago gustatzen zaie Boing edo Clan kateetako programazioa. Uste dugu garrantzitsua dela kalitatea ere: dena ez da hizkuntza batean edo bestean eduki bat barneratzea» (Aia A) 138

«Marrazki bizidunak lehen gehiago ikusten zituzten euskaraz; orain gaztelera ari dira pasatzen» (Sestao B)

«Telebistan, lehen garrantzi handiagoa ematen genion euskarazko programazioa kontsumitzeari. Orain, Clan katea ikusi nahi dute, eta ezinezkoa zaigu gogo hori kentzea, lagunek ere hori ikusten baitute» (Oñati A)

«Euskarak nik nahi baino toki gutxiago dauka etxean. Marrazki bizidun batzuk ikusi izan ditugu, baina aitortu behar dut nahiko kalitate eskasekoak direla. Haurrei ez zaizkie gehiegi gustatzen» (Oion A)

«Telebista ez dugu asko ikusten guk, baina semeak batez ere gaztelaniazko edukia ikusten du; kalitate hobea dutela dio. Euskarazkoak ez zaizkio gehiegi gustatzen» (Sestao B)

«Liburuetan euskara daukagu presente, haurrentzako euskal ipuinak. Telebistan gehiena gaztelaniaz ikusten dugu. Askotan, umek kalitatea bilatzen dute, eta euskarazko marrazki bizidunetan ez omen dute topatzen» (Zeanuri A+)

«Liburuetan eta telebistan, espazio gutxi du euskarak gure etxean. Euskaraz ikusten dugun bakarra Goazen da. Sakratua da gure alabentzat eta haien lagunentzat» (Oñati X)

«Telebistan, Goazen ikusi ohi dugu hurrekin, eta euskaraz ikusten ditugu musika eta jolas asko ere. Esfortzu dezente egin izan dugu alde horretatik» (Ibarra A)

«Jolasetan eta liburuetan gehiena euskaraz daukagu. Telebistan, ordea, ia dena gaztelera ikusten dugu, Goazen izan ezik. Netflix asko xamar ikusten dugu, eta gaztelera» (Getxo B+)

Umeen joera horien aurrean, jarrera desberdina hartzen dute gurasoek: batzuek ekimena hartzen dute, eta ahalegintzen dira umeen hautua bideratzen, telebista euskaraz ikus dezaten saiatzen; beste batzuek, berriz, uste dute aske utzi behar zaiela umeei erabakitzen.

«Garrantzia eman diogu arlo horri, eta ETB3 asko ikusi dugu. Saiatu gara euskara ez dezan eskolarekin soilik lotu» (Erandio X)

«Euskaraz ikusten dugu telebista. Hautu politiko bat da euskara bultzatzea, eta, beraz, kultura kontsumitzeko garaian bide egokiena euskaraz kontsumitzea da» (Bilbo B+)

«Nahiko esfortzu egin dugu euskarazko edukia etxera ekartzen. Telebistan eta musikan, zati handi bat euskaraz kontsumitzen dugu» (Oion A+)

«Telebistan, gustuaren arabera ikusten dute gauza bat edo beste, ez hizkuntzaren arabera» (Gasteiz A+)

«Telesailaren arabera: batzuetan euskaraz ikusten dute, eta besteetan, gaztelera. Seme-alaben aukera ez da hizkuntzaren arabera, gustuen arabera baizik» (Beasain B)

«Orain arte leku handia eduki du euskarak. Duela bi urte hasi zen seme nagusia erdarazko telebista ikusten, baina, egia esan ez nau kezkatzen: are gehiago, esango nuke komeni zaiola, oso gutxi baitaki erdaraz» (Elorrio A)

«Irakurri, euskaraz; telebista, gehiago gaztelera. Telebistako eskaintzan handiagoa da erdarazko haur programazioa, eta saihetsezina da telebista gaztelera ikustea» (Zeanuri D)

«5-6 urtetik aurrera, gaztelera ikusi dute telebista, baina ez nau kezkatzen» (Bermeo D)

Telebistaren alboan, ez da ahaztekoa ikus-entzunezkoen esparruko teknologia berrien eragina: gero eta telebista gutxiago ikusten dute gaztetxoek, eta gehiago jotzen dute plataforma digitaletara —Youtuberen gisakoak eta Netflixen estilokoak— edo sakelako telefonora.

«Telebista askoz gehiago ikusten du gaztelaniaz, euskaraz ez dagoelako kalitateko programazio handirik. Youtuben ere dezente ibiltzen da, eta dena gazteleraz edo ingelesez» (Pasaia X)

«Guk erdaraz ikusten ditugu pelikulak, baina saiatzen gara umeei euskarazko edukiak jartzen; normalean, ETB3. Haurrek Youtube ikusi ohi dute, eta gazteleraz izaten da beti» (Urretxu B)

«Telebista asko ez dugu ikusten, baina ikusten dugunean ere, haurrek ez dute euskaraz ikusi nahi izaten. Teknologia berriak (tabletan, adibidez) gazteleraz erabiltzen dituzte» (Gasteiz B+)

«Seme-alabek Interneten kontsumitzen duten guztia gaztelerazkoa izaten da, batez ere eskaintza handiagoa delako. Telebista ere gehiago gazteleraz ikusten dugu» (Hernani A+)

«Eskolarako diren gauzak euskaraz egiten ditu (irakurri, Interneten informazioa bilatu...). Baina telebista ikusten duenean, gazteleraz zein euskaraz; eta tabletan eta Youtuben, gehienbat gazteleraz. Eskaintza handiagoa da gazteleraz» (Hondarribia B+)

«Orokorrean euskarazko eduki asko ditugu etxean. Telebista gero eta gutxiago ikusten dugu, eta seme-alabek batez ere telefono mugikorrarekin ibiltzen dira; eduki gehiena erdarazkoa da» (Amezketeta D)

Euskal kulturak etxean duen lekuaz egin dute gogoeta adituek. Kezka kutsuarekin hitz egin dute batzuek: hutsunea izan dela euskal kulturaren transmisioan, kasu batzuetan gurasoek eurei ere ez dietela transmisio hori egin, eta egoera horretan, zaila dela seme-alabei transmititzea. Areago, teknologia berrien eraginaz ere ohartarazi dute: are indar handiagoz sartu dira etxean gaztelania eta ingelesa, eta euskarazko edukiak eskas dira plataforma berri horietan.

«Batak ez dakar bestea, nire ustez. Euskal kultura askotan ez da hizkuntzaren irakaskuntzarekin jasotzen; arlo hori, ikastetxean lantzeaz gain, beste era batera landu beharko litzateke» (Etxebarri)

«Euskal kultura eta hizkuntza bi gauza desberdin dira hainbat kasutan. Hizkuntza transmiti daiteke, eta euskal kulturarako grina ez; edo euskal kultura transmititu, eta hizkuntza ez» (Ermua)

«Bai. Hizkuntza ez da beti helburua: tresna ere bada euskal kultura eta euskararekin lotutakoak transmititzeko» (Santurtzi)

«Hutsunea dago. Euskara jasotzen dute eskolan, baina ez hainbeste euskal kultura. Guraso askok ez dute jaso euskal kulturari buruzko ezagutzarik, eta oso zaila da guraso horiek euskal kultura transmititzea» (Pasaia)

«Hizkuntza transmisioa ez da mugatu behar hizkuntzaren ezagutza transmititzera bakarrik: harago joan beharko luke. Hutsune handiak nabari ditut, batez ere gehien behar duten haurrengan. Etxean euskara jaso ez duten gurasoen haurrek, eta bereziki kanpotik etorritako guraso askoren haurrek, ez dute euskarazko kultura kontsumitzen, eta oso zaila da familia horiek kultur ekintzetara erakartzea» (Elgoibar)

«Hutsune handia dago. Kultura osagai horiek gabe, transmititzen dugun hizkuntzari zerbait faltako zaio. Mundu globaleko osagaiez gain, euskal kulturakoak ere beharrezkoak edo lagungarriak dira euskara gaitasuna eskuratzeko eta euskaraz eroso egiteko» (Zamudio)

«Azpeitian transmisioa ez da hizkuntzarena bakarrik. Hizkuntzarekin batera hizkuntza horri lotutako kulturaren transmisioa ere egiten da, bere argi-ilunekin» (Azpeitia)

«Euskal kulturaren transmisioan hutsunea sumatu dut. Globalizazioak, teknologiak... hainbat ohitura aldatzeak eta gizartearen bizimoduak zerikusi handia izan dute» (Tolosa)

«Gaur egungo mundu globalizatu honetan, aktibismo puntu bat behar izaten da euskal kultura transmititzeko. Batzuetan ez da erraza aktibismo hori topatzen. Eskolak eta herrietako kultur eragileek eragin handia izan dezakete, etxekoa konpentsatzeko» (Zeanuri)

«Hizkuntzarekin batera, mundu ikuskera oso bat transmititzen dugu. Euskararen kasuan, batzuek bide ez-naturaletik jaso dute hizkuntza, eta kulturari dagokionez nahaste handia egon daitekeela sumatzen dut. Areago, euskararen transmisio partziala egin den kasuan kultura ere modu partzialean transmititu da. Gaztelaniaren kulturak inguratzen gaitu, ingelesarenak ere gero eta gehiago» (Erandio)

«Hizkuntzen transmisioa kulturen transmisioari loturik dago (ikus besterik ez dago ingelesaren eta espainiarraren hedapena). Ikastetxeetan saiatzen dira kultura hori transmititzen; herrian ere bai, programa zabalarekin. Uste dut etxean dagoela hutsune handiena: gurasoek eta gazteek nolako kultur ereduetatik edaten dugun telebistan, Interneten...» (Donostia)

«Zaila egiten da euskal kulturaren transmisioa imajinatzea euskararik gabe. Era berean, euskara ikasteak eta euskaraz hitz egiteak berez dakar euskal kulturarekiko lotura zuzena. Nire ustez, gure herrian biak eskutik helduta doaz, eta modu nahiko egokian egiten da transmisio hori» (Elorrio)

«Hizkuntza transmititzeak kultura transmititzea dakar. Alde horretatik esan daiteke euskararako joera duten eta herrian aktiboen diren 20-35 urte bitarteko gazteek parte hartzen dutela udalerraren bizitza kulturean, kultur taldeetan, dantza taldean, musika taldeetan... Gazteagoak diren beste adin tarte batean, ostera, euskal kultura urrun dutela antzematen da» (Bermeo)


«Gure inguruan guraso asko euskaldun berriak dira. Euskara eskolan edo euskaltegian ikasi dute. Haurren munduarekin zerikusia duten erreferente kultural gehienak gaztelaniaz jaso dituzte. Haurren kultur mundua elkarrekin deskubritzen dute gurasoek eta seme-alabek. Bitxia izaten da: sarritan Pirritx eta Porrotxen zaleagoak dira aita-amak, seme-alabak baino» (Gasteiz)

8. Beste hizkuntzak

Euskara eta gaztelania soilik ez, beste hizkuntza batzuk ere kontuan hartu behar dira familiako transmisioa zertan den aztertzeko. Batetik, migrazioaren eraginez, gero eta gehiago direlako lehen hizkuntza gisa beste hizkuntza batzuk dituzten herritarrak, eta, horrekin lotuta, etxean beste hizkuntza batzuetan aritzen direnak. Bestetik, elebidunen artean ere gero eta pisu handiagoa hartzen ari delako atzerriko hizkuntzen ikaskuntza, bereziki ingelesarena.

Gaztelania ez diren beste erdara batzuei dagokienez, nabarmena da azken hamarkadetan gora egin duela hizkuntza horiek umetan ikasitakoen kopuruak —migrazioekin zuzenean lotua dago hori; are, kopuru horiek ez dute migrazioaren eragin osoa erakusten, bai baitira gaztelania lehen hizkuntza gisa duten migratzaileak—. Eustaten datuetan igoera nabari da 2006an, eta nabariagoa 2016an: hamar urtean 40.000 herritar gehiago, beste hizkuntza bat etxean jaso zutenak. Etxeko erabileraren datuetan ere nabari da gorakada: hogeit hamar urtean ia sei aldiz gehiago dira gaztelania ez den beste erdara batean mintzo direnak. Ezagutzatik erabilerara alde adierazgarria dago, nolanahi ere: proportzioan begiratuta, lehen hizkuntza gisa dituztenen hirutik bi eskasek egiten dute etxean hizkuntza horietan. Nahiz eta igoera adierazgarria izan azken hamarkadetakoa, oraindik %5 azpitik daude lehen hizkuntzaren eta erabileraren datuak.

38. grafikoa. Beste hizkuntza batzuk




Iturria: Eustat. Siadecok landua.

Beste hizkuntza batzuk aipatzean, ezinbestekoa da ingelesaren presentzia ere kontuan hartzea. Azken urteetan pisu nabarmena irabazi du, eta gizarteko iritzien artean oso hedatua dago hizkuntza hori ikasteko premiarena. Eusko Jaurlaritzak 2017an egin zuen inkesta bat gai horri buruz (*Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa*), eta agerian jartzen du zein den herritarren iritzia joera. Ia aho batekoa da atzerriko hizkuntzak ikasteari ematen dioten garrantzia, batik bat ingelesa gogoan. Izatez, aurrera egiten ari da hizkuntza horren ezagutza: inkesta horren arabera, herritarren %45ek diote badutela trebetasun bat edo beste. Nabarmen atzerago dago frantsesa, bigarren lekuan. Ezagutzatik erabilerara aldea dago: dakitenek ere gutxitan erabiltzen dituzte atzerriko hizkuntzak.


39. grafikoa. Atzerriko hizkuntzak (%)

JAKITEAREN GARRANTZIA



EZAGUTZA

■ Hitz egin eta idatzi ■ Hitz egin soilik ■ Irakurri soilik ■ Ezer ez



ERABILERA

■ Egutero ■ Maiz ■ Noizean behin ■ Inoiz ez ■ Ez daki



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Siadecok landua.

Gurasoen artean oso hedatua dago ingelesa egoki jakiteari buruzko kezka. Batzuek eskolaz kanpoko ekintzetan egin diote lekua ingelesari —akademietara bidalita, esate baterako—, baina beste batzuek etxean bertan ere egiten dute ahalegina ingelesari tokia egiteko.

«Egiten dugu ahalegina. Ingelesezko eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte. Uste dugu beharrezkoa dela mundu honetan mugitzeko, lanerako eta unibertsitaterako. Ingelesezko prestakuntzari gero eta garrantzi gehiago emango diogu» (Pasaia A)

«Bai, gaur egun funtsezkoa da ingelesa jakitea. Gure kasuan, ingelesez ikusten ditugu marrazki bizidunak edo pelikulak» (Elgoibar A)

«Aurten hasi dira akademian. Hizkuntza guztiak dira oso garrantzitsuak, eta uste dugu ingelesak ate asko ireki ditzakeela» (Aia A)

«Telebista batez ere ingelesez ikusten dugu, azpiztituluekin. Ingelesak garrantzi handia dauka nazioarte mailan, eta lanerako beharrezkoa izango zaie gure seme-alabei» (Zamudio A+)

«Egiten dugu ahalegina. Bikotekideak oso ondo hitz egiten du ingelesez, eta semearekin saiatzen hasia da» (Bermeo B)

«Telebista ingelesez ikusten dute, eta eskolaz kanpo ingelesa ikastera joaten dira. Pelikula asko ikusten dituzte ingelesez» (Beasain B)

«Alaba zaharrenak ingelesez ematen ditu ikasgai batzuk, eta etxean sarri ikusten ditu pelikulak eta telesailak ingelesez» (Elorrio B+)

«Ingeles asko sartzen dugu etxean. Bideo joko, pelikula eta telesail asko ikusten ditugu ingelesez. Hizkuntzak ikastea oso erabilgarria da. Ingelesez ez ezik, frantsesez ere ikusten ditugu» (Pasaia B+)

«Umeentzako egiten dugu ahalegina: ingeles natibo bat ekartzen dugu etxera asteen behin, umeak ingelesarekin ohitu daitezen pixkanaka. Uste dugu garrantzitsua dela helduaroan aurkituko duten panoraman ingelesa ondo jakitea» (Zamudio D)

«Etxean Netflix jartzeko baldintza gisa jarri genituen seme-alabei bertan zegoena ingelesez ikustea» (Elorrio D)

«Bi seme-alabek aitarekin egunero ingelesezko telesail bat ikusten dute» (Zeanuri D)

«Seme zaharrena akademiara bidaltzen dugu, eta elkartruke bat egin dugu Irlandako mutil batekin. Uste dut asmatzen ari garela ingelesarekin: lanean hizkuntzarik inportanteena izango da» (Erandio X)

Ingelesari etxean lekua egin ez diotenek ez dute zalantzan jarri haren garrantzia —ia salbuespena dira ingelesaren inportantzia nabarmendu ez duten aita-amak—, eta hiru argudio nagusi eman dituzte etxean ingelesa ez sartzeko: haurrak txikiegiak direla oraindik; ez daukatela aski gaitasun ingelesez, umeekin jardueraren bat egiteko; eta oraingoz euskara sustatzea dutela ardatza. Kasu askotan, hala ere, asmoa agertu dute ingelesari gero eta toki gehiago egiteko.

«Lehentasuna euskara da, eta nahikoa dugu horrekin» (Laudio A)

«Gure iritziz, hain txikiak izanda ez du garrantzi handirik ingelesa ikasten hasteak. Geroago edukiko dute denbora» (Laudio A)

«Ez, ez dugu ahaleginik egin. Ikastolan ari dira ikasten. Gure lehentasuna euskara da» (Agurain A)

«Momentuz ez dugu ahalegin berezirik egiten. Eskolan ari da. Agian aurrerago egingo dugu. Oraindik gazteegia dela iruditzen zaigu» (Santurtzi A)

«Eskolan ikasten ari dira, eta oraingoz nahikoa da» (Sestao A)

«Ez dugu gauza handirik egiten. Laster akademian apuntatuko ditugu, baina oraindik gaztetxoak dira. Garrantzitsua da ingelesa jakitea: mundu hau gero eta gehiago ingelesez dabil» (Ibarra A)

«Ez dugu denborarik denera heltzeko Momentu honetan euskararen gaiarekin gabilta, eta nahikoa dugu horrekin» (Espejo A)

«Pentsatu izan dugu akademiara sartzea, baina oraingoz ez dugu sartu; etorkizunean, bai, beharbada. Ingelesa jakitea garrantzitsua da egungo mundu globalizatu honetan» (Oion A)

«Oraindik haurrak txikiak dira, eta uste dugu eskolan ikasten dutenarekin nahikoa dutela» (Elgoibar A+)

«Ez. Ideia eduki dugu, baina oraingoz ez dugu ingelesa sartu etxean. Dena euskaraz egiten dugu oraingoz» (Agurain B)

«Ez dugu ahalegina egiten, ingelesa ez dakigulako. Haurrek ikastolan ikasiko dute, eta, egia esan, etxean nahikoa daukagu euskararen erabilera sustatzearekin» (Arrigorriaga B)

«Haurrek eskolan ikasten dute ingelesa. Hasi gara pixka bat arduratzen nerabearekin; izan ere, ikusten dugu ingelesa dela eta izango dela hizkuntza globala, eta garrantzitsua dela ondo jakitea» (Donostia B)

«Ez dut menperatzen, eta nire bikotekideak ere asko ez. Eskolan ari dira ikasten pixkanaka, baina etxean ez diogu garrantzi handirik ematen oraingoz» (Sestao B+)

«Ez dugu esfortzurik egiten. Etorkizunean ingelesez alfabetatu nahi badute, laguntza emango diegu, noski. Baina haien erabakia izan behar du. Ez ditugu behartuko, nahiz eta badakigun garrantzitsua dela ingelesez ongi moldatzea» (Bilbo D)

«Eskolan emandakoarekin nahikoa dela uste dugu. Guretzat garrantzitsua da euskarari tokia ematea, eta, beraz, beste hizkuntzei oraingoz ez diegu garrantzi gehiegi ematen etxean» (Zarautz D)

Ingelesak indar handia hartu duela, bat datoz horretan herrietako adituak. Euskarari nola eragiten dion, ikuspegi desberdinak daukate horri buruz. Batzuen ustez, kalterako da euskararentzat: gaztelaniaren alboan, beste hizkuntza handi bat izango duelako lehiakide euskarak. Beste batzuen iritzian, ordea, ez du aldaketarik ekarriko horrek, eta gaztelania izango du euskarak lehiakide.

«Modu naturalean onartu beharko genuke euskara eta gaztelera ez ezik gure- seme alabek ingelesa ere kontsumitu behar dutela» (Etxebarri)

«Ingelesaren gorakadak eten egiten du euskararen aldeko lana» (Getxo)

«Txarrerako ari da eragiten ingelesa. Euskarak aurkari handi bakarra zuen lehen: gaztelania edo frantsesa. Baina orain beste hizkuntza handiago bat du aurre egiteko, eta euskara galtzaile ateratzen da» (Santurtzi)

«Erdaldunen familietan, ingelesari garrantzi handiagoa ematen zaio euskarari baino» (Arrigorriaga)

«Ume gehienak, adin batetik aurrera, ingelesa ikastera doaz. Uste dut ingelesak ez diola lekuri kentzen euskarari. Gaztelaniak egiten dio itzala euskarari, ez ingelesak» (Agurain)

«Ingelesa indartsu sartu da ikastetxeetan eta etxeetan. Oso leku nabarmena ematen zaio, ate handitik sartu zaigu, eta laudatzen dugu. Espainiera eta ingelesa etorkizunarekin lotzen ditugu; euskara, berriz, bidean daukagun harri txintxarra da. Ingelesaren loraldiak eragin negatiboa du euskararengan. Ingelesak ez dio lekua kentzen gaztelaniari. Hala ere, hizkuntza aniztasuna ona da denontzat. Baina hizkuntza gutxituari leku nagusia eman behar diegu» (Donostia)

«Euskarak ez du ingelesak duen prestigioa. Nola uler daiteke bestela txikitatik ingelesa eskolan landu arren geroz eta lehenago ingeleseko haur akademiek lortu duten arrakasta? 2 urtetik aurrera ingelesa ikastera joaten dira haur asko» (Beasain)

«Euskara transmititzeko joera da nagusi, duda barik. Beste hizkuntzak ikasteak aberasten dute umeen ezagutza, baina ez du eragiten kalterik euskararen erabileran» (Aulesti)

«Gero eta gehiago dira txikitandik ingelesa ikastearekin arduratzen diren familiak. Hala ere, ez dut uste horrek kalte handirik egiten dionik euskarari. Larriagoa da, nire ustez, gaztekeraren nagusitasun erabatekoa bizitzako arlo guztietan» (Elorrio)

«Ingelesari dagokionez, guraso askok nahi dute seme-alabek ingelesa ongi ikatea, eta mugalariak diren udalen kasuetan, familia batzuek (gehienak ez diren arren) haurrak Mirandara eramaten dituzte ikastera, ingeles gehiago ikas dezaten» (Añana)

Hizkuntzen irakaskuntzarekin lotuta, guraso batzuen artean sumatu da beldur bat: umeek, euskara bai, baina gaztelania ez ote duten ondo menperatuko. Batetik, D tipologiako gurasoen artea nabari da kezka hori, eremu euskaldunetan; bestetik, seme-alabak euskarazko irakaskuntzara bidali dituzten aita-ama batzuen artean.

«Txikiak ginela, amak ni eta anaia behartzen gintuen egunean ordubete gaztekeraz egitera, eskolan zein kalean arazoak geneuzkalako gaztekeraz hitz egiteko» (Zarautz D)

«Familia erdalduna da, eta, tira, erdaraz mintzatzeko gunea ere izaten da. Garrantzia ematen diogu horri» (Sestao B)

«Haurrek gaztelania maila oso baxua izan dute hasieratik, eta horri buelta emateko, erdarazko edukia ere sartu dugu etxean. Garrantzitsua da bi hizkuntzak ondo jakitea. Gaur egun, Donostia batean ez du balio elebakarra izateak» (Donostia B)

«Dena euskaraz egiten dugu, salbuespenik gabe. Batzuetan pentsatu izan dut zer edo zer gaztekeraz egin beharko genukeela; izan ere, seme-alabek euskara bakarrik dakite, eta hori ere ez da ona. Erdarazko edukia duten zenbait liburu ekartzen hasi gara, eta telebistan ere erdarazko programak ikusten hasi gara» (Azpeitia D)

«Orain arte leku asko eduki du euskarak. Duela bi urte seme nagusia hasi da erdarazko telebista ikusten, eta ez nau kezkatzen. Are gehiago, esango nuke komeni zaiola; izan ere, oso gutxi dakite erdaraz» (Elorrio A)

Aditu batzuek ere sumatu dituzte halakoak herrian, baina uste dute haurrak koskortu ahala desegiten direla mamu horiek.

«Hasieran gaztelania ondo ez ikasteko kezka badago, baina gerora argi ikusten dute hori ez dela egia» (Etxebarri)

«Etorkin familia batzuetan egon daiteke gaztelania ondo ez ikasteko beldurra. Espainiara etorri eta espainiera ondo ez ikasteko beldurra» (Zamudio)

«Badago gaztelania ondo ez ikasteko beldur haize hori. Aitona-amonen belaunaldiak oraindik ere gogoan du beren haragian jasandako umiliazioa haur zirela euskaldun peto-petoak izanda botere egituretatik gaztelaniaz tatxarik gabe mintzatzeko zigor bidez jarritako obligazioa» (Azpeitia)

«D ereduan erdara ondo ez ikasteko beldurra dago» (Arrigorriaga)


«Gure gurasoek (erdaldunak) egiten zizkiguten komentarioak, gure umeak txikiak zirenean eta guk euskaraz bakarrik egiten genienean» (Agurain)

9. Hezkuntza


Euskara transmititzeko bide eta familiako transmisioaren osagarri, ezinbestekoa da hezkuntzaren rola ere aintzat hartzea. Finean, euskararen transmisioaren ikuspegitik bi ikasle mota dauzka eskolak. Batetik, euskara lehen hizkuntza gisa jaso dutenak, etxean ikasi dutenak; horien kasuan, bigarren sozializaziorako bidea da eskola, familian jasotakoa sendotzeko lekua. Hitzun oso izateko egokiera ematen die bi bideko transmisio horrek. Bestetik, etxean erdara jaso duten ikasleak, euskara eskolan ikasten dutenak, bigarren hizkuntza gisa; lehen multzokoen aldean, euskararekin sozializazio ahulagoa dute, oro har, eta gaitasun mugatuagoa. Bigarren multzoko ikasleak, euskara etxean jaso ez dutenak dira gehienak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletan.

Euskarazko irakaskuntzak aurrerakada nabarmena egin du urteotan: ikasle gehienak euskaraz eskolatzen dira gaur egun. Araubide orokorreko irakaskuntza aztergai hartuta —unibertsitatez kanpoko irakaskuntza esparru osoa, Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara bitarte—, nabarmena da 35 urtean nola egin duen aurrera euskarazko D ereduak: %14tik %65era. Erdarazko A ereduak, berriz, laurdenera jaitsi da. Datu orokor horien azpian, gainera, alde esanguratsuak daude: Haur Hezkuntzan, bost ikasletik lau ari dira D ereduan; Lanbide Heziketan, ordea, bostetik bat.

40. grafikoa. Hizkuntza ereduen bilakaera araubide orokorreko ikasketetan (%)




IRAKASTALDIKAKO DATUAK (2017-2018)



Eusko Jaurlaritzak egindako aurreikuspenen arabera —*Eta hemendik aurrera zer?* txostenean egin zituen, 2016an— D ereduak aurrerapauso handiagoak emango ditu datozen urteetan, eta 2036an araubide orokorreko ikasleen %81 arituko dira eredu horretan; erdarazko A ereduak, berriz, erabat bazterrekoa izango da, ikasleen %2rekin. B ereduak oraingo tankeran jarraituko du, %17 inguruan.

Matrikulazioan izandako eboluzioari bakarrik ez, komeni da emaitzei ere erreparatzea. Bistakoa da hizkuntza eredu bakoitzak ez duela ahalmen bera ikasleak euskalduntzeko, eta, edozein kasutan, aldea dagoela euskara etxean jaso edo eskolan ikasia izan. Irakats-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI) B2 maila erabiltzen du erreferentzia gisa: hori da oinarrizko eskolaldia bukatu aurretik ikasle guztiek lortu beharreko gaitasuna. Bai euskara etxean jaso dutenen kasuan, bai eskolan ikasi dutenen kasuan. Hara ondorioa, 2017ko ebaluazioan jaso: 14 urterekin, ikasleen ia erdiek ez daukate erreferentziatzko euskara gaitasunik (%45).

41. grafikoa. Ikasleak, erreferentziatzko hizkuntza gaitasunaren arabera (% 2017)




Iturria: ISEI.

Hizkuntza helburu horiek ez dituzte lortzen A eta B ereduetako ikasle gehienek. Erdarazko ereduak, sare publikoan %98k ez dute hizkuntza gaitasun hori lortzen, eta itunpekoan, %78k; bi hizkuntzetako ereduak, berriz, sare publikoan %78k ez dute maila hori eskuratzen, eta itunpekoan, %58k. D ereduak ere ez dute denek lortzen: publikoan, %44k, eta itunpekoan, %33k.

Ereduak harago, etxean jasotako hizkuntza da giltzarria hizkuntza gaitasun horiei begira. Hara: euskara gaitasuna lortzen dutenen artean, proportzioan nabarmen gehiago dira etxean jaso dutenak. Adibidez, bi hizkuntzetan gaitasuna dutenen erdiek baino gehiagok euskara duten lehen hizkuntza. Gutxieneko gaitasunik ez dutenetan, berriz, laurik hiruk dute lehen hizkuntza.

Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da etxean euskara jasotzeak ez duela erabat ziurtatzen euskaraz maila egokia lortzea. ISEIren ikerketaren arabera, etxean euskara jaso duten laurdenek ez dute eskatutako euskara gaitasunik —galeraren proportzioa gisa berekoa da Lehen Hezkuntzan eta DBHn, %23koa—. Eskolaren beraren ekarpena ere kontuan izatekoa da: bost ikasletik bik lortzen dute euskarazko gaitasuna ikastetxean, nahiz eta etxean ez transmititu. Aintzat hartzekoa da beste aldea ere: 14 urterekin, bost ikasletik bik ez dute euskara jaso etxean, eta eskolan ere ez dute lortu erreferentziatzko gaitasunik.

42. grafikoa. Euskararen galera-irabazik eskolan (%)



Iturria: ISEI.

Datu horiek guztiek agerian jartzen dute belaunaldi berriak euskalduntzen funtsezko rola daukala eskolak. Bistakoa da hezkuntzak berebiziko ekarpena egin duela euskararen ezagutza zabaltzen, belaunaldi berrietan ezagutza orokortzea hezkuntzak ekarri duela hein handian, baina badago kezka, horrek berak ekarri ote duen albo ondorio bat: euskara indarberritzeko prozesuaren ardura eskolaren gain uztea. Seme-alaben hizkuntza ibilbidea sendotzeari begira, desiragarria litzateke familiak eta eskola bide berean jartzea: eskolak eta etxeak elkar osatzea. Familien eta irakasleen arteko harremanetan, hala ere, hizpide ote da euskararen egoera? Berariaz hitz egiten ote dute seme-alaben euskalduntzeari buruz? Gurasoekin egindako solasaldietan bietatik sumatu da: eskolarekiko harremanetan euskaraz hizpide dutenak eta gai horri heltzen ez diotenak.

Euskararen gaia irakasleekin aztertu duten aita-amek zera adierazi dute: etxearen eta eskolaz kanpoko jardueren garrantziaz ohartarazten dietela, euskarazko liburuak eta filmak gomendatzen dizkietela, eta umeei jorratzeko proposamenak egiten dizkietela, besteak beste. Alde horretatik, pozik daude gurasoak: ontzat jotzen dute irakasleen inplikazioa.

«Bileretan planteatzen dituzte kontzientzia hartzeko dinamikak. Esaten digute aisialdia garrantzitsua dela, ezin baitugu dena eskolaren esku utzi» (Laudio A)

«Eskolan behin eta berriz esaten digute euskaraz irakur dezatela. Eskolaz kanpoko euskarazko ekintzak ere proposatzen dituzte. Garrantzi handia ematen diote, nahiz eta gero familia bakoitzak erabaki nola ezarri aholku horiek» (Arrigorriaga A)

«Saiatzen dira, eta asko laguntzen digute. Liburuak gomendatzen dizkigute, baita pelikulak ere. Nahikotxo inplikatzeko dira euskararen gaiarekin» (Sestao A)

«Etxean euskaraz hitz egiten ez duten umeentzat aholkuak ematen dituzte; adibidez, telebista euskaraz jartzea eta euskarazko liburuak irakurtzea» (Elgoibar A)

«Eskolan beti esaten digute eskolatik kanpoko momentuak oso garrantzitsuak direla euskara ondo finkatzeko. Saiatzen gara, eta beste guraso erdaldun asko ere bai, uste dut. Bilerak euskaraz izaten dira, eta bakarkako itzultzaileak jartzen dituzte» (Beasain A)

«Gomendioak ematen dizkigute, eta familia askorekin inplikatzeko dira. Euskarazko pelikulen kopiak eman ohi dizkigute etxean umei jartzeko. Esfortzua egiten dute. Baina oso herri zaila da» (Oion A)

«Beti hitz egin izan dute haurrek etxean hitz egiten duten hizkuntzaren inguruan eta etxeko transmisioari buruz» (Beasain A+)

«Asko egiten dute familiengatik. Beti ematen dizkigute aholkuak, webgune interesgarriak gomendatzen dizkigute, eta eskolako liburuak uzten. Lan asko egiten dute eskolaz kanpoko jardueri garrantzia eman behar zaiela sinestarazten» (Zamudio B)

«Astero egiten dira bilerak gai hori lantzeko. Guk ez dugu laguntza gehiegi behar izan, baina beste familia batzuekin asko saiatzen dira» (Bermeo B)

«Garrantzia eman diote. Batez ere, gurasook ezin dugula eskolaren gain utzi euskararen transmisioa. Ahalegina egin behar da aisialdian ere euskaraz aritzeko, ez baitago irakasleen esku» (Gasteiz D)

«Bileretan euskaraz egiten da. Gainera, batzar berezi bat egiten da guraso guztiarekin euskararen inguruan, non eskolako familien euskalduntze prozesuez hitz egiten den. Behin eta berriz esaten digute garrantzia eman behar zaiola etxeari, ikastolatik kanpo esfortzua egin behar dela eta ezin dela eskolaren esku utzi» (Donostia D)

«Irakasleak kezkatzen dira euskararen gaiarekin. Esaten digute egin ditzagula eskolaz kanpoko ekintzak, umeek ez dezaten euskara eskolarekin soilik lotu» (Agurain X)

«Inplikazio handia dute. Esaten digute denbora libreko jardueretan inportantzia handiagoa eman behar zaiola euskarari, eta ez utzi lan osoa eskolaren gain. Uste dut nahiko ondo egiten dutela» (Zamudio X)

Familia ugari adierazi dute, ordea, eskolarekin ez dutela aztertu euskararen gaia. Inguru erdaldunetan eta euskaldunetan, denetan sumatu da eskolaren eta familien arteko erlazioak eza gai horri dagokionez. Guraso batzuek azaldu dutenez, aztergai bakarra izaten dute euskarari buruz: familiei galdetzen dietenean zer hizkuntzatan bidali behar zaizkien jakinarazpenak.

«Ez dugu hitz egiten gai horretaz. Ikasturte hasieran galdetzen digute komunikazio hizkuntza zein izan behar duen, eta ez doa hortik harago» (Oñati A)

«Ez dugu hizpide izaten. Irakasleak nahikotxo saiatzen diren arren, guraso gehienak oso erdaldunak dira, eta askotan kexatu eta guzti egiten dira etxeko lan guztiak euskarazkoak direla esanez eta erdara gehiago behar dutela argudiatuz» (Espejo A)

«Ez dira sartzen familiaren eremuan. Hizkuntzak bi hizkuntzetan egiten dira, eta ez dira hortik harago joaten, egia esan» (Gasteiz A+)

«Ez dugu hitz egiten gaiaz. Badakite zein den etxeko egoera: hasieran galdetu ziguten ea gurasoak euskaldunak ginen eta ea zein hizkuntzatan nahi genuen komunikatu» (Donostia A+)

«Bilerak euskaraz egiten ditugu, baina hortik aurrera ez dugu harremana gehiago sakontzen» (Hondarribia A+)

Familien eta eskolen arteko harremanari dagokionez, kezka azaldu dute aditu batzuek: eskolaren gain jarri ote den euskara indarberritzeko prozesuaren ardura, eta, horrekin, irudi oker bat zabaldu ote den, eskolak bere kabuz lortzeko moduko helburua dela euskara indarberritzea.

«Ikastetxeari lotuta joan da gehiegi, eta etxeko transmisioa ez da lehenetsi» (Etxebarri)

«Eskolako kontutzat jo da transmisioa, eta, neurri handian, oraindik hala da gure herrian» (Zumarraga)

«Eskolari dena delegatzen zaio. Kezka badago gaiarekin, baina ez daukagu tresnarik aurrera egiteko. Sentsibilizazio kanpainak egin ditugu, baina ez dute aldaketa nabarmenik sortu» (Agurain)

«Gurea moduko testuinguru erdaldunetan, pisu guztia eskolarengan utzi da; guraso erdaldunen kasuan, are gehiago. Inpresioa daukat guraso asko berandu konturatzen direla transmisioaren garrantziaz; gehienetan, izaten da seme-alabek euskararekin zailtasunak dituztenean» (Erandio)

«Hitz egiten da horri buruz, familiaren garrantzia azpimarratuz, baina eragin mugatua dauka. Oraindik ere familia askok uste dute dena egin dagoela umeak D ereduan ikasten dutenez geroztik» (Elorrio)


«Eskolari berebiziko garrantzia eman zaio. Bestalde, gaztetxo askok euskara eskola hizkuntzarekin lotzen dute. Hizkuntzaren transmisioaz eta erabilera urriaz eskoletan kezkatuta daude eta azken urteetan irakasleen prestakuntza horretara ere bideratu dute, familiekin transmisioa lantzeko helburuz. Udaleko Euskara Saila ere bidelagun da zeregin horretan baina hala ere, ez da nahikoa, guraso gutxik parte hartzen dutelako berariaz antolatutako saioetan» (Bermeo)

10. Seme-alaben erabilera

Haurren eta gazteen erabilera kezka iturri izan ohi da, ezagutzen emandako aurrerapausoa ez delako erabileran islatzen. Orain arteko datuek agerian utzi dute lehen hizkuntzak nolako eragina daukan gaitasunean eta erabileran, eta lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea ez da igotzen ari oro har. Gaztetxoei buruz hitz egitean, kontuan hartzekoa da zein den gizarteko egoera soziolinguistikoa: gazte belaunaldiak, bai, ari dira ezagutzen aurrera egiten, eta erkidegoan gehienek badute ezagutza, baina gizartean, oro har, gehienek ez dakite euskaraz, eta erabilera mugatua da. Gaztetxoek erabilera aztertzean, hortaz, komeni da bi alde horiei begiratzea: lehen hizkuntzari eta gaitasun mailari, eta testuinguruari.

Arrue ikerketak sakon aztertua du eskola umeek zer hizkuntza erabiltzen duten ikastetxeko eremuan. Inkesta bat du oinarri; datu aitortuak dira, beraz. Eskolako erabilera orokorrari dagokionez —ikaskideen artekoak eta irakasleekikoak—, nabarmena da euskara lehen hizkuntza duten ikasle gehienek euskaraz egiten dutela ikastetxean, bai 10 urterekin (Lehen Hezkuntzako laugarren maila), bai 14 urterekin (DBHko bigarren maila). Alde adierazgarria dago etxean bi hizkuntzak jaso dituztenetara, eta are handiagoa gaztelania edo beste erdara batzuk jaso dituztenetara.


43. grafikoa. Ikasleen eskolako euskara erabilera, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Beste joera bat ere nabari da datu horietan: nolako aldea dagoen ikasmaila batetik bestera: euskararen erabilerak nola egiten duen behera 10 urtetik 14ra. Lehen hizkuntza bat edo beste izan, guztietan ageri da galera hori, baina nabarmenagoa da lehen hizkuntza gisa biak jaso dituztenen edo erdara jaso dutenen artean. Galera hori zenbatekoa den aztertzeko modua ematen du Arrue ikerketak, 2011ko datuak eta 2015ekoak alderatuta —2011n 10 urterekin ikerketa parte hartu zutenek 14 urterekin parte hartu zuten 2015ean—.


44. grafikoa. Ikasleen eskolako erabileraren eboluzioa, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Eskolako erabilera beste aldagai batekin gurutzatuz gero, leunagoa da jaitsiera: etxeko erabileran euskara errotua dagoenean, adinaren arabera galera hori ez da hain nabarmena. Finean, datu horiek erakusten dute etxeko ohiturek nabarmen eragiten dutela gainerako esparruetan ere; kasu honetan, eskolan.


45. grafikoa. Ikasleen eskolako euskara erabilera, etxeko hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Etxeko jardunean hutsuneak badirela erakusten dute datuek, izatez: adinean gora egin ahala gutxiago egiten dute euskaraz etxean. Gurasoen arteko harremana da salbuespena, inkesta horretako datuen arabera. Badira aintzat hartzeko moduko datuak etxeko erabilera aztertzean. Batetik, aldea guraso batetik bestera: amarekin gehiago egiten dute euskaraz eskola umeek —transmisioan agertu da aldea gurasoen sexuari dagokionez—. Bestetik, adinean aurrera egiteak neba-arrebekin ekartzen dutela galerarik handiena, nahiz eta gurasoekin baino gehiago egin euskaraz haiekin. Eta hirugarrenik, etxekide guztiak elkarrekin daudenean erabiltzen dutela gutxien euskara, diferentzia handiz. Horrekin batera, nabarmentzekoa da beste diferentzia bat: ikasleen %20 inguruk jaso dute euskara etxean, lehen hizkuntza gisa, eta beste %14k euskara eta gaztelania. Badago aldea transmissioko datu horietatik etxeko erabilera.

46. grafikoa. Ikasleen familiako euskara erabilera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Zer diote gurasoek eurek seme-alaben erabilerari buruz? Elkarriketatutako aita-ama gehienak pozik daude, uste dutelako seme-alabek lortu dutela euskara gaitasuna eta erabiltzen dutela. Bi muturretako gurasoek agertu dute poztasun mailarik handiena: etxean euskara jaso zuten eta transmititu duten bikoteek, eta euskara ez dakiten eta transmititu ez dutenek. Lehenbizikoen kasuan, «normaltasunez» hartu dute seme-alabak euskaraz aritzea, familiako katearen segida modura; bigarrenek, berriz, lorpen handitzat jo dute seme-alabak euskaldundu izana.

«Oso pozik gaude. Egia da helduagoak egiten diren heinean gertuago edukiko dutela gaztelera, baina guk ezin dugu askoz gehiago egin» (Zamudio D)

«Badakit nire seme-alabek beste batzuen aldean harreman ona dutela euskararekin, ez dutela hizkuntza arrotz modura ikusten, eurena den zerbait bezala baizik» (Elorrio D)

«Pozik nago, euskara baita erabiltzen duten hizkuntza bakarra» (Aulesti D)

«Izugarri gustatzen zait euskaraz nola hitz egiten duten ikustea. Lorpen handia da guretzat. Uste dut denborarekin aldatuko dela erabilera, baina oraingoz zortea daukagu hainbeste ikasi duelako» (Zamudio X)

«Gurasoek ez dakigu euskaraz, baina lortu dugu seme-alabek ikastea eta erabiltzea. Gehiago beti egin liteke, baina pozik nago» (Zeanuri X)

«Nola ez naiz pozik egongo? Hiru urte pasatxo dira hona iritsi ginela, eta alaba zaharrenak oso azkar ikasi du, eta asko. Oso harro nago izan duen inplikazioarekin» (Oion X)

Gainerako soslaietako gurasoen artean ere pozik daude gehienak, batik bat eboluzioagatik: gurasoen euren haurtzaroa edo oraingoa, ikusten dute aurrera egin duela euskarak. Tatxa batzuk ere agertu dira aita-amen solasetan, nolanahi ere. Hiru ildotakoak: gurasoek espero eta desio baino gutxiago erabiltzen dutela umeek euskara, batik bat lagunartean; koskortzen doazen eran, jaitsi egin dela erabilera; eta herriaren egoera soziolinguistikoak eragin ezkorra daukala. Soslai guztietako gurasoen artean agertu dira gisa horretako kezak.

«Ez dute erabiltzen nik nahiko nukeen bezainbeste. Nirekin erabili ohi dute, baina, egia esan, oso zaila da haien lagunartean euskaraz egitea, inork ez baitu erabiltzen, eta denak azkar pasatzen dira gaztelaniara» (Oion A)

«Okerrera doan eboluzio bat ikusten ari naiz azken urteetan. Semeak gaztelaniara jotzeko joera handia hartu du, eta pena handia ematen dit. Egun osoa horrekin borrokan pasatzen dut» (Erandio A+)

«Nahiko nuke euskararekiko harremana estuagoa izatea etorkizunean, eta umeak euskaraz hazteko aukera izatea. Inguru oso erdalduna da, eta esfortzu handia egin beharko dugu» (Laudio B)

«Gutxi hitz egiten dute euskaraz; gehiago egin dezakete, eta guk ere bai, noski. Eskolakoak arduratuta daude haurrek lagunartean dena erdaraz egiteko joera hartu dutelako» (Arrigorriaga B)

«Pozik eta harro egon izan naiz beti. Baina, 14 urterekin, gero eta gutxiago erabiltzen hasi da semea. Triste nago. Asko jaitsi da haien erabilera» (Sestao B)

«Ez du euskara erabiltzen. Txikitatik ikasi du, eta nahiko ondo daki, baina lagunek erdaraz hitz egiten dute, eta dio ez zaiola interesatzen euskaraz egitea» (Subijana B)

«Ez nago oso pozik. Nahiz eta ama hizkuntza izan, kalean ez dute erabiltzen, eta horrek pena ematen dit. Egoera zaila da Gasteizkoa» (Gasteiz D)

«Pozik nago, baina hobeia izan liteke egoera. Pentsatzen dut etorkizunean haurrek lagunekin ez dutela euskaraz egingo» (Bermeo D)

«Azkenaldian nabarmen gutxiago erabiltzen dute, eta, martxa honetan, iritsiko da eguna non betiko alboratuko duten. Pena emango lidake» (Urretxu X)

Haurren eta nerabeen erabilerari dagokionez, jite beretik jo dute herrietako adituek: ekimen handiagoa eskatu behar zaiela gurasoei, eta, horretarako, beste buelta bat eman behar zaiela diskurtsoei, euskararen erabilera erdigunean jar dezaten. Izan ere, badute kezka bat: gurasoek, bai, argi dutela garrantzitsua dela beren seme-alabek euskaraz jakitea, baina ez dutela gisa berean ikusten euskararen erabilera.

«Uste dut zenbait gurasok ez dutela ondo jokatzeko umei hau esaten dietenean: 'Egizu euskaraz. Zuk badakizu, eta nik, ez'. Umeak beren artean euskaraz egitera bultzatzeak ez du bermatuko euskararen erabilera, baldin eta gurasoek ez badute urratsik egiten. Eskema bat apurtu beharra dago: gurasoen lana ez da bukatzen seme-alaba D eremuan matrikulatzearekin. Mezu hori oso zabaldua dago» (Etxebarri)

«Gurasoek badute interesa seme-alabek euskara ikas dezaten; erabilerarekin zailtasun gehiago ditugu. Interes pragmatiko instrumentala da: euskara ezagutzea nahi dute. Erabilerara bultzatzen duten identitate nortasun horiek etxean jasotzen dira bereziki, ikastetxean baino gehiago» (Pasaia)

«Euskararen ezagutza interesatzen zaie gurasoei. Erabileraz ere kezkatuta daude asko, baina kezka hori desagertu egiten da haurra adinean gora doan neurrian. Esango nuke ezagutzari ematen diotela berebiziko garrantzia. Zergatik? Ez direlako erabileraren garrantziaz jabetzen, eta euskarari ez diotelako ematen gainerako hizkuntzen balioa. Uste dutelako nahikoa dela euskara ulertuta eta ezagututa» (Elgoibar)

«Guraso euskaldunak —euskaldun zaharrak zein euskaldun berriak— ez dira guztiz jabetzen zenbateraino diren eredugarri: ahaldundu egin behar dira. Jakin behar dute zein garrantzitsuak diren, beren jarrera aktiboari esker buelta eman dakiokelako euskararen erabileraren egoerari» (Zamudio)

«Guraso askok irakurketa hau egin dute: ez dut nahi niri gertatutakoa seme-alabei gertatzerik —euskaraz ez jakiteagatik aukerak galtzea, euskara euskaltegian ikasi behar izatea...—. Beraz, motibazio indartsua dute umeei euskara ikasteko, baina motibazio horrek ez du indar nahikorik erabilerari dagokionez, erabilera ez baita haien kezka» (Erandio)

«Ohikoa bihurtu da D eredura bidaltzea, zorionez. Baina uste okerra dago: uste dute eskolan euskaraz egitearekin nahikoa dela. Ez da erabilera baloratzen: ez etxean, ez eskolatik kanpo. Euskaraz badakite, ulertzen dute, gai dira zerbait esateko: nahikoa da. Ez gara gai erabileraren garrantzia transmititzeko. Adostasun politiko handi bat behar dugu» (Agurain)

«Ikastea eta erabiltzearen arteko interesa desberdina izan daiteke hainbat sektoretan, hizkuntzarekiko motibazio instrumentala dutenen artean bereziki. Euskara euskal kultura, nortasuna eta izaerarekin lotu beharra dago gorago aipatutako kasuetan interes instrumental hutsa gaingintzeko» (Zarautz)


«Oso kasu gutxi eta berezietan aurkituko dugu gurasorik ez duena nahi bere seme-alabek euskaraz ikas dezaten. Beste kontu bat da, ordea, zer-nolako euskara eta zertarako ikasi behar den. Ez dira gutxi euskara ia ingelesaren pare jartzen dutenak, hau da, arlo akademikoan eta biharko egunean lanpostu hobeago bat lortzeko balio duelako bakarrik (edo gehien bat) ikasi behar dutela uste dutenak» (Elorrio)

«Asko dira haien seme-alabek euskara erabili dezaten euskal jarduerak bilatzen dituztenak eta horietan apuntatzen dituztenak, baina beste batzuek diote haien seme-alabek euskara erabiltzea nahi dutela, baina gero haien hitzek ez dute bat egiten haien eginkizunekin/erabakiekin» (Añana)

«Neurri kontua da. Guraso guztiek (salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita) nahi dute beren umeei euskaraz ikas dezaten. Guraso batzuek nahi dute beren umeei euskara erabil dezaten» (Gasteiz)

Euskarazko sozializazioa elikatzeko, eskolaz gain, ezinbestekoa da hizkuntzaren alderdi informalarekin lotutako esparruak: eskolaz kanpoko jardunak, aisialdiarekin lotuak, eta kulturaren eta hedabideen arloak. Joera hau da: eskolatik eta esparru arautuetatik zenbat eta urrunago, leku txikiagoa dauka euskarak.

47. grafikoa. Ikasleen euskara erabilera esparru informalean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra. Siadecok moldatua.

Euskararen erabilera faktore giltzarriak dira gaitasuna eta ingurua, erabiltzeko aukera eta egokiera haien araberakoak direlako, eta, esparru informalekin lotuta, bada bereziki zaindu beharreko aldagai bat: ahozketasuna, hizkuntza mintzatuan eroso aritzeko gaitasuna. Kontuan izatekoa da gaztetxo askok eskolan jaso dutela euskara, eta etxean erabilera mugatua daukatela. Esparru informalean euskaraz aritzeko eragozpena da hori, adituek ohartarazi dutenez. Badute kezka hizkuntza pobretzearekin: atzerabidean ikusten dituzte euskarazko esapideak eta hitanoaren gisako erregistro informalak. Euskalkiaren galerarekin ere agertu dute kezka batzuek.

«Ahozketasuna lantzeko, hizkuntzan erregistro biziak eta freskoak egon behar dira. Kolokialtasuna euskaraz lantzea edo gazteen arteko erregistroa euskaraz lantzea oso zaila da, horretarako ez direlako tresnak eskaintzen. Horrek dakar askotan euskara ez izatea hain erakargarria edo hurbila zenbait testuingurutan, eta formalegia izateak erakargarritasuna galtzen du» (Etxebarri)

«Bai, ahozketasuna galtzen ari da. Gurean behintzat gazteek ez dute bizkaieran hitz egiteko gaitasunik. Baina, batuan hitz egiterakoan ere lagun arteko moldeak erdarazkoak dira. Hortaz, gazteek ez dute euskara lagun artean komunikatzeko eta erdarara jotzen dute. Euskara hizkuntza akademiko gisa dute» (Santurtzi)

«Euskararen irakaskuntza eskolara mugatu da askotan, eta horrek euskarazko komunikazioan gabeziak eragin ditu. Nire ustez, idatzizkoari eman zaio garrantzi gehiago eskolan, eta ahozkoa indartu beharra daukagu, horregatik, oso garrantzitsuak dira ahozko komunikazioa lantzeko tailerrak, irakurzaletasuna lantzekoak... Erabilera jaitsi ahala, trebetasunak ere jaitsi egiten dira, eta hori nabaritu dugu gure herrian azken urteotan. Hitanoa ez dute gazte-helduek erabiltzen, adinekoengan bakarrik entzuten da eta gero eta gutxiago, eta euskalkia ere gero eta gutxiago. Gazte askok ez dute indar komunikatiboa lortu euskaraz, eta horregatik, gaztelaniara jotzen dute aukera duten guztietan» (Elgoibar)

«Euskalkia eta erabilera oso-oso lotuta daude, nire inguruan behintzat. Euskaraz gehiago egiten duten hiztun gehienek (nagusien eta gazteen artean, behintzat) bizkaiera erabiltzen dute, edo bizkaieraren formak erabiltzen dituzte lagungarri, erosoago komunikatzeko. Euskalkia ez da osagarri bat, euskara erabiltzeko ezinbesteko euskarri bat baino» (Zamudio)

«Gure herrian ahozketasunak oraindik indar handia duen arren, erdal formen hedapen larria ikusten da. Hau erdaraz mintzatzeko zailtasunak dituzten umeengan ere ikusten da, eta harrigarria iruditzen zait. Hala ere, gai honetan, erdal formak ugariagoak dira erdaraz mintzatzeko diren familien umeengan. Hitanoaren atzeraldia oso larria dela uste dut. Umeek ez dute erabiltzen» (Zeanuri)

«Eskola berez, ez da inoiz izan ahozketasunaren gotorlekua, izan ere, normalean pisua idazketan eta irakurketan jarri izan da. Ume askok euskararekin duten kontaktu bakarra eskola denez gero, argi dago, ahozkorako zailtasunak agerian egongo direla. Horri falta zaio gehitzea, eskola eremu formala dela batez ere, eta edozein hizkuntza modu egokian eskuratzeko, kontestu naturalak behar dira, elkarrekintzak sortzen diren kontestuak, eta hori da gaur egun euskarak duen gabeziarik handienetako bat inguru soziolinguistiko erdaldunenetan. Ume gazteek baliabide horien faltan, gaztelania ezinbesteko dute komunikatzeko» (Erandio)

«Euskara naturala galtzen ari da. Hori gaitasunaren eta erabileraren arteko arrakalak ekarri du, eta hori euskalkiaren eta hitanoaren galerarekin loturik dago. Ez bada erabiltzen, adierazteko freskotasuna, sortzailetasuna eta naturaltasuna galtzen du, eta hori hizkuntza hegemoniko horietatik maileguan hartzen dugu, eta horrela hizkuntza pobretzen doa» (Donostia)

«Hizkuntzak adierazteko indarra galdu du. Akademikoezia bihurtu da euskara eta ahozko komunikazioan erabiltzen ziren zenbait esapide galdu egin dira (asko eta asko emozio itzelak adierazteko moduarekin lotutakoak). Hizkuntza murriztu egin da, askotan gaztelaniara jotzen da indarra emateko eta kode nahasketa hori erabat arrunta bihurtzen ari zaigu» (Beasain)

«Orain dela 40 urte bizkaieraz hitz egin eta batuan idazten genuen, inongo arazo barik. Gaur egun, ordea, bai hitz egiterakoan zein idazterakoan umeek nahasmen handiagoa dute, eta ez dituzte ondo ezberdintzen hizkera biak. Hitanoari dagokionez, nik uste galdutzat eman beharko genukeela. Ez erabiltzeko ikasgarritasunak euskara ikasleei zailtasun gehigarri bat besterik ez lieke ekarriko eta ez gaude traba gehiago ipintzeko moduan» (Elorrio)

«Adierazkortasuna galdu da. Hitanoaren eta esaera zaharren erabilera eta ezagutza galdu diren heinean, adierazkortasuna ere galdu da» (Oñati)

«Kontua da gero eta denbora gutxiago ematen dela familiakoan artean hitz egiten. Adierazkortasuna galdutako gutxi hitz egiten delako» (Bilbo)

«Familetan ahozketasunari lotutako kontuak, asko hitz egitea, kantatzea, hizkuntza sormenari lekua egitea... uste dut ez dela oso kontuan hartzen. Eskolan, idatzizko trebetasunak garatzeari ematen zaio lehentasuna; ahozketasunari lotutako trebetasunak ez dira behar beste lantzen. Ahozko adierazmena berariaz landu ezean, kalte egiten zaio adierazkortasunari, jariotasunari, eta nekezago jolasten eta gozatzeko da euskaraz eta euskararekin» (Bermeo)


«Ahozketasunari beharbada ematen zaiona baino garrantzia eta toki handiagoa eman beharko litzaioke bai ikastetxean bai familian; bi arlo horietan ez baita hainbeste lantzen hitz egitearen kontua. Zerauzko gaztetxoek oro har ez dute euskaraz hitz egiteko arazorik, baina gata eta piperra nahi dituztenean gaztelaniazko esapideetara jotzen dute askotan» (Zarautz)

«Haurrek adierazkortasun maila onargarria lortzen dute testuingurua aldekoa denean (euskarak familian zein eskolan pisu nahikoa izan denean). Gasteizen bertan euskalkirik ez izatea ez da arazo izaten. Etxean bertan ikusi ahal dut: seme-alabak handitu, eta udalekuek kanpora ateratzen hasten direnean, orduan beste errealitate horiek deskubritzen dituzte, eta 'euren gabezien mamua' sortzen da: besteek euskalkia dute, euskara hobe egiten dute... Dena den, esango nuke fenomeno hori hasieran besterik ez dela gertatzen. Denborarekin beren 'hizkera' errebendikatu eta defendatu egiten dute» (Gasteiz)

11. Etorkizuna

Euskararen etorkizunari buruz iritzi baikorra dute herritar gehienek. Eusko Jaurlaritzak 2016an argitaratutako inkesta batek —*Euskal gizartea etorkizunaren aurrean*— galdera egin zuen zer etorkizun espero zuten herritarrek euskarari buruz, eta erantzun bat nagusitu zen: erabilerak gora egingo zuela. Euskararen etorkizunari buruzko usteetan aldea dago adinaren arabera: adinekoenak dira baikorrenak, eta gazteenak ezkorrenak.

48. grafikoa. Euskararen erabilerari buruzko iritzia (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Gurasoen artean ere positibotasuna da nagusi: bide onean ikusten dute euskararen indarberritzea. Zertan oinarrituta? Ezagutzaren gorakada nabarmendu dute batez ere: gero eta herritar gehiagok dakitela euskaraz, belaunaldi berrietan oso hedatua dagoela ezagutza, eta horrek aukera asko irekitzen dituela.

«Oso positiboa naiz. Belaunaldi berrietan, ia guztiek egiten dute euskaraz. Hemendik urte batzuetara asko nabarituko da aldaketa, hoberako» (Sestao A)

«Nik uste aurrera doala euskara. Ekimen asko egiten dira azken urteetan; Euskaraldia, esaterako. Biztanleria kontzientzia hartzen ari da, eta guraso erdaldun askok esfortzua egin dute haien seme-alabek euskara ikas dezaten. Bide onetik goazela esango nuke» (Beasain A)

«Nahiko ondo ikusten dut: gero eta gehiagok dakite» (Elgoibar A)

«Nire garaian baino hobea da egoera, eta nahiko baikorra naiz horregatik. Ume gehienek badakite euskaraz, eta oso pozgarria da hori. Herri erdaldunetan zaila da dendetan eta tabernetan euskaraz aritzea. Asko dago hobetzeko oraindik. Ikaragarri» (Sestao A+)

«Nik uste gero eta gehiago hitz egiten dela orokorrean. Familia gazte askok euskarara jotzen dute, eta eskola gehienak D ereduak dira. Beraz, nahiko optimista naiz. Bide onetik goazela uste dut» (Oion A+)

«Ez dut beltz ikusten. Salto kualitatibo handiak eman dira gure gazte garaitik, baina oraindik ere asko hobetu daiteke herritarren artean eta instituzioen aldetik» (Laudio B)

«Poliki-poliki aurrera doa. Eskolak lan asko egiten ari dira, eta uste dut hor dagoela etorkizuna, belaunaldi berrietan. Bide onetik goazela uste dut (Subijana B)

«Bide onean goaz, frustrazioak frustrazio. Aldaketa onuragarriak nabari dira. Euskaraldiak asko lagundu du: jende askoz gehiagorekin hitz egiten dugu euskaraz. Etorkizun positiboa ikusten diot herri erdaldun batean bizita» (Amurrio B)

«Gaur egunera arte bizirik iritsi bada euskara, eutsiko diogu aurrerantzean ere. Baikorra naiz etorkizunarekin. Badago jendea lan asko egiten duena euskararen alde, eta sentsazioa daukat gero eta gehiago garela» (Donostia B)

«Nahiko ondo ikusten dut. Gure garaian erdaraz hitz egiten zen kalean, eta orain askoz hobeto ikusten dut panorama. Positiboa naiz etorkizunarekin» (Urretxu B)

«Hobera doala uste dut. Ume askok ikasten dute euskara eskolan txikitatik, eta horrek esan nahi du hamarkada pare bat barru biztanleriaren zati handi batek euskara jakingo duela. Asko dago egiteko, baina bide onean doa» (Agurain X)

Etorkizuna lainopean ikusten dutenek erabileraren auziari heldu diote batez ere: ezagutza areagotu arren, euskararen erabileran ez dela egiturazko aldaketarik nabari, edo, areago, galerak ere badirela. Umeen eta gazteen erabilerak kezkatzan ditu bereziki. Beste bi motibo ere aipatu dituzte: batetik, migrazio mugimenduek izan dezaketen eragina; bestetik, gurasoen kontzientziazio falta.

«Gaizki ikusten dut egoera. Ikasten dugunok titulu bat lortzeko egiten dugu normalean, ez hizkuntzari eusteko bere horretan. Sare sozialak gaztelaniazkoak dira, eta horrek eragin handia edukiko du. Esfortzu handia egin beharko dugu egoerari buelta emateko» (Sestao A)

«Lehen uste nuen hobetzen ari zela egoera, baina orain ez daukat oso argi. Nahiko ezkor jartzen naiz ikustean umeei lagunekin dena erdaraz egiten dutela. Erakundeetatik ari dira nahiko gauza egiten, baina jendeak gehiago egin behar du, geu gara-eta gakoa» (Zumarraga A)

«Zaila da etorkizuna. Etorkin asko daude, eta horrek zaildu egiten du euskara egonkortzea, are gehiago hazkundera. Ahalegin asko egiten ari dira eskolatan eta, baina kostatuko zaigu» (Agurain A+)

«Euskaraldiak itxaropena ematen du, baina nahiko desilusionatua nago. Guraso askok D eredura bidali dituzte seme-alabak, eta horrekin nahikoa balitz bezala jarduten dute. Umeek ez dute nahiko gaitasunik euskaraz komunikatzeko» (Erandio A+)

«Gazteen esku dago euskararen etorkizunari eustea. Baina, tamalez, ez dute esfortzu handirik egiten eta ez diote erabilerari garrantzirik ematen. Gure garaian kezka gehiago ematen zigun gai horrek, baina ikusten ari naiz orain ez dagoela kezkarik. Gainera, aukera gehiago dago —zerbitzuetan eta telebistan, adibidez—, eta ez gara aprobeztatzen ari» (Sestao B)

«Laino artean ikusten dut. Ezagutza igo dela esaten den arren, horrek ez du islarik erabileran, eta horrek kezkatu egiten du. Ez dakit zein den erabilerari eusteko gakoa, eta zer egin daitekeen erabilera ezagutzarekin bat etortzeko. Etorkizun grisa ikusten dut» (Elgoibar B)

«Euskararen etorkizunerako, garrantzitsua da indar ezberdinak batzea. Etxeko transmisioa bermatzea garrantzitsua da, baina gero ez badago bermatua euskaraz bizi ahal izatea, oso zaila izango da erabilera bermatzea eta euskara hizkuntza nagusi gisa mantentzea» (Bilbo B+)

«Zail ikusten dut: euskararen erabilera jaisten ari dela ikusten dut» (Aulesti B+)

«Gris ikusten dut. Lan arloan, esaterako, zailtasunak ditut euskaraz lan egiteko, eta euskaldunek sarritan ez dute nahiko indar euskararen aldeko jarrera hartzeko. Hau da, norbaitek zailtasunak dituenean, ohitura dugu pertsona horri gazteleraz egiteko. Laneko ohitura hori bizitzako beste arlo batzuetara ere eramaten dugu» (Bermeo D)

«Etorkin asko datoz, eta horrek ez du batere laguntzen. Gainera, Interneten indar handia du ingelesak. Ahalegin handiak egin beharko dira euskara salbatzeko» (Pasaia X)

Nabarmena da urteotan aurrera egin duela euskarak esparru askotan: ezagutza nabarmen areagotu da, batik bat belaunaldi berrietan, eta eremu formalean pauso handiak eman ditu. Hala ere, azken urteetan sortu da kezka, geldialdi bat sortu ote den, batik bat erabilerari dagokionez. Egoera honetan, aurrerapauso horiek ikusita, gogoeta eskatu zaie herrietako adituei, euskararen auziari dagokionez lasaieria sortu ote den. Baietz sumatu dute gehienek: egindako urratsak nabarmentzen dituztela askok, eta uste dutela horrekin bideratuta dagoela euskararen gaia.

«Ezagutza bultzatu da batik bat, eta hauek dira ondorioak. Euskararen alde egotea asko baloratu da azken urteotan, baina ez haratago. Oso eroso izan da alde egotearen konpromisoarekin geratzea» (Etxebarri)

«Erosotasun antzeko bat sumatzen da, gazte asko gaztelaniaz aritzen dira horren kontziente izan gabe ere. Uste dute beti ari direla euskaraz eta ez da horrela, tarteka baino ez dute euskaraz egiten» (Santurtzi)

«Lasaieria gertatu da, badirudi euskararen erabilera bermatuta dagoela horrekin guztiarekin» (Elgoibar)

«Lasaieria baino gehiago, erosotasuna esango nuke, edo beharrezkoa ez izatea. Beharrezkoa izateko leku nabarmena eman behar zaio, eta horren ardura instituzioena da. Finean, euskarari inbertitu behar dute. Nola ekarri euskara zentrori konfliktorik sortu gabe? Herritarrek helduko diote hizkuntzari beharrezkoa dela ikusten baldin badute. Sentsibilizazioak zertarako balio du, hizkuntza bat ez bada beharrezkoa? Dirua xahutzea da» (Donostia)

«Badago nolabaiteko lasaieria sentsazioa. Ume guztiek euskaraz ikasten dutenaren aitzakiaz norberak lasai erdaraz egin daitekeela edo uste dute askoak» (Elorrio)

«Askok kezka bizi dute euskara erabiltzearen atzerakadak, eta beste batzuek ez dute ikusten atzerakadak: 'Euskaraz jakin arren, nik egiten ez badut ere, euskara ez da galduko'. Eskolari gehiegizko ardura eman zaio, eta esango nuke horrek hainbatetan familietan lasaieria ekarri duela: 'Eskolan egingo dute'» (Bermeo)

«Lasaitasuna badago. Askotan, gure herriko hizkuntza naturala euskara da. Orduan zer arazo dago, ba? Gure herrian orain hasi gara kezka gisara plazaratzen euskararen bilakaera» (Amezketza)

«Erlaxazioa, bai, badago Zarautzen. Gure helburua izan behar du euskara lehen hizkuntza ez duten hainbat eta hainbat euskaldun erakartzea. Belaunaldi berrietan patroia bera errepika ez dadin» (Zarautz)

«Denok presaka bizi gara, mila formazio egin nahi ditugu, eta haurrek mila kontutan trebatuta izatea nahi dugu... eta lehentasunak daude. Eta haurren eta nerabeen arloan euskara txertatu eta transmititu nahi dugun arren, hainbat kasutan haurren aldetik jarrera ezkorrak topatzen ditugu» (Añana)

Urteotan guztietan, hain justu ere, kanpaina ugari egin dituzte bateko eta besteko eragileek, herritarrak lasaierian ez erortzeko eta haiek aktibatzeko. Baliozkoak ote dira, ordea, kanpaina horiek? Ez da erraza ebaluazio zehatza egitea, kanpaina zehatz batek zenbaterainoko eragina izan duen neurtzea. Adituek sumatu dituzte hutsuneak, ordea: ohartarazi dute orokorregiak izan direla orain arteko kanpainak. Transmisioaren gaiari dagokionez, ez da kanpaina zehatz asko izan.

«Ez dut kanpainen eraginkortasunean asko sinesten, baina uste dut egin egin behar direla hor gaudela eta garrantzitsua dela adierazteko. Kanpainek ilusioa ekarri beharko lukete berez, eta beti ez da horrela gertatzen, baina ez nuke esango insentsibilizazioa ekarri dutela. Agian ez dute helburua % 100ean betetzerik lortzen, baina ez dute kontrako efektua egiten» (Santurtzi)

«Sentsibilizazio kanpaina orokorregiak egin dira. Gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina gutxi egin dira, gurasoen ohituren garrantzia azpimarratzen dutenak. Ondo bideratutako kanpainek eragina dute. Helduak erreferente direla jakinda, haiei mezu garbiak eman behar zaizkie» (Pasaia)

«Kanpainak ere ugari izan dira baina gaur egungo egoerari aurre egiteko ez da nahiko kanpainekin, jarrerak aldatu behar dira, emozioetan eragin, motibatu... eta hori ez da batere lan erraza. Etxean, bikotearen jardunean sartzea ez da batere erraza, urteetako hizkuntza ohiturak aldatzeak ahalegin handia eskatzen du» (Elgoibar)

«Gizartean sumatzen dut aldaketa. Lehen, kanpainek, edozein izanda ere, eragina izaten zuen. Gaur egun, kanpainek ez dute ahalmenik eraldaketak sortzeko» (Hernani)

«Kanpainek eragina izan dezaketela ez dut dudarik, baina eragina izateko bide egokiak jorratu behar dira. Ezin zaio gaurko gizarteari, duela 20 urteko diskurtso bera eskaini, eta askotan horretan gabiltzala argi daukat» (Erandio)

«Behar duguna ez dira hainbeste kanpaina, dakienak euskaraz egitea baino. Euskara bigarren mailako hizkuntza da oraindik ere gure gizartean, eta horrek ez du laguntzen euskaldunok gure hizkuntza uneoro eta nonahi normaltasunez erabili dezagun» (Elorrio)

«Kanpainek eragina izan dute» (Oñati)

«Kanpainek euskararen erabilera erraztuko duten neurriz eta proposamenez jantziak eta hornituak etorri behar dute» (Amezketta)

«Kanpainek oso eragin mugatua dute, hutsala ez esateagatik. Biberioaren kanpainaren modukoek zentzua zuten garai batean; orain, ez. Mezu labur eta sinpleek ez dute balio. Ez ditugu familiak konbentzitu behar beren seme-alabak euskaldunak izan daitezen, konbentzitututa daude. Ez ditugu sentsibilizatu bihar, sentsibilizatuta daude. Helburua ez da limurtzailea, baizik eta pedagogikoa: nola jokatu, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, arazoak non eta nola sortzen diren. Pedagogia sozialaren ideian sakondu beharko litzateke, eta ikusi zein diren horretarako tresna egokiak» (Gasteiz)

Nondik jo, adituek uste dute badela garaia pauso handiagoak emateko eta eskatzeko, harago jotzeko. Batetik, familiei mezu argiak eman behar zaizkiela: transmisioaren garrantziaz ohartarazi behar direla garaiz, eta erakutsi behar zaiela ez dela nahikoa seme-alabak euskarazko eredueta bidaltzea. Bestetik, ordea, azaldu dute familiei aukerak jarri behar zaizkiela urratsak egiteko: beste ikusgarritasun bat behar duela euskarak, eta euskaraz bizitzeko aukera bermatu egin behar dela.

«Seme-alabak D ereduan matrikulatzen dituztenean, gurasoei argi eta garbi esan behar zaie haiek ere ahalegin bat egin behar dutela. Ahalegin hori euskara ikastetik has daiteke, eta euskal kulturaren seme-alabak heztearen konpromisoarekin jarraitu...» (Etxebarri)

«Gurasoentzako diskurtso bat asma dezakegu, baina gero esaten den hori gauzatzerik ez bada, entrenatzaileak gaztelaniaz egiten duelako, euskal zinematik ematen ez dutelako herriko antzokian, liburutegian dauden euskarazko liburuak zaharkituak direlako... Gurasoek esango dute: 'Nola? Aukerarik ez dago, beharrik ez'» (Ermua)

«Haurdunaldia hasten denetik hasi beharko litzateke. Alegia, Osakidetzan ematen diren haurdunaldi aurreko ikastaro horietan euskararen transmisioaz aritu behar zaie familiei. Bidea hasi baino lehen eskatu behar zaie familiei hizkuntza ohiurak alda ditzaten seme-alabei aukeraz beteriko mundua eskaintzeko. Folklorismoetatik harago, euskara bizitzeko hizkuntza dela erakutsi behar zaie familiei» (Getxo)

«Familia tipologiaren arabera neurri desberdinak sustatu behar dira. Familia euskaldunetan gurasoen arteko hizkuntza euskara izan dadin bermatu behar da. Guraso erdaldunen kasuan haurren motibazioan eragin behar dute, mezu positiboak transmitituz. Familia mistoetan, dakienak egin eta ez dakienak motibatu» (Pasaia)

«Eskolarekin nahikoa ez dela jakinarazi behar zaie gurasoei argi eta garbi, eta euren seme-alabak euskaraz hartzun oso izatea nahi badute, etxean eta eskolaz kanpoko jardueretan ere, motibazioa landu behar dutela adierazi behar zaie, eta eskola eta gu (administrazioa, euskara elkarte...) laguntzeko prest izango gaituztela. Eta elebidun izateak hirugarren hizkuntza bat ikasteko erraztasunak eskaintzen dituela aditzera eman behar zaie adituen bidez edo... Elebitasunak abantailak ekarriko dizkiela euren seme-alabei etorkizun hobeagoa izan dezaten» (Elgoibar)

«Instituzionalki askoz gehiago bermatu beharko litzateke euskaraz bizi ahal izateko aukera. Pribatuetatik (dendak) hasita, zerbitzu publikoetatik jarraituz» (Zeanuri)

«Euskara lehenesteko mezu egokiak landu beharko lirateke kontuan hartuta, batetik gaur egun gizartean dauden diskurtso eta errealitate desberdinak (mezu berak ez du denetarako balio, mezu egokituak behar dira ezinbestez), eta bestetik ezagutza zientifikoak oinarritu behar dira mezu horiek eraginkorrak izateko, eta horretatik asko falta dugula esango nuke» (Erandio)

«Ahalmen nazionala duten egitasmoak behar dira. Eragingo dutenak beherago. Egitasmo horiek probatuta egon behar dira, ikertuta eta emaitza positiboekin. Ziurtasuna eman behar dute. Guraso gehiagok transmitituko diete euskara umeei ikusten dutenean gizartean funtzionala dela, beharrezkoa dela, prestigio duela, pertsona erreferenteek erabiltzen dutela, euskararik gabe ezin dela leku guztietara joan. Neurri transbertsalak behar dira. Eta neurri horiek hartzeko ahalmena duten entitateek hartu behar dituzte» (Agurain)

«Ikastolak sortu zirenean erabaki garrantzitsu bat hartu zen: euskaraz izango zirela (D eredua). Inork ez zuen zalantzan jarri hori, eta horren fruituak orain jaso ditugu: gaitasuna asko handitu da. Horrelako erabakiak behar ditugu, ausartak, eta beharrezkotasun hori gizarteari transmititzeko balorea izan. Euskara balioan jarri, benetan. Beste hizkuntzen gainetik, konplexurik gabe. Mezu hori herritarrei helarazi behar zaie, konfliktorik sortu gabe. Uler dezatela benetan hizkuntza gutxitu bat ez galtzeko behar duen leku hori eman behar zaiola, eta ez dela besteak baino garrantzitsuagoa izateko, baizik eta bizi irauteko neurri bat. Hori gauzatzeko bideak landu behar ditugu, eta denok batera helburu horri begira jarri. Elebitasunaren orekatuaren mezua gaingitu behar dugu» (Donostia)

«Euskararen transmisioa ziurtatuta dago, ez, ordea, familiako hizkuntza bilakatzea. Zer mezu eman behar dira euskara lehenesteko? Familiako hizkuntza transmisioan eragiteko, zer neurri sustatu beharko lirateke? Horixe da jakin nahiko genukeena» (Zarautz)

«Maila guztietan indartu egin beharko litzateke transmisioa: diskurtsoaren aldetik, eskolaren eta familien arteko harremanetan, haur eta gaztetxoek kontsumitzen dituzten kultur produktuetan, kirol eta aisialdiko jardueretan, telebistako programazioan...» (Bermeo)

B atala:

Kontakizun pertsonalak

Hizkuntza transmisioaren inguruko gai nagusiak aztertu dira aurreko atalean, ikerketa honetarako egindako elkarriketak (telefono bidezkoak), familien herrietako informatzaileen ekarpenak eta zeharkako informazio iturrietako datuak uztartuz. Familia tipologia batetik bestera nolako aldea dagoen azaleratu du azterketa horrek.

Euskararen transmisioaren bilakaera kontuan hartuta, dibertsifikatu egin dira familia tipologiak, gurasoen euskara ezagutza eta lehen hizkuntza kontuan hartuta. Horrekin batera, diferentziak eragiten dituzte beste faktore batzuek ere: bizitokiak, inguruak eta guraso bakoitzaren hizkuntza biografiak, adibidez. Horretan sakontzeko egin dira aurrez aurreko elkarriketak ikerketa honetarako. Horien berri jaso da atal honetan, tipologiaren arabera ordenaturik.

Ohartarazi beharra dago solaskideen adierazpenak euren ahoko hizkera errespetatuz emateko ahalegina egin dela, hizkera horrek berak transmisioaren azterketarako informazio osagarria eman dezakeelakoan.

D tipologiako familiak

Bi gurasoak euskaldun zaharrak —edo jatorrizko elebidunak— dira familia tipologia honetan; euskara izan dute lehen hizkuntza 3 urte bete baino lehen jaso —kasu gehienetan etxean jaso dute, gurasoengandik—. Euskara bakarrik jaso dute kasu batzuetan; beste batzuetan, gaztelaniarekin (edo beste hizkuntza batekin) batera.

Familia tipologia horrek ematen du bermerik handiena euskararen transmisioari dagokionez. Euskara lehen hizkuntza izan duten euskaraz egin ohi dute haurrekin, eta probabilitatea handia da euskaldun zaharren artean bikoteko hizkuntza euskara izateko. Seme-alaben erabilerak ohituretan eragiten du horrek, familia eremuan behintzat. Etxetik kanpo, inguru soziolinguistikoak baldintzatzen du euskaraz normaltasunez bizitzeko aukera. Edozein kasutan, euskararen transmisioak eta etxeko erabilerak, berme handiak dituzte familia tipologia honetan.

Denek transmititu dute

D tipologiako familia guztiek baieztatu dute seme-alabei euskara transmititzea hautu «*naturala*» izan zela, ez propio egindako gogoeta baten emaitza. Nahiz eta testuinguru soziolinguistikoak eta gurasoen biografia linguistikoak guztiz ezberdinak izan kasu batetik bestera, denek transmititu dute euskara.

Asteasuko familiako ama handik gertu jaioa da, Villabonan. Familiak gain, inguru «erabat euskalduna» izan du: «Txiki-txikitatik, etxean euskaraz, ikastolan ere bai; lagunartea erabat euskalduna izan det eta ibili naizen saltsa guztian oso euskaldun giroan ibili naiz: bertso eskolan, palan, futboleak, soinuak eta panderoak jotzen...». Horregatik, neurri handian, zailtasun handiagoak eduki izan ditu beti gaztelan aritzeko, euskaraz aritzeko baino: «Euskaraz moldatu izan naizelako nere bizitzako arlo denetan. Eta oso-oso gutxitan kointziditu izan dudalako erdal giroekin». Bikotekidea lezoarra du, emakume euskaldun zaharra, eta bera bezala, euskal giroan ibilitakoa.

Erandioko familiako gurasoak, aldiz, inguru erdaldunean hazitako euskaldun zaharrak dira. «Nire gurasoak euskaldunak dira biak, eta etxean beti euskaraz hitz egin dugu», azaldu du aitak. Goierrin jaioa da, Erandioko landa eremuan: «Erandio asko hazi da, eta gaur egun hirigunea dena eta Astrabudua auzoa oso erdaldunak dira. Kanpotik etorritako jendea da biztanleriaren %90. Nekazal gunea ere kutsatu egin da». Bikotekidea Arrigorriagan hazi zen, eta gurasoekin euskaraz egin izan du beti, nahiz eta argitu duen haien artean gaztelan hitz egiten

zutela askotan. D ereduan ikasiagatik ere, lagunekin gaztelaniaz egin izan du urteetan. Denborarekin, zenbait ohitura aldatzea lortu du: «Orain nahikorekin hitz egiten dut euskaraz». Bikoteko harreman hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hasieratik.

Hortaz, testuinguru soziolinguistikoko erdaldunenetan ere baldintza egokiak ematen ditu bi gurasoak euskaldun zaharrak izateak. D tipologiako gurasoek euskaraz hitz egin ohi dute hurrekin, ez zaielako besterik ateratzen.

«Ez gendun erabaki: umiai euskeraz egingo dotzagu. Guk ez gendun egiten gure artian erdaraz berba»

LEKEITIO-D

«Gu ohituta gauz; jaio garenetik, gure bizixa euskeraz da. Taberna, erosketak, kalia, harremanak, dana euskeraz da. Ta orduan ez gendun erabaki: umiai euskeraz egingo dotzagu. Guk ez gendun egiten gure artian erdaraz berba», argudiatu du Lekeitioko familiako amak. Bikotekidea ere lekeitiarra du, familia eta ingurune euskaldunean hazitakoa.

«Alabak ez daki erderaz. Gauza batzuk ulertzen ditu, eta berari iruditzen zaio erderaz egiten duela, baina asmatu egiten du»

AGURAIN-D

Soziolinguistikoki, Agurain ezin da Lekeitiorekin parekatu. Euskararen ezagutza eta erabilera askoz baxuagoak dira Arabako Lautadan. Bertako familiako gurasoek, ordea, euskara dute bikoteko hizkuntza. Eta euskara besterik ez dute transmititu etxean: «Alabak ez daki erderaz. Gauza batzuk ulertzen ditu, eta berari iruditzen zaio erderaz egiten duela, baina asmatu egiten du». Ama Agurainen jaioa bada ere, urretxuarrak ditu gurasoak. Bikotekidea beratarra da.

Gaztelania, bigarren hizkuntza

Horiek horrela, D tipologiako familietako hurrek bigarren hizkuntza izaten dute gaztelania. Kasu batzuetan, eskolan edukitzen dute gaztelaniarekiko lehen harremana; beste batzuetan, senide edo gertukoren baten eskutik. Eta gero eta gehiago, komunikabideen edo teknologia berrien bitartez. Edozein kasutan, seme-alabek gaztelania egoki ez ikastea gero eta gutxiagotan izaten da kezka iturri D tipologiako gurasoen artean.

«Oain eskatu iten digu noizean behin erderaz hitzein diezaigun. Bere gelako askok dagoeneko badakitelako erderaz, beharbada soltura handiak hitzein ez arren. Guk esaten diogu lasai egoteko, guk ere ikasi gendula eta beak ere ikasiko dula», azaldu du Asteasuko amak. Izan ere, Lehen Hezkuntzako lehengo mailan, gaztelania lantzen hasten dira eskolan. «Nere ustez, erderaz jakin behar dute, eta ondo jakin behar dute. Baina oaindik txikik die, eta ez dago inongo presarik», aipatu du Tolosako familia bateko aitak. Bigarren ideia indartu du bikotekideak, hain zuzen: «Ikasiko dute, badakit sartuko zaiela». Tolosako familiako jada hurrek hasi behar izan dute noizbehinka gaztelaniaz komunikatzen, ikaskideen artean euskaraz ondo moldatzen ez direnak edo erabiltzeko ohiturarik ez dutenak ere badaudelako.

«Eskolan irakasleak eta langileak ere euren artean gaztelaraz hitz egiten entzuten dituzu»

ERANDIO-D

Erandion, berriz, gaztelania da neska-mutilen ohiko harreman hizkuntza. Jolastokian ez ezik, baita ikasgelan ere. D ereduko eskola izan arren, giroa «oso erdalduna» dela baieztatu du aitak: «Eskolan irakasleak eta langileak ere euren artean gazteleraz hitz egiten entzuten dituzu». Giro horrek eragin geldiezina du haurrengan. Momentuz, amak dio efektua ez dela etxera iritsi, baina bai lehen euskarazkoak ziren beste harreman batzuetara: «lurretako lehengusuekin, adibidez. Izeko-osabekin euskaraz egiten jarraitzen dute. Baina umeekin ohiturak aldatu dituzte, eta gaztelerara pasatu dira, nahiz eta denak gazteleraz ikasi berriak izan eta gazteleraz oso trakets egin».

Aguraingo amak ondo daki zer den etxeko hizkuntza euskara izanda eta D ereduan ikasita ere eskolan eta lagunartean erdara betean aritzea: «Nere oroitzapena da umetan eskolan erderaz egiten genuela. Ikaskideen artean erderaz egiten genuen, eta kuadrillako hizkuntza beti erdera izan da». Jakin badaki, Agurainen euskararen ezagutzak hazkunde handia izan duen arren, alabak gaztelaniaz edukiko dituela harreman asko eta asko: «Gelan bizpahiru dira euren artean euskaraz aritzen direnak».

Lekeitioko eskolan ere gero eta gehiago dira guraso erdaldunak dituzten haurrak. Baina euskaraz azkar ikasten dutela baieztatu du Lekeitioko familiako amak. Azaldu duenez, hala ere, alabaren gelako hizkuntza euskara den arren, beste gela batzuetan zenbaitek erdaraz aritzeko joera hartu dute: «Daukezen atzerritarrak dira oso txikitxatik etorritakoak eta eitxen dabenak euskeraz. Baina beste gela batzutan umiak joera dauke erderaz eitxen dabenari erderaz eitxeko. Ez orokorrian, baino badaoz holango kasu batzuk».

Seme-alabek jaso duten euskara

Gurasoen euskara jaso dute D tipologiako familietako hurrek. Kasu batzuetan eskolako eta kaleko berbera. «Niri gustaten jat batua bebai, baina nik uste dot herri bakotxak bere euskalkixa zaindu beharra dala, argi eta garbi», argudiatu du Lekeitioko amak. Euskalkiaz gain, kantuak transmititzeko ahalegina egin duela aipatu du: «Lekitxo da herri bat antzinako kanta asko daukozena, itsasuaz lotutako kanta asko, ta saiatzen gara kanta horrek generazinoz generazino transmititen. Ta kanta horretan agertzen dizen berba asko bebai».

«Lazkao Txiki eztue ulertzen. Ta umorea da, baina ezta umore zuzena, zeharkakoa da, ironia da»
ASTEASU-D

Asteasuko amak gabezia handia ikusten du gazteengan, ahazkotasunari eta etorriari dagokienez: «Lazkao Txiki eztue ulertzen. Ta umorea da, baina ezta umore zuzena, zeharkakoa da, ironia da. Hiztegi aldetik ere, oso-oso mugatuta ikusteitutu». Horrekin lotuta, uste du eskolak ez ezik familiek dutela erantzukizun handia, batez ere gero eta gutxiago hitz egiten delako etxeetan. Iruditzen zaio eragin handia duela horrek: «Gurasoek seme-alabekin zenbat hitzeitedeu? Gure alaban gelan hiru bakarrik dia etxera etortzen dianak bazkaltzera. Ta emateu txorakeri bat dala. Baina hor egoteia zortzi ordu, ta geo dantzara o solfeora o futbolera dihoaz. Guk umeekin oso denbora gutxi konpartitzedeu».

Antzeko iritzia dauka Aguraingo familiako amak. Bereziki gune euskaldunei erreparatu die: «Kezkatzen nau erabilerak, baina baita kalitateak ere. Uste dut kasu batzuetan gutxiago hitz egiten dela, edo ez behar beste, baina, gainera, ez dela ondo hitz egiten». Gogora ekarri du bere gurasoek zer ahalegin zuten ondo hitz egin zezan, bai

euskaraz, bai gaztelaniaz. Orain ez du halakorik ikusten inguruan: «Dakienak ez zait iruditzen nahikoa ahalegin egiten duenik zuzen eta aberats hitz egiteko eta transmititzeko. Hor galtzen ari garena ez dugu berreskuratuko. Batzuek euskara ikasteko erronka daukate aurretik. Baina badakigunok beste erronka batzuk jar diezazkiokegu geure buruari. Eta ez dizkiogu jartzen».

Euskaldun petoak, erdara batean

Gaztelaniarako joera ez da gune erdaldunetako kontua soilik. Arrazoiak eta ondorioak, dena den, ez dira berdinak toki batetik bestera. Asteasun 10-12 urterekin hasten direla azaldu du amak, nahiz eta ez diren gaztelaniaz ondo moldatzen: «Parregarri iteue». Imitaziotik hasten direla aipatu du, futbolean ari direnean edo zenbait jolasetan, adibidez: «Nik uste ez dutela sinisten euskarak badakanik grazirako aski gaitasun edo. Adibidez, insultorako esapide denak erderaz dia, eta gainera pentsatu gabe ateatzen zaizkie. Eta behin ia esaldi horrekin arrankatzeutenian, arriskua dao konbertsazio normal batean berrize erdarakin seitzeko».

«Bajatzen daben aplikazinoak, ikusten dabezen bideuak eta horrek gauzak, behin edade batetik aurrera, danak dira erderaz»
LEKEITIO-D

Nolanahi ere, 14-15 urterekin berriro euskarara itzultzen dira, Asteasuko familiako amak dioenez. «Oso sustraituta daukatenak bueltatzen dia, beaien hizkuntza euskara dalako eta ondo hor sentitzen dialako. Nik uste herri txikiak badula horren kulp, zentzu onian». Lekeition ere antzeko joera nabari dute. Sakelako telefonoaren eragina azpimarratu du Lekeitioko familiako amak: «Bajatzen dabezen aplikazinoak, ikusten dabezen bideuak eta horrek gauzak, behin edade batetik aurrera, danak dira erderaz. Jesarten dira banko baten eta egoten dira, bakoitza bere mobilaz eta erderaz berbetan, ikusten dagozena erdaraz dalako».

Gaztetxoen artean soilik ez, adinekoen artean ere entzun du gaztelaniarako joera: «Bizi guztiko lekitxarrak, peskaderixan itxoten, eta erdaraz. Erdaraz be ez dakixe ixa». Euren diskurtsoari indarra emateko modu gisa ikusten dute, Lekeitioko amaren esanetan. Aguraingo familiako aita ere kritikoa da hainbat euskaldun zaharren artean ikusten duen «lasaikeriarekin». Haren jaioterrian, Beran, euskararekiko «komodo» bizi direla uste du: «Jende aunitzek, nahiz ta denak euskaldunak izan, erderaz egiten dute. Erdaldunak egonda, batez ere, euskaldunak erreztiratzten du erderara. Nere gurasoen adinekoen artean erdaraz egiteko ohitura handia dute».

«Esango nuke arnagune askotan akomodatuak daudela, ez dutela arriskurik ikusten, ezta egin beharrik ere»
AGURAIN-D

Agurainekin alderatuta, Beran probabilitatea handiagoa da kalean euskaraz eginda erantzuna euskaraz jasotzeko, baina aitzak azaldu du Berako kaleetan ez dela batere arraroa euskara entzutea. Areago, borondate eta ahalegin aldetik, osasuntsuago ikusten du euskara Agurainen: «Esango nuke arnagune askotan akomodatuak daudela, ez dutela arriskurik ikusten, ezta egin beharrik ere. Periferian mugimendu handiagoa dago. Gutti dakiena ere saiatzen da ahal duena egiten».

B + tipologiako familiak

Gurasoetako bat euskaldun zaharra —edo jatorrizko elebiduna— da; euskara lehen hizkuntza izan du. Euskara bakarrik jaso du, edo gaztelaniarekin (edo beste hizkuntza batekin) batera. Bestea euskaldun berria da; euskara ez du etxean jaso, eta gerora ikasi du, eskolan edo euskaltegian.

Tipologia honetako familietan ia ziurtatua dago euskararen transmisioa, hizkuntza belaunez belaun igarotzea. Seme-alabek euskara dute lehen hizkuntza: euskara bakarrik, edo, kasu askotan, gaztelaniarekin batera. Lehen hizkuntza euskara dutenen zakuan egongo dira, beraz. Besterik da euskararen erabilerarekiko atxikimendua. Hasteko, etxekoa. Alde horretatik, eragin handia du guraso euskaldun berriak lortu duen mailak: altua baldin bada, probabilitatea handia izango da seme-alabekin ez ezik bikotekidearekin ere euskaraz aritzeko. Dena den, tipologia honetan, askotan, maila hori lortu ahal izateko eskolarik onena, laguntzarik edo motibaziorik handiena, bikotekidea bera izan da. Harremana euskaraz sortu delako, edo bikotearen eraginez euskarara lerratu delako.

Euskara transmititu dute

Zarauzko B+ familian, ama arrasatearra da. Guraso erdaldunak ditu. Eskola eta ondorengo ikasketak gaztelaniaz egin zituen, eta herriko lagunak ere erdaldunak ditu. Euskaltegian hasi zen euskara ikasten. Baina gerora asko landu du. «Gehienbat bikotekidea ezagutu nuketik». Gaur egun, laugarren hizkuntza eskakizuna dauka, eta administrazioan lan egiten du.

«Umeak ikustebadue gure artian euskaraz iteula, bai gure artian ta bai beaiekin, irudituko zaie normala dala euskaraz eitia. Beaiak e naturaltasunez harukoue ta lagunekin ere horrela egingo due»
ZARAUTZ-B+

Bikotekidea euskaldun zaharra da, zarauztarra. A ereduari egin zituen ikasketak, gurasoek erabakita, gaztelaniaz ikas zezan. Baina ikasgelatik kanpo euskaraz egiten zuen lagunekin, eta euskaraz egin izan du inguruko gehien-gehienekin. Gizonak gogoratzen du bikote harremana «erdi euskaraz erdi erdaraz» hasi zela. Baina harremanean aurrera egin ahala, euskarara jo zutela. Zarautzen bizitzeak ere eragina izan zuen: «Hona etorri ginan, eta hemen nere inguru dana nola euskaraz iteginun, bide hori hartu ginun». Alaba jaiotzerako, euskarazkoa zen bikoteko harreman. «Alaba jaio baino lenotikan ia euskaraz iteginun, ta hala jarraitudeu». Amak uste du euskararen transmisiorako funtsezkoa dela bikotean euskaraz naturaltasunez egitea: «Umeak ikuste badue gure artian euskaraz itedeula, bai gure artian ta bai beaiekin, irudituko zaie normala dala euskaraz eitia. Beaiak e naturaltasunez harukoue, ta lagunekin ere horrela egingo due».

«Gasteiztik hona alde izugarria dao. Nik han pentsatzenun euskaraz bizinitzela. Hona etorri ta, kao, harategi batea jun eta xerra batzuk euskaraz eskatzea. Sekula, nere bizitzan ez tet ein»
AMEZKETA-B+

Amezketako B+ tipologiako familian ere ama da euskaldun berria askoz herri erdaldunago batean jaioa, gainera. Gasteiztarra da, eta gaztelania du lehen hizkuntza. «Amaren gurasoak Garagartzakoak ziren, Arrasateko auzo batekoak. Baina Gasteizera bizitzera joan zirenean, amari ez zioten euskara transmititu».

Gasteizko ingurua erabat erdalduna du; bikotekidea, berriz, amezketarra, Ugarte auzoan jaioa. Haren jaiotetxearen parean bizi dira gaur egun. «Gasteiztik hona alde izugarria dao. Nik han pentsatzenun euskaraz bizi nitzela. Hona etorri, ta kao, harategi batea jun eta xerra batzuk euskaraz eskatzea. Sekula nere bizitzan ez nun ein. Esparru batzuk baneuzkan nere bizitzan euskara etzana sartzen. Eta hemen, bai. Etzait okurrizten nun eztan sartzen. Hemen hipoteka ere euskaraz sinatugenun». Bikoteko harreman hizkuntza euskara izan dute beti, eta gaur egun, kalekoa bezala, etxeko hizkuntza ere euskara da.

Aurreko bi kasuetan, euskaldun zaharra gizonezkoa da, inguru oso euskaldunean hazia. Ez dirudi, ordea, familia tipologia honetan bikoteko euskaldun zahararen sexua edo jaiolekuaren ezaugarri soziolinguistikoak erabakigarriak direnik.

Laudioko B+ tipologiako familian, esaterako, ama da euskaldun zaharra, Laudion jaioa. B+ tipologiaren ezaugarriak betetzen zituzten, gainera, haren gurasoek ere: aita, euskaldun zaharra, bizkaitarra, Txorierrikoa; ama Palentziatik etorritako familia batean jaioa, 19-20 urterekin euskaldundua. Lehen hizkuntza euskara izan zuen, beraz, Laudioko familiako amak. Etxeko hizkuntza ere bai, baita akademikoa ere. «Gaztelaraz ikastolan ikasi nuen, ikastolako patioan eta lagunartean». Laudioko testuinguru soziolinguistikoaren argazkia da hori. Ingurune erdaldunean bizi bada ere, euskararekiko harreman estua izan du beti: «Nire lana ere euskararekin lotutakoa izan da beti. Irratigintzan ibili naiz, kazetaritzan. Eta, orain, irakaskuntzan».

«Egia da euskaraz eta erdaraz bizi garela, depende zeinekin, harreman batzuk erdaraz ere baditugulako. Eta gainera, naturalena, jende gehienarentzako, erdaraz erlazonatzea delako»

LAUDIO-B+

Bikotekidea ere Aiaraldea eskualdean jaiotakoa da, Tertangan, Burgosko mugatik oso gertu, Amurrio udalerrian. Euskaldun berria da, baina euskaraz ezagutu zuten elkar, eta harremana beti izan da euskarazkoa: «Bikote harremana hasi baino lehen ere, ezagutu ginenean euskaraz sortu zen harremana. Beti izan da euskarazkoa». Are gehiago, etxetik kanpo ere euskaraz bizitzeko ahaleginak egiten dituzte, nahiz eta konplikatu izan haien inguruan: «Gure ingurunea erdalduna da, eta ez da erraza euskaraz bizitzea. Egia da euskaraz eta erdaraz bizi garela, depende zeinekin, harreman batzuk erdaraz ere baditugulako. Eta, gainera, naturalena, jende gehienarentzat, erdaraz erlazonatzea delako».

Bilboko B+ tipologiako familian, aita da euskaldun zaharra, Lasarte-Orian jaioa. Arbasoak Tolosaldekoak ditu, landa eremuak, baina industrian lan egitera lekualdatutakoak. A eremuan ikasitakoa da, eta auzoan euskaraz zein gaztelaniaz aritzen zirela gogoratzen du. Azaldu du kulturarekiko interesak lotu zuela euskarara, eta gerora, lanak ere bai, euskalduntze-alfabetatzean aritu baita, batez ere. Euskaltegian ezagutu zuen bikotekidea, hain zuzen. Bilbon jaiotako emakumea da, gurasoak eta inguru gehien-gehiena erdaldunak dituen. Eskolan ere gaztelaraz aritu zen, eta helduaroan hasi zen euskara lantzen. «Lana izan zen eskara ikasten hasteko motibazioa. Profil bat ateratu nuen, eta hortik aurrera serioago hasi nintzen». Haren motibazio nagusia aldatu egin da, ordea: «Familiarekin eta haurrekin hobeto hitz egiteko nahi dut gaur egun». Euskaltegian euskaraz ezagutu zuten elkar, eta euskaraz garatu dute bikote harremana.

Bikoteko hizkuntza ez da beti euskara

Orain arte azaldutako kasu guztietan, etxeko hizkuntza eta bikotekoa euskara da. Tipologia honetan, alabaina, badaude seme-alabekin euskaraz egin arren bikotean gaztelaniaz egiten duten gurasoak. Kasu horietan, gurasoen arteko harremana gaztelaniaz sortu da, eta seme-alabak jaiota ere, ohitura aldaketak ez dira sakonak izan. Segidan aurkezten diren bi kasuetan, aurrekoetan ez bezala, bikoteko euskaldun berriaren gurasoak Espainiako lurralderen batean jaiotakoak dira.

Beasaingo B + tipologiako familian, aita da euskaldun zaharra. Gurasoak Tolosaldekoak ditu, Alegia eta Villabonakoak. Etxean euskaraz egin izan du beti, eskolan ere bai, eta gaur egun, euskaraz aritzen da lanean, neurri handian behintzat. Amak, berriz, gaztelania izan zuen lehen hizkuntza, A ereduari ibili zen eskolan eta ikasketak Zaragozan egin zituen. Euskaltegian ikasi du euskara, eta gaur egun ondo moldatzen da. «Normalean bostok gaudenean saiatzen gea euskaraz hitz egiten. Haurrekin normalean euskaraz. Bikotean gehienetan erdaraz; nik erdararako joera handia daukat. Baina esango nuke haurren eraginez gure artean euskara gehiago egiten dugula». Gehiago bai, baina oro har, gaztelania dute bikoteko hizkuntza. Seme-alabek baieztatu dute hori.

Oñatiko B + tipologiako familian, amak lehen hizkuntza izan du euskara, baina ez euskara bakarrik. Are gehiago, gaztelania gailendu izan da haren etxean, onartu duenez: «Txikitatik bi hizkuntza jaso ditut, euskara eta erdera: aitakin euskaraz eta amakin erderaz. Amakin gehixi bizi izan naiz, eta orduan erdaraz gehixi eiten nuen etxian». Ikastolan ibili zen, eta txikitako lagunekin euskaraz aritzen zen. Gaur egun ere eusten dio ohitura horri: «Txikitako lagun hoiei etzat urtetan erdaraz etia». Nerabezaroan sartuta, aldiz, beste lagun batzuk egin zituen, eta hor gaztelania gehiago sartu zen: «Gaur egun nahastu asko itedou. Esaldi baten askotan dana sartzedou».

«Nere etxian oin, bi ume txiki dakotela, normalean euskeraz. Batzutan igual erdaraz zoze sateu baina normalian euskeraz. Eta bikotiakin erderaz, baina umiak egoten badia aurrean, euskeraz»
OÑATI-B+

Bikotekideak gaztelania izan zuen lehen hizkuntza. Eta ikastolan ikasi duen arren, gaztelaniaz egiteko joera handia du. «Familiak erdaraz dana. Lagunekin badeko taldetxo bat erderaz iteotena eta euskaraz bestea». Bikoteko hizkuntza gaztelania dute, nahiz eta guraso izateak eraginaren bat eduki duen, batez ere, haurrak aurrean baldin badaude: «Nere etxian oin, bi ume txiki dakotela, normalean euskeraz. Batzutan igual erdaraz zoze sateu baina normalian euskeraz. Eta bikotiakin erderaz, baina umiak egoten badia aurrean, euskeraz».

Erdara sartzen da etxean

B+ tipologiako familia guztietan senide erdaldunak dituzte, eta hurrek txikitatik identifikatzen dute norekin egin behar duten euskaraz eta norekin erderaz. Normaltasunez pasatzen dira hizkuntza batetik bestera. «Igual etxian gaude, da nerekin ai da euskaraz, da amona ikusteu da erdaraz iteio, da geo nei segidan euskaraz esateit», azaldu du Zarauzko familiako aitak. Oñatiko familiako amak ere horixe ikusi du: «Nere amak erderaz iten baixau, erdaraz erantzutexau. Klaru dauko zeinekin erderaz ta zeinekin euskeraz».

Hortaz, familien bidez gaztelania sartzen da B+ tipologiako familietan. Baina komunikabideen eta teknologia berrien bitartez ere bai. Oro har, gurasoek uste dute txikienentzako marrazki bizidunetan nahikoa dela euskarazko eskaintza. Adinean aurrera egin ahala, ordea, gaztelaniazko eta beste hizkuntzetako aukerak erakargarriagoak egiten zaizkie. «Badaude marrazki bizidun batzuk erdaraz ta euskaraz daudenak, ta euskaraz ikusteitu. Baina beste batzuk eztaude euskaraz, eta erdara jotzen du. Pelikulak, zinea-edo bai motza geatukozaiola. Euskal zinea, ikusiuna, ba marrazkik etzaizkio horrenbeste gustatu», adierazi du Amezketako familiako aitak.

Alabak ikusten duena zaintzen ahalegintzen direla baieztatu du Amezketako familiako amak: «Gurasoek jakin behardeu hurrek ze ikusteuten. Eta momentuz euskarazkoa da gehien bat ikusten duena. Problema gehio egon daiteke, adibidez, Youtuben, utziz gero. Pirritx eta Porrotx jarrikoitu, baina hirugarrengoa ia salto ingou eztakizertara». Audioko amak ere ahalegina egiten du zentzu horretan: «Irratia jartzekotan, euskaraz izaten da; musika ere bai. Liburuak eskaintzen baldin badizkiogu, euskarazkoak dira normalean, eta gaztelaniazkoak baldin badira, euskaraz kontatzen dizkiogu».

«Telebista saiok ta hola gehiengo erderaz ikusteitugu, ta musika ere oso gutxi euskeraz. Gehiengo erderaz o inglese»
BEASAIN-B+

Adinean aurrera egin ahala, ordea, euskarazko edukiak gero eta atzerago geratzen dira gaztetxoek aukeren rankingean. Beasaingo 15 urteko alabak argi aitortu du: «Telebista saiok ta hola gehiengo erderaz ikusteitugu, ta musika ere oso gutxi euskeraz. Gehiengo erderaz o inglese». Oñatiko amak ere gabezia handiak ikusten dizkio euskarari, alde horretatik: «Youtubeko kontua bebai... Hor erdara tope dau. Euskaraz nahiko contenido gutxi dau. Netflix, HBO... Hor ez dauko kabidarik euskerak. Nik uste horrek be influentzia dakola».

Eskolan aldeak ingurune batetik bestera

Etetik kanpo, eskola da haurren sozializazio gune nagusia. Alde horretatik, diferentzia handia da, zentroaren arabera, baina batez ere, familien bizitokiaren arabera. Gipuzkoako lau herrietan (Oñati, Beasain, Amezketa eta Zarautz) azaldu dute oro har euskara dela haurren hizkuntza eskolan; ikasgelan ez ezik, jolastokian ere bai. Nolanahi ere, Oñatiko eta Zarauzko familiek ikastolan matrikulatu dituzte haurrak, eta uste dute eskola publikoan gaztelania gehiago entzuten dela haurren artean. «Ilobakin gertatzea, eskola publikoan. Igual gelan dazke sei erdaldun, ta azkenean denak erdaraz hitzeiteue. Horrek atentzioa deitzeit. Hauek alderantziz iteue. Haur danak euskaldunak dia, ta danak euskaraz iteue». Oñatiko amak ere iritzi bera du: «Nik uste eskola publikoan erdaraz gehixau iten dala. Ezakit dan kanpotar gehixau daudelako, baina erdara gehixau entzun iten da, patixotan ta».

«Oro har, ez zait iruditzen derrigorrezko hezkuntza amaituta hurrek euskara maila on bat edukiko dutenik. Gure kasuan bai, etxean egiten duelako. Baina bestela, ez»
BILBO-B+

Laudion eta Bilbon, berriz, eskola edozein delarik ere, ikasgelatik kanpo «erdara batean» aritzen direla baieztatu dute familiek. Hara Bilboko familiako aita: «Zentro moduan, gurean badago kezka bat, eta lantzen dute euskararen gaia. Baina irakaslearen esku ere badago asko. Eta batzuen kasuan, euskara maila nahiko apala da». Audioko ama irakaslea da eskola publikoan, baina ados dago Bilboko aitaren baieztapenarekin: «Iruditzen zait euskaraz maila

eta modu ezberdinetan egiten duen jendea egon behar dela irakaskuntzan. Baina minimo batzuk zaindu behar dira, ematen dugun eredu askotan ez delako egokia izaten. Agian batzuk behartu beharko lirateke errefortzu ikastaroetatik pasatzera». Bilboko familiako aitari ez zaio iruditzen D ereduak euskal hiztunak sortzea bermatzen duenik: «Oro har, ez zait iruditzen derrigorrezko hezkuntza amaituta haurrek euskara maila on bat edukiko dutenik. Gure kasuan, bai, etxean egiten duelako. Baina bestela, ez. Bilbon behintzat ez».

Laudioko amak baieztatu du ikasleak, euskaraz ez ezik, askotan gaztelaniaz zuzentzen zaizkiela irakasleei: «Lehen hori ez zen gertatzen. Baina gaur egun zilegitasun hori daukate. Nik uste egiteko handia dugula hor». Ez du uste, hala ere, bidea euskaraz egitera behartzea denik. Aisialdira bideratu du fokua: «Oso garrantzitsua da euskarazko esperientziak gozamenarekin lotutakoak izatea. Ikasleek euskaraz disfrutatzen dutela konturatzea».

Eskola, testuinguru soziolinguistikoaren isla

Kalean gertatzen denaren isla dira, orokorrean, eskolako joera horiek. Hori uste du Beasaingo familiako aitak, behintzat: «Nik ikusten det gazteek, segun ze taldetxo daukaten, jotzen dutela erderara. Beraien artean ere bai, nahiz eta denek euskara menderatu. Segun ze famili, etxe batzutan ohitura izan da erdaraz egitea. Gero ume batzuei kosta egiten zaie euskaraz egitea». Helduen artean ere gertatzen dela onartu du: «Haurrak tartean daudenen euskaraz egiten da, eta gero, helduen artean, ez. Guk geuk, lagunartean, ere bai».

Oñatiko amak ere aitortu du gaztelerarako joera duela: «Nere kuadrillan tendentzia da erderara. Denak dakigu euskeraz eta gurozuna, baina azkenian ia baten bat hasten bada erderaz berbetan, direktamente aldatu iten da. Konturatu be ez gara iten». Azpimarratu du elkarriketa batean sarri aldatzen direla hizkuntza batetik bestera, baina ez du uste alternantzia hori euskararen kalterako denik: «Nik uste bixak nahiko barneratuta dauzela, eta orduan aldaketan zoiazela. Oñati batean nik uste ondo dauela euskera. Arrasate batekin konparatuta, adibidez».

Erabilera ohiturak boladaka, adinaren arabera ere aldatzen direla uste du Oñatiko amak: «Nik uste umiak euskara iten dauela, baina gero ia 15-16 urtetik aurrera hasten dila apur bat erderaz be iten berba. Nagusixen artean erderaz entzuten da baita, igual gaztetan euskaraz injakoak, eta igual seme-alabei be euskeraz injakoak. Ez dakit, etapaka aldaketan doiala edo». Amezketako aitak, aldiz, uste du bere herrian bitxikeria dela erdaraz aritzea: «Bazilatzeko eran-edo erdaraz jendeak asko, edo gehio izateko itxura emateko... Bertako jendeak e, handikeriak esateko-edo. Baina broma edo bazile puntu bat izango balitz bezela». Hamabi kilometrora, aldiz, Tolosan, gazteen artean euskararen erabilerak atzeraldi nabarmena jasan duela uste du: «Lehen 18 urteko gaztek askoz euskaldunagoak ziren orain baino, nere ustez. Beaien artean erdara entzutezu. Erdara garbia gainera, emateu eztutela euskaraz jakinbehar».

Zarauzko aitak uste du migrazioa dela euskararen «mehatxu» handiena: «Immigrazio aldetikan, segun ze jende etortzean, haiek ezpaue ikasten, azkenian, gutako asko ere bere aldea pasatzegea. Hor saiatu beharko litzake, aliziente bat sortzen edo erakartasun bat ematen, euskara ikasteko. Zuk otar batian sagar ustel bat sartzen bazu, inguru guztia usteltzen jutea. Ikusten badue euskararen beharrik ez dakea, moldatzen dila erdarakin, bere inguruak erdara pasatzea».

«Euskal Herriko hiria da hau, milioi bat pertsona bizi dira Bilbo Handian, eta hemen ez da inoiz plangintza serio bat egon hizkuntzaren eta euskal kulturaren inguruan»
BILBO-B+

Zarautzen etorri berriek ez baldin badute euskararen beharrik sentitzen, zer esanik ez Bilbon edo Laudion. «Egoera deseroso konstante bat jasan behar duzu euskaraz bizitzeko», baieztatu du Bilboko familiako aitak. «Oso beltz» ikusten du Bilboko egoera, erabilera aldetik. Plangintza faltari egotzi dio: «Plangintza falta ebidentea da. Euskal Herriko hiria da hau, milioi bat pertsona bizi dira Bilbo Handian, eta hemen ez da inoiz plangintza serio bat egon hizkuntzaren eta euskal kulturaren inguruan. Are gehiago, esango nuke politikarien pertzeptzioa dela euskararen aldeko apustu sendo bat egiteak botoak kenduko lizkiekela».

«Guraso gazteek gero eta gehiago egiten diete euskaraz seme-alabei. Baina entzuten duzu haurrek gurasoei gazteleraz erantzuten dietela, eta horrek esan nahi du etxean ez dutela euskaraz egiten»
LAUDIO-B+

Laudion aurrerapenak egin badira ere, euskara «normalizaziotik» urrun dagoela uste du bertako familiako amak: «Ezagutza asko handitu da, eta guraso gazteek gero eta gehiago egiten diete euskaraz seme-alabei. Kalean behintzat bai. Baina entzuten duzu haurrek gurasoei gazteleraz erantzuten dietela, eta horrek esan nahi du etxean ez dutela euskaraz egiten. Edo bi hizkuntza daudela etxean, baina gaztelania gailentzen dela». Horregatik, uste du ez dela nahikoa etxean euskara, hizkuntza gisa, irakastearekin: «Euskara barruan eraman behar duzu, bihotzean; sentitu behar duzu. Ez baldin bada zure identitatearen parte, bigarren mailako hizkuntza izango da beti».

B tipologiako familiak

Tipologia honetako familietan, bi gurasoak euskaldunak dira, baina ez dute euskara lehen hizkuntza izan. Alegia, ez dute etxean jaso. Batzuek eskolan ikasi dute, txikitan, eta beste batzuek geroago, gehienetan euskaltegietan.

Hizkuntzaren transmisioari dagokionez, kasuistika askotarikoa da: badira euskaraz apenas egiten duten etxeak eta ia guztiz euskaraz funtzionatzen dutenak. Diferentzia horretan, funtsezkoa da gurasoen hautua, eta seme-alabekin ez ezik euren artean erabiltzen duten hizkuntza. Erabaki horretan, eragina du lortutako euskara mailak, baina baita ikasketa prozesuaren nolakotasunak eta euskararekin edukitako esperientzia positibo eta negatiboek ere.

Gainerako tipologietan bezala, inguruko errealtate soziolinguistikoaren inpaktua nabarmentzekoa da, halaber. Haurren hizkuntza sozializazioan eragiten du, eta gurasoenean ere bai.

Euskara noiz eta non ikasi duten

B tipologiako familietako gurasoen artean, euskara etxean jaso ez duten arren, badaude euskara txikitik ikasi dutenak, eskolan. Arrigorriagako familiako gurasoak, esaterako. Ama Arrigorriaga bertakoa da, eta herriko eskolan ikasi zuen euskaraz, B ereduan —D eredua ez zen eskaintzen orduan herrian—. Ondorengo ikasketak, aldiz, gaztelaniaz egin zituen, eta unibertsitatea bukatuta euskaltegian izena eman zuen, euskara «lanerako» beharko zuelako. Osakidetzan ari da, eta gaur egun, lanean erabiltzen du euskara gehien, hain zuzen ere.

«Euskaldun berria izanda, ahalegin handia egin behar duzu beraiekin euskaraz hitz egiteko. Batez ere handitzen joaten direnean»
ARRIGORRIAGA-B

2, 5 eta 7 urteko seme-alabak ditu, eta haiekin «nahiko gutxi» egiten du euskaraz: «Euskaldun berria izanda, ahalegin handia egin behar duzu beraiekin euskaraz hitz egiteko. Batez ere handitzen joaten direnean. Heziketa nahiko lan gogorra da ia, eta horrerik lotzen badiozu hizkuntza, hori ahalegin handia da». Bikotekidearekin ere gaztelaniaz egiten du. «Erderaz ezagutu ginen», argudiatu du. Harremana sortu zeneko hizkuntzak garrantzi handia du.

Arrigorriagako familiako aita bilbotarra da, baina gurasoak portugaldarrak ditu. D ereduan ikasi zuen eskolan, gero A ereduan institutuan eta Lanbide Heziketan. Garai hartan, ordea, euskara «erabiltzen eta berritzen» hasi zela azaldu du. Batez ere, egin zituen lagunengatik eta haiekin praktikatzen zituen jarduerengatik: «Eskalada egiten nuen, eta mendizalea nintzen. Arlo horietan asko egiten zen euskeraz». Gaztaroan entzuten zituen musika taldeak ere gogoratzen ditu: «EH Sukarra, Su ta Gar, Berri Txarrak...Euskarazko musika asko entzuten nuen». Esperientzia horiengatik, euskararekin «harreman ona» duela baieztatu du.

Lehen alabarekin, lanaldi murrizketa eskatu zuen aitak, eta denbora asko eman zuen harekin. Neurri handian, euskaraz. Aitak uste du alabaren hizkuntza gaitasunean eta erabilera ohituretan nabari dela: «Bigarrena amamarekin egon zen batez ere, eta ez du hainbeste egiten euskeraz». Etxean egiten ez baldin badute, Arrigorriagako haurrek euskara erabiltzeko aukera gutxi edukiko dute, gurasoek beraiek azaldu dutenez. Eskolan, D ereduaren izanagatik ere, haurren artean gaztelaniaz aritzen dira. «Eskolak egiten duena ondo dago, baina ez da nahikoa», adierazi du amak. «Eskolan, umeen artean erderaz egiten dute denbora guztian». Horregatik, gurasoek «ardura handia» dutela uste d, nahiz eta aitortzen duen ez dutela ardura horren arabera jokatu: «Biok dakigu euskaraz, baina gutxi egiten diegu. Zergatik? Erreztasunagatik. Niri behintzat errezago egiten zait erderaz egitea».

Hernaniko familian, berriz, gurasoek A ereduan ikasi zuten eskolan. Aitak Cacereskoak ditu gurasoak; amak Valladoliden jaioa du ama. 14-15 urterekin, «lotsa» sentitu zuela aipatu du amak: «Euskaraz ez nekielako, eta horrela ezin nintzelako bizi hemen». Euskaltegian hasi zen, 16 urterekin. Bikotekidea «gaztelaniaz» ezagutu zuen, 20 urterekin. Gainera, gizonak ez zuen euskaraz jaritasunez egiten, artean: «Euskara eskolan ikasi nuen, eta gero lanean tokatu zaidana eta alabekin ikasi detena». Lanean euskaraz «gero eta gehiago» egiten duela baieztatu du aitak. Baina batez ere, lehen alaba jaio aurretik hartu zuten erabakia izan da mugarrira.

«Umeak izan genitunean, erabaki bat hartu behar izan genun hasieratik (...). Guri ere asko lagundu digu. Orain, gure artean ere, nahiz ta bakarrik egon, askotan euskaraz hitz egiten degu»
HERNANI-B

«Umeak izan genitunean, erabaki bat hartu behar izan genun hasieratik. Argi genun, ahal zan neurrian, behintzat, umei euskara eman nahi geniola», azaldu du amak. «Guri ere asko lagundu digu. Orain, gure artean ere, nahiz ta bakarrik egon, askotan euskaraz hitz egiten degu». Etxeko hizkuntza euskara da, eta gaztelaniazko elkarriketak gurasoen artean edukitzen dituzte, izatekotan. «Etxean lortu degu beraien artean euskeraz hitz egitea, gurekin euskeraz hitz egitea, eta gure artean ere askotan euskeraz hitz egitea», dio aitak. Harentzat «gozamena» da alabek nola hitz egiten duten entzutea: «Beraien hizkuntza euskara da. Ahal duten guztietan erabiltzen dute».

Egoera hoberena bigarren alabak izan duela uste du aitak: «Gure etxean euskaraz hoberen hitz egiten duena alaba gazteena dela uste dut. Txikia zenean, gu ez ezik ahizpa ere bazegoelako. Eta guk ere hobeto hitz egiten guelako». Gurasoei iruditzen zaie, gainera, Hernanin, eskolak eta lagunarteak etxean jaso duten euskara «indartzeko» balio izan diela. «Hernanin aukera asko daukazu euskeraz hitz egiteko. Nik uste klabea izan dela

non egon diren», nabarmendu du aitak. Inguruari garrantzirik kendu gabe, etxean hartu zuten erabakiaren balioa azpimarratu du, dena den, amak: «Nik baditut lagunak, haurrak haztean hasi behar zirenak euskaraz egiten, eta azkenean ez dute egin. Horrek ez du balio. Ohiturak jaiotzen direnetik hartzen dituzte». Horretarako, gutxieneko euskara maila bat behar dela onartu du amak. Baina «perfekto» jakin gabe ere, egin daitekeela: «Gero hobetzen doa. Orain dela hamabi urte enuen hitz egiten orain bezela».

Euskararen aldeko hautua gune erdaldunetan

Aurkeztutako kasuak alderatuta, nabaria da testuingurua mesedegarriagoa da Hernanin, Arrigorriagan baino. Nolanahi ere, badaude euskarazko hizkuntza sozializaziorako are zailagoak diren inguruak. Baina horietan ere badaude euskara etxeko hizkuntza egiteko erabakia hartu duten B tipologiako familiak.

Sestaoko familian, D ereduan ikasitakoa da bikotea. Familian, euskaldun izandako arbasoren bat dute biek, baina etxean ez zuten jaso. «Aititeren aitak bazekien euskaraz, baina oso gutxi irakatsi zion», azaldu du amak. «Ama euskara ikasten ibilitakoa da, baina ez dau lortu guztiz ikastea. Aita bebai euskaltegian sartu zan ikasten, ulertzen dau, baina hitz egitea asko kostatzen zaio». Txikitan, bi gurasoentzat euskara «eskolako» hizkuntza izan. Gaztaroan militatzen hasi ziren arte. «Ardura nazionalak hartzea tokatu zitzaidan», azaldu du aitak. «Orduan, euskara egunerokotasuneko hizkuntza bihurtu zen. Euskararekiko atxikimendua eta erabilera hor garatu nituen». Sestaoko familiako gurasoek ez dute uste euskara eta militantzia politikoa ezinbestean lotuta daudenik. Baina inguru erdaldunetan «euskara erabiltzeko aukera bat» ematen duela iruditzen zaie. «Bilerak behintzat euskaraz egiten dira», aipatu du amak. «Nahiz eta gero, bileratik atera, eta beraien artean gazteleraz aritzen diren».

Izan ere, Sestaoko eta Ezkerraldeko testuinguru soziolinguistikoan, kaleko hizkuntza gaztelania da. «Duela bi belaunaldi etorritako familietan ere oraindik gaztelania erabiltzen dute. Gazteagoak ginenean, txiste gisa kontatzen genuen galegoa gehiago entzuten zela euskara baino», esan du aitak. «Ez dago kuadrilla euskaldunik. Badago jende bat identifikatzen duzuna euskaltzale gisa, eta horiekin euskaraz aritzen zara. Baina bestela, oso konplikatua da tabernetan euskaraz eskatzea edo. Inkusio dakizunean jende batek, adinagatik, euskaraz jakin behar lukeela».

«Badaude inkusio ikastolako ikasle ohi batzuk, umeei gaztelaniaz egiten dietenak. Ikastolatik urten zirenetik ez dutenak euskara berriro erabili»

SESTAO-B

Testuinguru horretan, bikote harremana gaztelaniaz sortu zen, eta euskara harreman hizkuntza bihurtzeko, «hautu konsziente» bat egin behar izan dute. Batez ere, seme-alabak eduki zituztenean: «Hortik aurrera, bai, euskara erabiltzen dugu, beraien erabilerarako eremu gutxietako bat delako. Ez bakarrik atxikimendu politiko eta identitarioagatik, hizkuntzaren zuzentasunagatik ere bai. Umeak izan ditzan oinarri linguistiko zuzen eta sendoak». 2 urte eta erdi ditu seme nagusiak, eta ulertu, dena ulertzen du, euskaraz edo gaztelaniaz. Hitz egiterako orduan, ordea, joera aldatu egin da jada: «Hasieran euskeraz egiten zuen, baina orain gaztelerara pasa da». Izan ere, ikastolan, irakasleak euskaraz egingo dio, baina ikaskideek ez dute euskaraz hitz egiten. Areago, 3 urteren bueltan, oraindik ez dakite euskaraz. Dakiten guraso askok ere ez dietelako euskara etxean transmititu. «Badaude inkusio ikastolako ikasle ohi batzuk, umeei gaztelaniaz egiten dietenak. Ikastolatik urten zirenetik ez dutenak euskara berriro erabili».

Sestaoren alboko herrian, Portugaleten jaio zen Getxoko familiako aita. Itsasadarraren beste aldean bizi da orain, Algortan. Gaztelania izan zuen lehen hizkuntza, eta gaztelaniaz egin zituen ikasketak, unibertsitatera arte. «Euskal filologia ikastea erabaki nuen». Hark ere ideologiarekin lotu du aldaketa hori. «Guretzat euskara zen eskolako hizkuntza. Eta muga eskolako atean zegoen, edo gelan bertan. Niri ez zitzaidan bururatzen handik kanpo euskaraz egitea», azaldu du. «Baina nerabezaroan, hasten zarenean apur bat ideologia politikoa hartzen, orduan konturatzen zara zer-nolako kontraesana den euskaraz ez hitz egitea, zeure burua abertzaleztat izanik». Argitu du 17-18 urterekin hasi zela bere burua berreuskalduntzen, «munduaren kontra».

Bilboko Itsasadarra ez, Ozeano Atlantikoa zeharkatu behar da bikotekidearen hizkuntza ibilbidea kontatzeko. Uruguaitarra da, eta Montevideon hasi zen euskara ikasten, Euskal Etxean: «Nire amaren gurasoak euskal herritarrak ziren, nafarrak. Baina nire gurasoei ez zieten euskara transmititu. Euskal kultura bai, baina hizkuntza ez, bizpahiru berba besterik ez». Barnetegi moduko batzuetan izan zen Argentinan, eta Argentinako lagun baten bidez ezagutu zuen bikotekide portugaletetarra. Euskaraz ezagutu zuten elkar, eta euskara izan da bikoteko harreman hizkuntza orduz geroztik. Seme-alabei euskara transmititzeko ere ez zuten gehiegi pentsatu behar izan: «Nik esango nuke modu naturalean atera zitzaigula, ez genuela berbalizatu behar izan. Baina gure kezka izan zen transmisio hori nola bermatu, nola blindatu, Algortan bizi garelako».

Horretarako, etxean euskaraz hitz egiteaz gainera, kultur kontsumoa euskaraz eskaintzeko ahalegin «proaktiboa» egin dute, aitzak azaldu duenez: «Pelikulak, antzezlanak, komikiak... euskaraz izan daitezten saiatzen gara. Azken finean, kalean dagoen indar erdalduna orekatzeko». Eskolari dagokionez, eskola libre batera joaten da umea, eta bertan, hizkuntza ez da lehentasuna. Haur bakoitzari bere hizkuntzan egiten diote, baina haurren artean, oro har, gaztelaniaz egiten dute. Aitzak argudiatu du haien irizpidea ez zela hizkuntza izan: «Balantza batean jarrita, prest geunden hizkuntzarena sakrifikatzeko, beste faktore guztiak asko gustatzen zaizkigulako».

«Konturatzen zara urteek aurrera egin ahala, etxeak gero eta pisu gutxiago daukala. Bere lagunik onenak erdaldunak dira, eta momentu honetan, eragin linguistikorik handienak hortik sartzen zaizkio. Nik igartzen diot, bera jolasten dela, batez be, gaztelaniaz. Eta hori da beretzat aberasgarriena, jolasa»
GETXO-B

Eskolari dagokionez egindako hautuarekin «gero eta konbentzituago» daudela baieztatu du aitzak, semea oso pozik ikusten duelako. Badaki, hala ere, euskara tokia galtzen ari dela haren bizitzan: «Konturatzen zara urteek aurrera egin ahala etxeak gero eta pisu gutxiago daukala. Bere lagunik onenak erdaldunak dira, eta momentu honetan, eragin linguistikorik handienak hortik sartzen zaio. Nik igartzen diot, bera jolasten dela, batez be, gaztelaniaz. Eta hori da beretzat aberasgarriena, jolasa». Kultur kontsumoarekin ahalegintzen dira, eta lagun euskaldunekin irteerak ere egiten dituzte, «bizipen atseginak» izan ditzan euskaraz. Baina onartua dute inguruaren eragina. «Guk askoz gehiago ere ezin dugu egin, hor daude gure mugak. Bizi garen tokian eta bizi garen garaian, zertarako ibili egun osoan latigoa hartuta?», galdetu du Algortako familiako aitzak, modu erretorikoan. «Batzutan galdetzen du zergatik egin behar duen euskaraz. Gaztelaraz ere badakiela, eta gustatzen zaiola, gainera. Eta nik ez dakit zer erantzun».

Inguru euskaldunaren bila

Ezkerraldean garai beretsuan hazitako beste bi aita ere badaude aztertutako familietan. 1980-1990eko hamarkadako hainbat mugimendu sozialetan ibilitakoak, eta tartean, euskalduntzeko ahalegina egindakoak. Elorrioko familiako aita Sestaon sortua da, AEKtik eta barnetegietatik pasatutakoa. «Garai hartan sartuta nengoen ez dakit zenbat mugimendu sozialetan, eta euskararena bat gehiago zen. Orduan ikasi nuen euskera, batez be hitz egiteko», azaldu du. Mugimendu horietan ezagutu zuen bikotekide ohia, alabaren ama. Alabari euskaraz hitz egiteko hautua egiteaz gainera, testuinguru euskaldunago bat bilatzea ere erabaki zuten: «Izan ginunen alaba, pentsatu ginun aldatzeko etxea, eta momentu hortan pentsatu ginun jutea herri euskaldun batera. Eta nola Elorrioren ezagutzen ginun ia jende asko eta lagunak geneuzkan pentsatu ginun hona etorteko».

«Nahiz eta herri euskalduna izan, jende nagusiak gaztelaniaz berba iten dau. Guraso gehienek iten dute euskeraz euren seme-alabekin, baina gero euren artean ez. Tabernan igual eskatzen duzu euskeraz, baina gero lagunekin gaztelaniaz»
ELORRIO-B

Alaba beti oso euskalduna izan dela baieztatu du gizonak. Gurasoekin beti euskaraz egin izan duela, eta lagunekin ere bai. Azkenaldian, ordea, batzuetan aldatzen ari da ohitura hori. 14 urte ditu: «Egia da azkenaldi hontan ikusten dudala pasatzen direla gaztelaniara. Eta orain nirekin be hasi da batzutan gaztelaniaz berbetan». Izan ere, uste baino herri «erdaldunagoa» topatu du Elorrioko familiako aita: «Nahiz eta herri euskalduna izan, jende nagusiak gaztelaniaz berba iten dau. Guraso gehienek iten dute euskeraz euren seme-alabekin, baina gero euren artean, ez. Tabernan igual eskatzen duzu euskeraz, baina gero lagunekin gaztelaniaz».

«Guk bizi izan dugun guztiak eragiten dizu jarrera bat edukitzea. Eta hemen adibidez ez dute izan hori. Euskaldunak izan dira, lasai-lasai. Jazarpenik ez dute izan»
HONDARRIBIA-B

Antzeko zerbait bizi izan du Hondarribiko familiako aita, herria barrutik ezagututakoan. Portugaleten sortua da, euskaltegian orduak sartutakoa. Baita bikotekidea ere: Gasteizen lehenengo eta Donostian ondoren, lanak Gipuzkoara eraman zuelako. Hondarribian bizi dira gaur egun. «Ikusten duzu nahiz eta herri euskalduna izan eta jendeak badakin ez duela euskeraz hitz egiten», aipatu du aita. Iruditzen zaio Hondarribian lasaieria moduko bat dagoela euskararekin, eta neurri handian hori lotua dagoela Ezkerraldekoen pareko zailtasunik eduki ez izanarekin. «Guk izan bizi dugun guztiak eragiten dizu jarrera bat edukitzea. Eta hemen, adibidez, ez dute izan hori. Euskaldunak izan dira, lasai-lasai. Jazarpenik ez dute izan». Are gehiago, Hondarribiko euskaldunek euren burua gutxietsi dutela ere uste du. Konplexua eduki dutela, adibidez, aspaldidanik jaso dituzten udatiarrengatik.

Hondarribiko familiako gurasoek euskaraz egiten diete seme alabei, nahiz eta euren artean askotan gaztelaniaz hitz egin. Batez ere, ama erosoago sentitzen delako: «Egia da nik batzutan erderara aldatzen dudala, errazagoa egiten zaidalako. Baina saiatu gea hurrei transmititzen, eta haiek hartzea euskera bere hizkuntza bezela». Ama Arrasatekoa zuen, euskalduna, baina ez zion euskara transmititu: «Nire amak oso gaizki pasa zuen euskararekin. Gasteizera iritsi zenean ikusi zuen berari parre egiten ziotela». Berak «arantza» hori zuela onartu du, eta asebeteta sentitzen da egin duen ahaleginarekin: «Nik uste dut transmisioa egina dagoela. Hauek barruan daukate. Gero inguruak lagunduko duen edo ez, hori ez dakigu».

«Lehengoan jardunaldi batzuk egon ziren Bilboko Merkataritza Ganbaran, lan munduko euskararen normalizazioaren inguruan. Oso leku dotore eta elegantean, gorbatadun pila batekin. Eta gogoratu nuen, nire garaian euskara zela pankarta, spray-a, oihuak...»
GETXO-B

Baikorrek dira, euskararen aurrerapenak ikusita

Euskarak aitortza soziala irabazi duela uste du Getxoko familiako aitak. Pasadizo esanguratsu bat kontatu du: «Lehengoan jardunaldi batzuk egon ziren Bilboko Merkataritza Ganbaran, lan munduko euskararen normalizazioaren inguruan. Oso leku dotore eta elegantean, gorbatadun pila batekin. Eta gogoratu nuen, nire garaian euskara zela pankarta, spray-a, oihuak... Horretan hobera egin dugu». Era berean, ontzat jo du Euskaraldiaren harira sortu den lankidetzak publiko-soziala ere: «Gaur egun Jaurlaritza eta Topagunea elkarlanean aritzea normalizatu dugu. Duela 20 urte pentsaezina zen hori, estralurtarra ia».

Euskararen aurrerapenekin ados dago Sestaoko familiako aita. Azken hamarkadetan hainbat mugarri gainditu dituela iruditzen zaio: «Euskarak kristoneko fase bat gainditu du. Euskararen estandarizazioa, euskararen erabilera praktikamente eremu guztietan...». Erronkei dagokionez, erabileran jarri dute fokua. Alde horretatik, Getxoko familiako amak ez du uste hezkuntza sistema euskalduntzearekin nahikoa denik: «Pentsatzen genuen euskaraz ikasita ia jendea euskaraz berbetan hasiko zela. Eta egia da elkarriketa asko euskaraz egiten direla, baina benetako harremanak euskaldundu dira? Ba agian ez».

A+ tipologiako familiak

Tipologia honetako familietan, gurasoetako bat euskaldun zaharra da, edo jatorrizko elebiduna: euskara lehen hizkuntza du, euskara soilik edo gaztelaniarekin (edo beste hizkuntza batekin) batera. Bikotekideak ez du ondo egiten euskaraz: ez da gai euskarazko elkarriketak gutxienean erosotasunez eta jartasunez edukitzeko. Multzo horretan maila ezberdinak daude, dena den: bai ezer ez dakitenak, bai oinarritzko elkarriketak eduki ditzaketenak.

Esan daiteke tipologia honetan ia bermatua dagoela euskararen transmisioa. Izan ere, gurasoetako batek behintzat euskaraz egin ohi die seme-alabei txikitatik, eskolan hasi aurretik. Lehen hizkuntza izango dute haurrek, erdararekin batera. Lehen hizkuntza gisa biak izan dituzte, beraz, tipologia honetako ume gehienek.

Alabaina, familia tipologia honetako haurrek gaztelania gehiago erabiltzen dute normalean, etxean gutxienez. Gurasoetako batekin gaztelaniaz egiten dutelako, eta gurasoen arteko hizkuntza gaztelania denez, etxean taldean ere hala egiten dutelako. Horrek eragina du seme-alaben hizkuntza gaitasunean eta erabilera-ohituretan. Etxetik kanpoko egoerak ere izango du zerikusia horretan, onerako edo txarrerako, egoera soziolinguistikoaren arabera.

Norberaren lehen hizkuntza transmititzeko joera

Tipologia honetako familietako gurasoek, oro har, ez dute gehiegi hausnartu seme-alabei zer hizkuntza transmititu. Bakoitzak bere lehen hizkuntza transmititzeko joera izan du, era naturalean.

Zumarragako familian, aita euskaldun zaharra da. Zaldibian jaioa, haurra zela Zumarragara bizitzera joandakoa: «Nik euskeraz hitz egin det beti etxean. Nere aittek biek baserrikoak zien. Zumarraga etorri ginen nik neukenen 6 urte. Ordun hasi nitzen erderaz hitz egiten». Ama, aldiz, Ciudad Realgo herri batean jaioa da, eta txikitan Madrilera joandakoa. Ezkondu ondoren iritsi zen Zumarragara. «Yo vine con 28 años, cuando me casé. Cuando vine sí empecé a aprender euskera, luego empecé a trabajar y lo dejé. Y volví el año pasado», kontatu du. Amak gaztelaraz

egiten die 12 urteko semeari eta 19 urteko alabari; aitak, euskaraz. Hausnartu gabe, «sobre la marcha» hartutako ohitura bat izan zela adierazi du amak: «Mis niños son bilingües desde chiquitines. Ya saben en qué idioma me tienen que hablar a mí y en qué idioma le tienen que hablar a él. Es algo muy natural». Nolanahi ere, etxeko hizkuntza nagusia gaztelania da. Eta gurasoek baieztatu dute seme-alabak gaztelaniaz erosoago sentitzen direla.

«Zumarragan kanpoko jende asko eon da. Eta hoiek etorri zien erderaz hitzeiten. Beaien semek ikasiko zuten euskeraz, baina beaiek segitzen dute oaindio erderaz hitz eiten»
ZUMARRAGA-A+

Kontuan hartu behar da, kasu honetan, seme-alabek etxetik kanpo ere gaztelania erabiltzen dutela harreman gehienetan. D ereduan eskolatuak dira, baina ikasgelatik kanpo gaztelaniarako joera handia dute. «Zumarragan kanpoko jende asko eon da. Eta hoiek etorri zien erderaz hitzeiten. Beaien semek ikasiko zuten euskeraz, baina beaiek segitzen dute oaindio erderaz hitz eiten. Edadeko pertsonak-eta dare kanpoko jende asko oandik», argudiatu du aitak. Aitortu du berak ere lagunartean gehienbat gaztelaniaz hitz egiten duela: «Lagunekin, gehienetan erderaz. Baina badauzkat igual bi-hiru lagun normalean euskera ateratzen zaitela».

Aulestiko familian ama da euskaldun zaharra, Aulestin bertan jaioa. Aita, berriz, erdalduna da, Bilboko Begoña auzoan sortua. 11 urteko semeari nork bere hizkuntzan egin izan dio txikitatik, nahiz eta herrian, Aulestin, ezohiko kasua izan. «Guk argi geunken, logopeda batek esakun berak dana erderaz eitzeko», azaldu du amak. «Baino raro ikusten da erderaz eiti. Oso euskaldune da herri hau». Semeak, berriz, naturaltasun osoz egiten die amari euskaraz eta aitari gaztelaniaz: «Normalizat deko, txikixetatik euki dabenez, berak errez jokatzeko dau».

«Hay niños aquí que no saben hablar casi castellano. Y este en seguida ha cogido un vocabulario de la leche»
AULESTI-A+

Aulestin, ikasgelaz gainera, jolastokia eta plaza, herria bera, oso euskaldunak dira. Are gehiago, Aulestiko familiako semearen gaztelania irakasle berria kezkatuta omen dago haurren mailarekin. «Oin dagoen gaztelaniako irakaslik esaten dau ikusi dauela karentzi nabarmena umeen erdera mailan. Hemendik kanpo urteten badia, benetan galdute dauzela. Ordu bategaz maila oso baju dauke gaztelaniaz», azaldu du amak. Semea, berriz, eroso sentitzen da gaztelaniaz. «Yo creo que para el niño es bueno», adierazi du aitak. «Hay niños aquí que no saben hablar casi castellano. Y este en seguida ha cogido un vocabulario de la leche».

Pasaiaiko familiarena kasu berezia da. Ama donostiarrak euskara izan zuen lehen hizkuntza, gaztelaniarekin batera: «Aita baserrikoa da, Astigarragakoa, eta beti euskaraz hitz egiten zigun. Baina gehien-gehien ikusten genuena ama zan, eta gehien-gehienetan gaztelaraz hitz egiten zigun». Pasaiaiko familiako aita, berriz, Granadan jaioa da, eta gaztelania ulertu eta hitz egiteko gai bada ere, zeinu hizkuntzan aritzen da, gorra baita. «Con mi familia, siempre en lengua de signos. Ya en el entorno, sí que hablamos español», azaldu du.

6 eta 11 urteko semeek zeinu hizkuntza erakutsi diete txikitatik: «Cuando los niños eran bebés, les enseñamos lengua de signos, porque se expresan más fácil con las manos. Al principio nos decían todo con las manos, sin hablar, hasta los 2 años. Después van cambiando, van evolucionando hacia lo oral». Amak euskaraz egin zien, hasieran Granadan bizi ziren arren: «Ez nekien etorkizunean hemen biziko ginen edo ez. Baina nik oso argi neukan, han bizi arren, euskara erakutsi nahi niela. Neretzako altxor bat zen». Etxetik kanpo, ordean, gaztelania besterik ez zuten hitz egiten hurrek: «Orduan harremanak gaztelaniaz zituzten. Euskara zen etxe barruan gelditzen zen gauza bat».

«Eskolako lagunekin gaztelaniaz aritzen dira. Eskolaz kanpoko jardueretan ere bai»
PASAIA-A+

Gaur egun Trintxerpen bizi dira, eta amaren familiarekin hitz egiteaz aparte eskolan ere euskara erabiltzen duten arren, ikasgelatik kanpo, gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen dutela aitortu du amak. Trintxerpen, Granadan bezala: «Eskolako lagunekin gaztelaniaz aritzen dira. Eskolaz kanpoko jardueretan ere bai».

Hizkuntza sozializazioaren eragina

Azaldutako familien kasuetan nabarmen gelditu da testuinguru soziolinguistikoak nolako inpaktua duen seme-alaben hizkuntza ohituretan. Etxean euskara jaso dute, baina gaztelania gailentzen da. Eta kalean ere gaztelania nagusitzen bada, gaztelaniara lerratuko dira haurrak. Ingurunea euskalduna bada, aldiz, kontrako efektua eragingo du. A+ tipologiako gainerako familietan ere antzematen da.

Elgoibarko familian, ama euskaldun zaharra da eta «oso euskaltzalea» da: «Euskera elkarte batean egin det lan, euskara teknikari, gaur egun administrazioan... Ezin naiz guztiz euskaraz bizi, baina euskerarako tendentzia handia daukat». Horrek eraman zuen bikotekide erdalduna euskaltegian izena ematera: «Me apunté al Euskaltegi, he estado dos años, y entender entiendo bastante, y hablar, si me pongo también. Pero como me equivoco y te puedo decir una barbaridad, pues me corto». Elgoibarren jaioa da, baina andaluziarrak ditu gurasoak, eta gaztelaniaz bizi izan da beti.

«Guk ere hain naturalizatua edukitze horrek eragin dezake beraien erabilera ez izatea niri gustatuko litzaidakeena. Beraiek oso ohituta daude, onartuta daukate»
ELGOIBAR A+

Ama euskararen aldeko aktibista izanagatik ere, 7 urteko semeak gaztelaniarako joera hartu du jada: «Semeak txikitan lagunekin beti euskeraz egiten zaban. Joan dia adinean aurrera, eta ja gaztelarako joera daukate. Egia da guraso euskaldun gutxi daudela bere adinean. Zaila da umeek euskerarako ohitura hori izatea». Edonola ere, amak uste du erabileraren kalterako dela etxean bi hizkuntzen, euskararen eta gaztelaniaren elkarbizitza normalizatuta edukitzea. «Baina egia da ezin dogula bestiengan jarri ardura hori. Guk ere hain naturalizatua edukitze horrek eragin dezakeela beraien erabilera ez izatea niri gustatuko litzaidakeena. Beraiek oso ohituta daude, onartuta daukate».

15 urteko alabak ere gaztelaniaz egiten du gehien-gehienetan lagunekin, nahiz eta denak euskaldunak izan. Nerabezaroan sarritan gertatu ohi den prozesu bat ondo azaldu du amak, gaztelaniaz: «Toda su cuadrilla son euskaldunas y todas hablan muy bien euskera. Pero es como que les hace ser más guays. Es algo que nos ha pasado a mucha gente en la adolescencia. Que quizás en ese espíritu de rebeldía, o de que ya soy mayor, vas cruzando líneas, vas cruzando límites, y ese es uno de ellos». Momenturen batean euskarara itzuliko direla uste du, hala ere: «Cuando vuelves a encontrar tu identidad, si tienes un apoyo, tienes un refuerzo, vuelves».

«Nire lagunak danak dira bermiotarrak. Hasten gara igual euskera hitz egiten, baina beti bukatzen dogu gaztelera. Orain ia nagusiagoak gara eta kontzienteagoak gara, hitz egin behar dugula euskaraz»
BERMEO A+

Bermeoko familiako amak ere ikusten du prozesu hori, eta momentu zehatz bat izendatu ere egin du: «En la edad del pavo». Gero, euskarara itzultzea kostatzen dela uste du, gainera. Aitortu du gaur egun ahalegin berezia egin behar izaten duela euskarari eusteko; adinak ematen duen «kontzientziarekin» lotu ditu ahalegin horiek: Iruditzen zaio herrian joera orokorra dela: «Bermion gero eta gutxiago eitzen da. Hitz egiten dabe euskeraz edo jente nagusiak, edo umeak. Hor erdian dago hutsune bat».

Bikotekidea bilbotarra da, Abusu auzokoa, eta familia erdaldunean hazitakoa. Bermeo euskaldunagoa den arren, sumatzen du gaztelania «asko» entzuten dela, gero eta gehiago. Haren ustez, adinekoek eusten diote gehien euskarari: «La gente mayor, sobre todo, es más cañera con el euskera. Se ve que les duele, que quieren que se mantenga». Berak txikitan ez zion inolako garrantzirik ikusten, baina gaur egun uste du gabezia bat dela euskaraz ez hitz egitea: «Para mí es un déficit no tener euskera, para el trabajo, para todo. Te das cuenta ahora». Euskara etxean jaso dutenek, ordea, ez dute behar adina zaintzen, haren ustez. Bikotekideak identifikatuta sentitu du bere burua: «Askotan esaten dotzat umei: hitz egin zuen artean euskeraz. Da gero buelta emoten dot eta hasten naz erderaz hitz egiten. Euri eskatzen nago nik ez dodana eitzen».

Erabilerari ematen zaion garrantzia, norberaren ohituren arabera

Gurasoen hizkuntza ohiturek eta hizkuntzaren inguruko bizipenek eragina daukate euskararen erabilerari ematen zaion garrantzian eta harekin lotutako jarretan. Baita guraso euskaldunen artean ere ere. Santurtziko familiako aitak onartua dauka bere inguruan ez dela «beharrezkoa» euskara: «Alabaren nahia bada hemen geratzea, igual ez dau behar. Seguraski askoz garrantzitsuagoa izango da ingelesa ondo ikastea». Baieztatu du gustatuko litzaiokeela inguruko jendeak euskaraz gehiago hitz egitea, baina ez dagoela aukerarik: «Zoaz ogia eroatera, zoaz erosketa egitera, zoaz fotokopia bat egitera, zoaz kafe bat hartzera... eta denetan erderaz».

*«Seme-alabengatik nator Euskaltegia. Seguraski, etxeko-lanekin lagundu beharko diedalako»
SANTURTZI-A+*

Getxoztarra da gizona, Algortakoa, eta euskaldun zaharra. 4 urteko alabari euskara transmititzeko ahaleginean dabil, inguru erdaldunean bizi den arren: «Nire beharra aita moduan da erakustea, eta erakustea ez hizkuntza bakarrik, baizik eta erakustea hemengo kultura, hemengo ohiturak...». Ama portugetar euskara ikasten ari da euskaltegian. Motibazio ezberdina du: «Seme-alabengatik nator euskaltegia. Seguraski, etxeko lanekin lagundu beharko diedalako». Eszedentzia eskatu du euskara ikasteko. Bikotekideak ohartarazi du beste langile publiko asko soldata ordainduta lanetik salbuesten dituztela, eta euskara ikastaroak egiteko aukera ematen zaiela. Oso kritikoa da horrelako neurriekin: «Zenbat diru jartzen du Eusko Jaurlaritzak mahai gainean, ehuneko zein portzentajek euskaraz hitz egiteko?».

A tipologiako familiak

Familia tipologia honetan gurasoetako bat bakarrik da euskaraz ondo hitz egiteko gai: euskarazko elkarriketak eduki ditzake, gutxieneko erosotasun eta jarioetasun batekin. Baina guraso hori euskaldun berria da: euskara ez du lehen hizkuntza izan, ez du etxean jaso, eskolan edo euskaltegian baizik. Bikotekideak ez du ondo egiten euskaraz, eta maila ezberdinak daude: ezer ere ez dakitenak edo solasaldi batzuetarako gutxieneko gaitasuna badutenak.

Familia tipologia honek ez du bermatzen euskararen transmisio sendorik. Definizioz, lehen hizkuntza gisa biak eduki dituztenen zakuan sartuko dira gehienak, euskarak baduelako nolabaiteko tokia familian, baina gehien-gehienetan gaztelania da nagusi etxean; izan ere, gurasoetako batek behintzat gaztelaniaz egingo die seme-alabei, bikoteko harreman hizkuntza gaztelania izango da eta etxekideak elkarrekin daudenean ere gaztelania izango dute hizkuntza nagusia.

Gehien-gehietak, gaztelaniaz erosoago

Elkarriketatutako familien artean, Zeanuriko sendiko alaba bakarrik sentitzen da euskaraz gaztelaniaz bezain eroso. Etxean eta familian gaztelania du nagusi, nahiz eta amarekin euskaraz aritzen den orain, oro har. Zornotzakoa du ama, eta aita ere bai. Aitaren aldeko aitona-amonak Badajozkoak dira.

Lehen hizkuntza gaztelania eduki zuen Zeanuriko neskak, amak ez baitzuen egungo euskara mailarik orduan. «Eskolan sartu zenean, gogoratzen naiz bere gelako neskek esaten zutela arraro hitz egiten zuela. Berak ez zekielako euskerarik, 2 urteaz hasi zenean», azaldu du amak. Hain zuzen, euskara indartzeko «detonantea» horixe izan zela ere adierazi du, alabarekin euskaraz egin ahal izateko izena eman zuela Euskaltegian: «Azkenean pikatu egin nintzen, eta C1 tituluaren bila joan nintzen. Hiru urtetan lortu nuen».

Gaur egun, 7 urte ditu Zeanuriko familiako alabak, eta amarekin euskaraz hitz egiten du gehienetan, bakarrik daudenean behintzat. Arratiako euskalkia darabil, amak ez bezala. Agerikoa da eskolak eta, batez ere, herriko adinideekiko harremanak izan duten eragina. Izan ere, Zeanurin euskara bizi-bizirik dago egunerokoan. Harrigarria izan da Zornotzako amarentzat: «Hemen dendan, botikan, denetan egiten da euskaraz, ikustekoa da».

«Bera gaztelaniaz sentitzen da erosoan. Haserretzen denean, sentimenduak eta emozioak azalerazi behar dituenean, gaztelaniara jotzen du»
GAUBEA-A

Gaubeako familian, aldiz, ama bilbotarrak semeari txikitatik euskara egin badio ere, haurrari barne-barnetik ateratzen zaion hizkuntza gaztelania dela uste du: «Bera gaztelaniaz sentitzen da erosoan. Haserretzen denean, sentimenduak eta emozioak azalerazi behar dituenean, gaztelaniara jotzen du».

Amarekin euskaraz egiteaz gainera, eskolan ere erabiltzen du haurrak. Gainera, Gaubeako eskolan «lorpen handi bat» erdietsi dutela uste du amak: «Ikasgelan hitz egiten dute euskaraz, baina patioan ere hitz egiten dute euskaraz. Euskaraz jolasten dute haien artean». Eskolako atak zeharkatu bezain pronto, ordea, haur eta gaztetxoak gaztelaniara pasatzen direla dio Gaubeako familiako amak: «Eskolatik kanpo euskaraz hitz egitea asko kostatzen zaie. Kanpo ekintzetan, gaztelaniaz hitz egiten dute».

Gaubeako herrietako eguneroko bizimoduko hizkuntza gaztelania da. Eta hala izan da aspaldidanik, gainera. D ereduko hezkuntzak eta azken urteetan Bizkaitik bizitzera joandako familiek eman diote sarbidea euskarari, azaldu dutenez. Burgostik oso gertu dago Gaubea. Gaubeako familiako aita bera ere Burgoskoa da. Zortzi bat urte daramatza euskara ikasten, baina, «lana dela eta familia dela», asko kostatzen ari zaio. Pozik dago, hala ere, euskara ulertu dezakeelako eta hitz egiten hasi delako: «Es como vivir en otro lugar. Viviendo en el mismo sitio, tu mente cambia. Cuando estoy hablando en euskera es como si fuese otra persona».

Arabán bertan, baina hiriburuan, aurrerapauso handiak eman ditu euskarak azken urteetan. Hala ere, erabilera oso-oso baxua dela uste du Gasteizko familiako amak: «Guk beti txantxa bera egiten dugu: joaten garenean oporretan entzuten dugula euskera gehiago hemen baino, kanpinetan eta». D ereduko eskola publikora doaz seme-alabak, baina ikasgelatik harago ez dute euskara erabiltzen. «Haurrek, gelatik aterata, ez dute euskaraz egiten. Etorkin asko daude, gurasoek ere ez dute hitz egiten euskeraz. Orduan zaila da», argudiatu du amak.

Ondo ezagutzen ditu Gasteizko eskolak, irakaslea baita, eskola publikoan. Irakasle izateko ikasi zuen euskaraz, hain zuzen: «Magisteritza ikasi nun eta behar nun euskera, lan egiteko. Orduan niretzako euskera zen bigarren karrera bat. Euskaltegian sartu nintzen bost orduz, EGA ateratzeko». Lehen hizkuntza gaztelania izan zuen amak, Salamanca eta Cácereskoak baititu gurasoak. A eredura joan zen, eta Magisteritza ere gaztelaniaz ikasi zuen.

«Gasteizen, bizi nahi baduzu zeozer euskaraz, normalean euskal kulturarekin lotua izan behar da. Oso zaila da, adibidez, aerobic euskaraz egitea»
GASTEIZ-A

Euskaltegian ezagutu zuen bikotekidea, hain zuzen ere. Euskaraz ezagutu zuten elkar, beraz. Irteten hasi bezain pronto, ordea, gaztelaniara pasa ziren. «Ondo ezagutu ahal izateko, gaztelaniaz hitz egiteko eskatu nion», kontatu du aitak. Maila txukuna lortu zuen euskaraz, baina ez du apenas erabiltzen, eta asko galdu duela adierazi du: «Galdu dut hitz jarria, eta ez naiz sentitzen eroso euskaraz hitz egiten». Horiek horrela, etxeko hizkuntza nagusia gaztelania da. Eta, nahiz eta amarekin euskaraz hitz egiten duten, seme-alabak gaztelaniaz sentitzen dira eroso.

Alaba nagusia euskal dantzan aritzen da, eta taldean giro euskalduna dute, amak azaldu duenez. «Gasteizen, bizi nahi baduzu zeozer euskaraz, normalean euskal kulturarekin lotua izan behar da. Oso zaila da, adibidez, aerobic euskaraz egitea». Telebistan, Youtuben, bideojokoetan, haurren erreferentzia gehien-gehienak gaztelaniazkoak direla aipatu dute. Salbuespen bat dago: *Goazen* telesaila. «Orain dela bi urte hasi ziren, eskolan abestiak jarri zizkietelako. Bilatzen egon ginen, jarri genien kapituluaren bat, eta gustatu zitzairen pila bat», azaldu du amak. «Egia esan, guretzat *Goazen* oso ona izan da. Bestela, euskara bakarrik zelako eskolan. Iaz antzerkia ikustera joan ginen, joan ginen lauak. Eta kotxean entzuten dugu asko *Goazen*».

Guraso euskaldunaren inplikazioaren garrantzia

Testuinguru soziolinguistikoaz eta haurren hizkuntza sozializazioaz aparte, dena den, eragin handia eduki dezake guraso euskaldunaren euskara mailak eta jarrerak. Zamudioko familian, adibidez, euskaldun berria izanik, euskara maila altua lortu du ama bilbotarrak, neurri batean, euskarazko hezkuntzari esker: «Erdaldun familiatik nator, eskolan ikasi nuen euskaraz, eta ikasketa ia guztiak euskaraz egin ditut». Kontzientzia, aldis, beste nonbaitetik etorri zaio: «Militantziarekin lotura dauka, herri militantziarekin».

Semeari euskara transmititzeko erabakia «erabat kontzientea» izan zela baieztatu du: «Umea euskalduna izatea nahi genuen». Horregatik, bikotekidea gaztelaniaz ezagutu zuen arren eta bikoteko harremana ia beti gaztelania izan den arren, beren artean ere euskaraz egiten hasi ziren semea jaio zenean, nahiz eta aitak maila baxua zuen. Lehen hizkuntza euskara eduki zuen haurrak, horrela: «Lehen, txikia zenean, euskarara jotzen zuen beti. Familian galdetzen ziguten ea umeak ez zekien hitz egiten. Eta esaten genien baietz, euskaraz hitz egiten zekiela».

«Konturatu nintzen zuzentzen zidala, ez nuela elkarriketetan sakontzeko aukerarik, eta autoritatea galtzen nuela bebai»
ZAMUDIO-A

Haurra eskolan hasi zenean, ordea, aita deseroso sentitzen hasi zen: «Konturatu nintzen zuzentzen zidala, ez nuela elkarriketetan sakontzeko aukerarik, eta autoritatea galtzen nuela be bai». Horregatik, semearekin euskaraz hitz egiteari utzi zion, pixkanaka. Eta bikotera ere gaztelaniara itzuli zen. Amak euskarari eutsi dio semearekin. Hirurak daudenean, ordea, gaztelaniara jotzen dute askotan: «Segun ze egoeratan».

Etiket kanpoko harremanek ere eragin dute semearen joeretan. «Nik uste erdarak indarra hartu duela bere bizitzan», aipatu du amak. «Gero eta nagusiago egin umeak, gero eta erdararako joera handiagoa. Klase barruan euskaraz egiten dute, baina batzuetan haien artean be erdaraz entzuten zaie». Zamudioko lagunekin gaztelaniaz aritzen da mutila; futbolean, berriz, Larrabetzuko taldean jokatzen du, Txorierriko herri euskaldunenean, eta hango lagunekin euskaraz aritzen da. Entrenamenduetan soilik ez: «Futboletik kanpo bebai: Larrabetzukoekin egoten denean, euskeraz egiten dute. *Fortnite*-n jolasten dutenean, guk entzuten dugu, eta bertokoekin erderaz egiten du, eta Larrabetzukoekin, euskeraz».

Semea gai da, beraz, gaztelaniaz zein euskeraz, bietan bat-bateko harreman naturalak edukitzeko. «Nik uste bera bi hizkuntzetan sentitzen dela eroso. Eta berak aukeratzen duela, segun ze egoeratan, kapaz da bietan aritzeko», adierazi du amak. Erabilerak kezkatzen du, baina ez du «plasta» izan nahi. Iruditzen zaio itzuliko dela euskarara: «Nik esperantza dekot militantziagatik bueltatzea. Orain adin kontua da, baina agian urte batzuk barru, konsziente denean zer dan hizkuntza honek suposatzen duena, pentsatzen dut hartuko duela bere ardura euskaraz bizitzeko».

Eibarko familian ere ama da euskalduna, euskaldun berria. Gurasoak galiziarak ditu, eta A ereduari ibili zen eskolan; euskara ikasgai bat soilik zen. Ez da euskaltegiara joan, eta mintzapraktika talde batean hasi da euskaraz hitz egiten: «Orain dela lau urte hasi naiz talde batean, juten gara asteazkeneko ordu bat taberna batera, kafe bat hartzera, eta hitz egiten dugu euskeraz. Hor konturatu nintzen nik pentsatzen dudana baino gehixau dakidala. Orain lotsa kendu dut». Euskarazko elkarriketak eragozpenik gabe edukitzeko gai den arren, baditu hutsuneak gaitasun aldetik, eta seme-alabekin tarteka baino ez du egiten euskaraz: «Erdi eta erdi. Eskolan hasi direnean, hasi naiz bebai beraiekin euskaraz hitz egiten».

Bikotekideak oso oinarritzko maila du, eta bikoteko hizkuntza gaztelania da, ia beti. Telenofoz aritzen dira, batzuetan, euskaraz. Salbuespenak dira egoera horiek, dena den: «Adibidez, lanetik etortzen denean deitzen nau, eta batzutan hasten gara euskeraz. Nik uste dut ez garela ikusten, eta lotsa gutxiago ematen digula». Gainontzean, amaren eta seme txikiaren artean izaten da euskarazko elkarrizketa gehien, Eibarko etxean: «Eskolara joaterakoan edo eskolari buruz hitz egiteko, beti erabiltzen dugu euskera. Azkenean dira momentu motzak, baina berak ia daka harreman hori nerekin». Alaba nagusiarekin «zailagoa» dela baieztatu du amak: «Berak beste adin bat daka, eta erdera gehixau erabiltzen du. Berak ez du euskaraz erantzuten».

«Alabak, 5 urteko gelan zegoela, egun batean galdetu zidan: 'Ama, zuk zergatik hitz egiten duzu nerekin euskaraz, aitarekin eta lagunekin erderaz egiten baldin baduzu?'»
EIBAR-A

Pasadizo bar gogoratzen du Eibarko familiako amak, bitxikeria baino gehiago izan daitekeena: «Alabak, 5 urteko gelan zegoela, egun batean galdetu zidan: 'Ama, zuk zergatik hitz egiten duzu nerekin euskaraz, aitarekin eta lagunekin erderaz egiten baldin baduzu?'». Amak erantzun zion ikasteko egiten zuela: «Guretzako euskera da asignatura pendiente, guk ez dakigulako ondo. Haiek erabiltzen badute, lan bat aurkitzeko errazagoa izango da beraientzako. Neri ez zait gertatu, baina batzutan ezin duzu hartu lan bat ez daukazulako PL2 edo».

Euskaraz ikasi, ikasi dute Eibarko haurrek. Erabili, ordea, oso gutxi erabiltzen dute. «Lagunen arten beti erdera erabiltzen dute», aitortu du amak. Kristau Eskolako itunpeko eskolara doaz, eta «nibel akademikoarekin» oso gustura daudela dioten arren, amak badaki haurrek ez dutela euren artean euskaraz egiten. Beste gurasoen artean ere gutxi dira euskaldunak, eta horrek familiaren hizkuntza ohituretan eragiten duela uste du amak: «Gu, azkenean, ikastetxeagatik, erderaz bizi gara». Eguneroko harremanek eragin handia dute, beraz. Izan ere, ikuspegia zabaldua, Eibarren oro har euskarak aurrera egin duela uste baitu amak: «Eibarren gero eta gehixau entzuten da euskara. Gure garaian ez zen erabiltzen hainbeste».

Hizkuntza ohituren eragina transmisioan

Seme-alabek euskaraz dakiten arren, Eibarko familiako amak ez daki haien ondorengoei transmitituko dieten. «Zalantzak ditut», dio. «Azkenean, haiek euskaraz dakite, baina erdera erabiltzen dute. Adibidez, ezkontzen badira euskaldun zahar batekin, ba agian bai». Antzeko zalantzak azaleratu ditu Gaubeako sendiak, baita Gasteizkoak ere: «Segun norekin elkartzen diren».

Zamudioko amak, ordea, baietz uste du, euskararen harra barruan eramango duela semeak. Zailago ikusten du, aitzitik, euskararekiko harreman bakarra eskolan izan duenak euskara transmititzea: «Militantzia hori barneratu behar dute, eta zaila ikusten dut». Zeanuriko alabak ez du zalantzarik. Euskaraz egingo die seme-alabei: «Erakutsiko dotzet irakurtzen, idazten, lagunduko dotzet fitxak egiten, denetan».

X tipologiako familiak

Familia tipologia honetan guraso bakarra ere ez da euskalduna. Oso oinarritzko ezagutza dutenak ere badira, baina ez dira gutxieneko erosotasunez eta jartotasunez hitz egiteko gai. Tipologia honetako familietan, seme-alabek ez dute euskara etxean jaso, lehen hizkuntza gisa, eskolan hasi baino lehen. Etxeko hizkuntza erdara da, gaztelania edo beste bat.

Gaur egun X tipologiako familiak daude eremu soziolinguistiko batean zein bestean, herri handietan zein txikietan. Hala ere, oso ugari dira bigarren guneko soziolinguistikoko guneko urbanoetan eta lehen guneko udalerri txikietan.

Ez dute euskara behar izan

Donostiako X tipologiako familian, ama donostiarra da, eta aita, barakaldarra. Bien familiak erdaldunak dira, eta ingurua ere bai, oro har. «Mi lengua materna ha sido el castellano», azaldu du amak. «He ido a escuela de monjas, siempre en modelo A, todo en castellano. Teníamos la asignatura de euskera, así que tengo un nivel muy básico; te puedo entender algo, y no lo hablo, porque sé que no lo hago bien, y me da vergüenza. Entre mis amigos algunos hablan euskera y otros no, lo normal». Barakaldon, are erdaldunagoa da giroa, aitaren ustez: «En Barakaldo se habla muy poco. Todos los amigos que yo tengo hablan en castellano. En Donosti se oye más euskera».

«Para compensar que en casa hablamos castellano, decidimos matricular a los niños en la Ikastola, para que allí hablasen euskera. Aparte de eso les llevamos a actividades como el Haurtxoko y cosas así, que son en euskera, para que ellos lo puedan practicar»
DONOSTIA-X

Bikoteko harreman hizkuntza gaztelania da, eta etxekoa ere bai, salbuespenak salbuspen. «En casa siempre hablamos castellano, y lo poco que sé que está bien dicho en euskera, lo hablo con los niños», dio amak. Ez badago seguru nola esan, ez du euskaraz egiten: «Por no confundirles, porque ellos sí que van a modelo D, van a la ikastola». D ereduko eskola publikora doaz seme-alabak, gurasoek erabakita, neurri batean, etxean ez daukatena jaso dezaten: «Para compensar que en casa hablamos castellano, decidimos matricular a los niños en la ikastola, para que allí hablasen euskera. Aparte de eso les llevamos a actividades como el haurtxoko y cosas así, que son en euskera, para que ellos lo puedan practicar».

«Sí que tengo varias amigas que han seguido aprendiendo euskera, por sus profesiones. Si a mí me hubiese dado por opositar en Vitoria, pues me hubiera hecho falta»
LANTARON-X

Lantarongo familian, bi gurasoak udalerrian bertan jaio eta hazitakoak dira, familia eta lagunarte erdaldunetan. Denborarekin ahaztu zaie A ereduko eskolan ikasi zuten euskara apurra. «Posteriormente no he seguido aprendiendo euskera, porque no me ha hecho falta. Y la verdad es que me ha ido bien; trabajo en Burgos, no me hace falta el euskera, y entonces no me he visto en la necesidad de estudiar euskera», dio du amak, lanarekiko lotura eginez: «De hecho, sí que tengo varias amigas que han seguido aprendiendo euskera, por sus profesiones. Si a mí me hubiese dado por opositar en Vitoria, pues me hubiera hecho falta». Gaztelania da bikoteko hizkuntza, eta harreman guztiak gaztelaniaz edukitzen dituztela adierazi du aitak: «Con la gente con la que nos relacionamos, aunque muchos saben euskera, todos saben castellano y siempre nos hemos relacionado en castellano».

3 urteko alaba D eredu eskolara joaten da, Gaubeara. Irakasleak gurasoei adierazi die euskara ondo ulertzen duela, baina oraingoz, ez duela erabiltzen. «Probablemente por eso, porque en casa no lo utiliza», dio amak. Hala ere, Lehen Hizkuntza amaitzerako euskaraz ondo hitz egiteko gai izango dela uste du amak: «Cuando salgan de la escuela tendrán un buen nivel. Es una escuela rural pequeñita y están diez en clase. Además, el nivel es bueno».

«Hace tres años mis hijos empezaron en Primaria, y yo empecé a aprender euskera para poder ayudarles, sobre todo. También porque en algunos trabajos, que son sencillos, exigen euskera. Pero el motivo, sobre todo, son mis hijos, para poder ayudarles con sus deberes»

AZPEITIA-X

X tipologia gero eta ohikoagoak dira Espainiako Estatutik kanpoko herrialdeetan jaiotako gurasoek osatutako familiak: bai gune erdaldunetan, baita euskaldunetan. Azpeitiko X tipologia sendian, gurasoak aljeriarrak dira. Hamar urte daramatzate Euskal Herrian: Azkoitian lehenengo eta Azpeitian ondoren. Arabiera dute lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza, frantsesez moldatzen dira eta gaztelania ikasi dute. Euskararekin ama bakarrik ausartu da: «Hace tres años mis hijos empezaron en Primaria, y yo empecé a aprender euskera sobre todo para poder ayudarles. También porque en algunos trabajos, que son sencillos, exigen euskera. Pero el motivo, sobre todo, son mis hijos, para poder ayudarles con sus deberes».

Seme-alabei eskolan lagundu ahal izatea da motibaziorik handiena, beraz. Dena den, adierazi du sentitu izan duela herritarren nolabaiteko «presioa» ere: «Al principio, para mí era necesario saber castellano. Pero muchas veces me decían que tenía que aprender euskera. En Azpeitia se habla más euskera. Cuando vamos fuera, por ejemplo a Donosti, siempre escucho a la gente hablar en castellano. En Azpeitia, más euskera».

Donostiako eta Lantarongo familiei ere gustatuko litzaieke seme-alabei etxeko lanekin lagundu ahal izatea, baina diote gaur egun ez daukatela euskara ikasteko aukerarik. «Denbora falta» da haien eragozpen handiena. «Ahora me gustaría más que nada por ella, porque me va a traer los deberes o me va a comentar cosas, y al final, me gustaría echarle una mano. Pero al final están los críos, además, viviendo en un pueblo es desplazarte, volver, son por lo menos dos horas. En mi caso el mayor impedimento es el tiempo», argudiatu du Lantarongo amak.

«Lo complicado es formar un grupo que cuaje, porque todos tengan el mismo nivel o porque se apunten por un mismo motivo. Además, tiene que ser una cosa dinámica, no puedes estar dando gramática a las ocho de la tarde, después de trabajar todo el día»

LANTARON-X

Lantarongo aita ibili zen euskara ikastaro batean, baina ez zuen esperientzia ona izan. Batetik, azaldu du ikasleen maila desorekatua zela, eta bestetik, metodologia ez zela egokia: «Hoy en día hay subvenciones, dan facilidades. Pero lo complicado es formar un grupo que cuaje, por que todos tengan el mismo nivel o porque se apunten por un mismo motivo. Además, tiene que ser una cosa dinámica, no puedes estar dando gramática a las ocho de la tarde, después de trabajar todo el día».

Hizkuntza ohiturak, testuinguruaren barruan

Aztertutako hiru kasuetan gurasoak erdaldunak dira, eta etxeko hizkuntza erdara da. Seme-alabak D ereduko eskola publikora joaten dira. Euskara ikasten ari dira denak, baina garatzen ari diren hizkuntza ohiturak ez dira berdinak.

«Entre ellos sé que en el patio, según con qué amigos, hablan castellano», azaldu du Donostiako amak: «Con el castellano están como más sueltos, porque lo hablan más. Pero la andereño dice que se maneja bien en euskera. Solo que a lo mejor si viene un niño de padres euskaldunes, habla más rápido, y ella se corta, porque es muy lotsati». Gaubeako eskolan lorpen handi bat erdietsi dutela baieztatu du Lantarongo amak: «En la escuela están consiguiendo que los chavales en el patio hablen euskera». Aitortu du, hala ere, eskolatik ateratzen direnean gaztelaniara itzultzen direla.

Azpeitiko familiako amak, aitzitik, uste du seme-alabak erosoago sentitzen direla euskaraz gaztelaniaz baino: «El castellano no lo tienen muy interiorizado. El euskera más, pero no sé cuánto, no sé valorar su nivel de euskera. De todas formas, el árabe tampoco lo hablan correctamente, y eso les pasa porque no lo hablan más que en casa». Euskara eskola bereziak jasotzen dituzte seme-alabek, guraso erdaldunak dituzten gainerakoek bezala, arratsalde, euskaltegian. Eskolako lagun gehienak euskaldunak direla adierazi du amak, eta euskaraz egiten dutela seme-alabek. Are gehiago, lagun arabiarrekin ere, euskaraz edo gaztelaniaz egiten dute.

Euskararen garrantziari eta bilakaerari buruzko iritziak

X tipologiako hiru etxeetan oso presentzia eskasa du euskarak. Kanturen bat edo telebistako edukiren bat sartzen da gehienez. Baina, orokorrean, marrazki bizidunak ere gaztelaniaz ikusten dituzte, gurasoek azaldu dutenez. Ingelesarekin ez dute ahalegin berezirik egin, nahiz eta etorkizunean garrantzitsua izango dela iruditzen zaien, lan munduarekin lotuta, batez ere.

*«Les decimos que para tener un buen futuro, un buen trabajo, ganar mucho dinero y poder viajar, euskara, e inglés también»
DONOSTIA-X*

Euskararen garrantzia ere ideia berarekin lotu du Donostiako X tipologiako familiak. «Les decimos que para tener un buen futuro, un buen trabajo, ganar mucho dinero y poder viajar, euskara, e inglés también», aipatu du amak. «Eso les motiva». Lantarongo gurasoek bizitokiarekin lotu dute, nahiz eta gaur egun, herrian ez den euskararik entzuten: «Si van a vivir aquí, es un idioma que tienen que saber». Erabilerak, hortaz, ez ditu kezkatzen, onartua dute haien inguruko egoera: «Para cambiar el hábito del euskera en estos pueblos se necesitan treinta años por lo menos. No se va a cambiar de la noche a la mañana».

Azken hamarkadetan euskarak aurrerapauso nabarmenak eman dituela uste dute Lantarongo gurasoek. Hezkuntzan eta ezagutzan, batez ere. «Antes teníamos unos profesores malísimos. Entonces, cuando tú llegabas a Vitoria, llevabas un nivel que no era nivel, y desconectabas completamente del euskera». Kaleko erabilerari dagokionez, Lantarongoak ez bezala, Donostiako familiak bilakaera handia ikusi du, gune batzuetan bereziki: «Va por zonas o por barrios. De pequeña vivía en Amara Viejo, y ahí muy poco euskera. Aquí en Egia si se oye mucho euskera. Yo creo que ha evolucionado mucho, ahora oír euskera por la calle es lo más normal del mundo, nadie te mira raro».

Ondorioak eta gako nagusiak

1. Arloz arloko ondorioak

Euskararen familia bidezko transmisioa luze-zabal aztertu da ikerketa honetan: esparru batetik eta bestetik erreparatu zaio transmisioari, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuta, eta guraso tipologiaren arabera egituratutako azterketa bat ere egin da. Jasotako emaitzak oinarritzat hartuta, ardatz nagusiak bildu dira hemen.

Ondorio hauei dagokienez, aintzat hartu behar da egoera soziolinguistiko orokorra, sarrerako atalean jorratu dena. Hiru erpin nagusi ditu. Bat: ezagutza areagotzen ari da, batik bat belaunaldi berrien bidez, eta eremu erdaldunagoetan, gainera, euskaldunenetan atzeraka ari baita. Bi: erabilera ere igo da, baina hein txikiagoan; portzentajearen, euskaldun gutxiagok egiten dute euskaraz, eta udalerrri euskaldunenetan atzerakada dago. Eta hirurik: euskara lehen hizkuntza gisa duten herritarrak gutxiago dira, nahiz eta gazteenetan areagotu; gehiago dira etxetik kanpo euskara ikasi dutenak —euskaldun berriak—, eta etxean gaztelania eta euskara aldi berean jaso dituztenak.

GURASOEN TRANSMISIOA

1. **Gurasoen soslai soziolinguistikoa.** Seme-alabei euskara transmititzeko, aldagai funtsezkoa da gurasoen egoera. Batetik, gaitasuna: euskaraz moldatzen ote diren, eta, hala bada, zer erraztasun daukaten. Bestetik, lehen hizkuntza: umetan zer hizkuntza jaso zuten. Bi faktore horien arabera, alde adierazgarria dago euskararen transmisioan: guraso biak euskaldunak direnean eta euskara dutenean lehen hizkuntza, erabat bermatua dago haurrek euskara jasoko dutela; guraso bakarra denean euskalduna eta lehen hizkuntza erdara duenean, umeen erdiek jasotzen dute euskara —gaztelaniarekin batera—.
2. **Eboluzioa.** Sei guraso tipologia hartu dira kontuan ikerketan, gurasoen ezagutza eta lehen hizkuntza konbinatuta. Interesgarria da aztertzea tipologia bakoitzaren bilakaera: zein familia mota ari diren pisua hartzen eta zer jokabide duten euskararen transmisioari dagokionez. Nabarmena da X tipologia atzeraka ari dela, eta gaur egungo aita-ametaren gurasoetako batek behintzat badaki euskaraz. Baina irabazia ez doa D tipologiako zakura, baizik eta bikote mistoetara edo euskaldun berriek osatutakoetara. Horrekin batera, gero eta txikiagoa da erdara soilik transmititzen dutenen ehunekoa —bostetik hiru dira oraindik—, baina ez da hainbeste igo erabat euskarazko transmisioa: bi hizkuntzetako joera da indar hartzen.
3. **Transmisioari buruzko ikuspegia.** Gurasoen soslai soziolinguistikoaren arabera erabat aldatzen da euskara transmititzeari buruz zer ikuspegi daukaten. Bi gurasoak euskaldunak direnean eta euskara etxean jasoa dutenean, seme-alabei euskara transmititzea ez da gogoeta baten ondorioa: jokabide naturala da haien zatik. Gurasoen lehen hizkuntza erdara bada edo gaitasun mugatuagoa badute, hautu kontzienteagoa izaten da euskara transmititzea, areago euskararen erabilera mugatuagoa den herrietan. Euskararen transmisiorik eza areagotu egiten da gurasoen gaitasuna jaitsi ahala —bikoteko erabilera ere jaisten da—. Euskara transmititu ez duten gurasoek argudio bat hartzen dute ahotan: eurek ere egin dutela urrats bat euskara seme-alabei emateko, eskolan D eredura bidali dituztela umeak.

4. **Gurasoen sexua.** Familia mistoetako transmisioa generoaren ikuspegitik aztertuta, aldeak daude, nahiz eta txikiagotzen ari diren. 16 urtetik gorako herritar guztiak aintzat hartuta, hau da joera: guraso euskalduna ama denean, erdietan baino gehiagotan euskara jaso dute seme-alabek; euskalduna aita denean, herenek. Adin talde gazteagoetan, txikiagoa da aitaren eta amaren arteko aldea, eta handiagoa da euskararen transmisioa.

BI HIZKUNTZEN FENOMENOA

5. **Hedatzen.** Adierazgarria da nola areagotu den etxean euskara eta gaztelania aldi berean transmititzeko joera. Horren oinarrian zer dagoen, aita-amen gaitasuna da faktore bat: gurasoetako batek euskara ez jakitea, edo gurasoek erraztasunik ez edukitzea euskaraz jarduteko. Neurri mugatuagoan, badago guraso batzuen hautu kontzientea ere: nahi dute umeei ondo jakitea bi hizkuntzak, eta uste dute horretarako bidea dela etxean biak jasotzea.
6. **Bi jokabide.** Etxeko elebitasunean eragin handia dute hizkuntza ohiturek ere, gurasoen artean ezarritako hizkuntza ohiturek. Egia da seme-alabak izateak hizkuntza mudantza ekartzen duela bikote batzuetara —erdararako joera utzi, eta euskaraz hasi—, baina hedatua dago bestelako jokabide bat: umeei euskaraz egin, eta bikotekideari, erdaraz. Bikoteko hizkuntza eta seme-alabekikoa bat ez datozenean, nabari da haurrak koskortu ahala areagotu egiten dela erdararako joera, bikoteko aldaera nagusitzen dela. Guraso gehienak bat etorri dira esatean beren jokabideak eragin handia duela haurrengan: imitatzeke joera sumatu dute.
7. **Aldea.** Bi hizkuntzen fenomenoak aurrerapausotzat har daiteke erdara hutsezko testuinguruetan, baina ezin da parekatu euskarazko transmisioarekin eta etxe giroarekin. Lehen hizkuntza euskara izan edo biak izan, alde handia dago euskararen ezagutzan, erraztasun erlatiboan eta erabileran.

INGURUA

8. **Kutsu soziala.** Hizkuntzaren transmisioak kutsu sozial nabarmena du: gurasoetatik eta etxetik haragokoa da, eta inguruak eragin handia du. Zenbat eta inguru euskaldunagoa, handiagoa da transmisioa. Herria mesedegarri edo oztopatzaile da euskara transmititzeko: inguru euskaldunetan, egunerokoan leku handia duen tokietan, transmisiorako joera handiagoa dute gurasoek, eta etxean jasotakoaren osagarri da kalea; eremu erdaldunagoetan, ordea, kaleak ez du etxea babesten, eta, areago, etxeko hizkuntza egoerari ere eragiten dio.

FAMILIA

9. **Katea.** Gurasoen ezagutza giltzarria da euskara transmititzeko, baina beste aldagai batek ere zerikusi handia du: haien lehen hizkuntzak, umetan etxean jaso zutenak. Euskara jaso zutenek kate baten gisan transmititu dute, eta familia eremu zabala mesedegarri izan ohi zaie: denek edo ia denek dakite euskaraz, euskaraz jarduteko ohiturak dituzte finkatuta, eta hurrekiko hizkuntza joerak bat datoz familiako ohiturekin. Tipologia horretatik aterata, ordea, gero eta erdaldun gehiago agertzen hasten dira familian: aita-ametako baten familia adarra, aitona-amonak, osaba-izebak... Euskararen erabilera jaitsi egiten da horren ondorioz.

10. **Jokabideak.** Familian kide erdaldunak daudenean edo erdaraz aritzeko ohiturak errotuta daudenean, bi joera nabari dira gurasoen artean: jokabide elebiduna —helduen artean erdaraz, umeekin euskaraz; adin bat arte eutsi ohi diote horrela— edo erabat erdarazkoa. Horren aurrean, guraso batzuek hartu dituzte estrategia batzuk, umeek familia giroan euskaraz gehiago egin dezaten, batik bat familiako kide euskaldunekiko harremana ugartuz —gehienetan, lehengusuekin eta izeba-osabekin—. Beste batzuek, ordea, bi hizkuntzen aldeko diskurtsoaren haritik, positibotzat jo dute sendiko kide batzuekin erdaraz jardutea.
11. **Aitona-amonak.** Kontuan hartzekoa da aitona-amonen kasua, umeen zaintzan daukaten protagonismoagatik. Euskararen ezagutza txikiagoa da aitona-amonen belaunaldian.

FAKTORE SOZIOAFEKTIBOAK

12. **Transmititzeko arrazoiak.** Gurasoen tipologiak eragina dauka euskararen transmisioan, eta argudioetan ere bistakoak dira diferentziak. Lehen hizkuntza euskara duten guraso euskaldunek katea dute arrazoibide: euskara jaso eta eman egin dutela. Euskara etxean jaso ez zuten gurasoek, berriz, beste argudio batzuk dituzte seme-alabei euskara transmititzeko: sentimentala —Euskal Herrian euskaldun izanik inportantea dela euskara transmititzea—, ahaleginarena —eskolan edo euskaltegian euskara ikasten egindako ahaleginari zukua atera nahi diotela— eta utilitarioa —seme-alabek laneratzean euskara beharko dutela—.

ETXEKO INGURUNEA

13. **Telebista eta liburuak.** Ahozko jardunetik harago, etxean dauden liburuei eta ikus-entzunezkoei erreparatu zaie, eta badago aldea: liburuetan euskarazkoak daude ugalduen —maiz, eskolaren osagarri—, baina ikus-entzunezkoetan, erdarazko edukiak. Telebistan argia da joera: umeak koskortu ahala, gero eta erdaldunagoa da kontsumoa. Gurasoek kalitate falta aipatu dute. Beste faktore bat ere aintzat hartzekoa da: guraso gehienek erdarazko telebistetara jo ohi dute. Telebistaren alboan, gero eta garrantzi handiagoa dute ikus-entzunezkoen esparruko plataforma berriek: erdarak are indar handiagoa du horietan.
14. **Euskal kultura.** Umeentzako liburu bidez du sarbiderik handiena euskal kulturak etxe horietan. Hortik aurrera, agerikoa da euskal kulturak muga handiak dituela guraso eta ume horiengana iristeko. Adituek bereziki ohartarazi dute plataforma berrien eraginaz.

BESTE HIZKUNTZAK

15. **Migrazioaren eragina.** Gero eta herritar gehiagok dituzte lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania ez beste hizkuntza batzuk, nahiz eta portzentajearen pisu txikia duten oraindik. Kontuan izatekoa da Latinoamerikako immigrazioak pisu esanguratsua daukala EAEn, eta herrialde horietan gaztelania dutela lehen hizkuntza.
16. **Ingelesaren pisua.** Atzerriko hizkuntzei dagokienez, oso hedatua dago ingelesa jakitearen garrantziari

buruzko iritzia. Eskolako irakaskuntzaz aparte, guraso ugari hartzen dituzte neurriak seme-alabek ingelesa egoki ikas dezaten, bai aparteko eskoletara eramanda, bai etxean bertan lekua eginda. Oraingo halako neurririk hartu ez duten gurasoek ere ez diote atea itxi: argudiatu dute umeak txikiegiak direla, gurasoek eurek ez daukatela gaitasunik etxean ingelesez jarduteko eta euskara dela haien lehentasuna orain

HEZKUNTZA

17. **Euskara gaitasuna.** Euskarazko irakaskuntzak aurrerapen nabarmena egin du urteotan, eta orokortua dago hasierako irakastaldietan. Ebaluazio diagnostikoak erakusten du, hala ere, ikasleen ia erdiek ez dutela lortzen euskararen ezagutzari dagokionez zehaztutako helburua. Etxean euskara jaso dutenen kasuan gehiagok lortzen dute gutxieneko maila: lautik hiruk.
18. **Osagarritasuna.** Eskola eta familia elkarren osagarri dira. Guraso gehienek adierazi dute ikastetxearekiko harremanetan hizpide izaten dutela euskara: irakasleek proposamenak egiten dizkietela eta eskolaz kanpoko jardueren garrantziaz ohartarazten dituztela, besteak beste. Jokabide hori ez dago, ordea, eskola guztietan sustraitua. Areago, guraso batzuen artean sumatu da joera bat, batik bat euskaraz jarduteko gaitasunik edo erraztasunik ez daukatenen artean: ardura ikastetxeen gain uzteko joera.

SEME-ALABEN ERABILERA

19. **Etxearen eragina.** Seme-alaben erabileran eragin handia dauka etxeko jardunak: etxean euskara jaso duten haur eta nerabe gehienak euskaraz aritzen dira eskolan. Euskararen erabileran eboluzio bat nabari da nerabezaro garaian: koskortu ahala, txikiagoa da erabilera. Galera hori orokortua da, baina leunagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen eta etxean euskaraz aritzen direnen artean —jaitsiera adierazgarriagoa etxean bi hizkuntzak edo erdara jaso dituztenen artean—. Koskortu ahala euskararen erabilera gutxitzea ez da eskolan soilik gertatzen: etxean ere nabari da.
20. **Gurasoen iritzia.** Seme-alabek euskararekin duten harremanarekin pozik daude aita-ama gehienak: batzuk, ikusten dutelako katearen jarraipena gertatu dela —eurek jasotako hizkuntza seme-alabek ere jaso dutela—; beste batzuk, aurrerabidea sumatu dutelako beren haurtzarotik seme-alaben egoerara —guraso erdaldunen kasuan edo euskaldun berrietan nabari dira—. Kezka batzuk ere ageri dira gurasoen solasetan, hala ere: umeek ez dutela behar adina erabiltzen euskara, eta koskortu ahala gutxiago erabiltzen dutela.

ETORKIZUNA

21. **Ezagutzaren aurrerabidea.** Baikor dira guraso gehienak: ongi ikusten dute euskararen bilakaera. Argudio bat dute horretarako: ezagutza areagotzen ari dela, belaunaldi berrietan orokortua dagoela euskaraz jakitea. Ezkor daudenek beste argudio bat dute: erabilera. Nahiz eta ezagutzan pausoak eman, euskararen erabilera ez dela nabarmen areagotu.

GALDERA NAGUSIAK

1. Hizkuntza ohiturak aldatzeko zailtasunak

Euskararen erabilerarekin zuzeneko zerikusia dute gaitasunak eta inguruak: euskaraz aritzeko, ohitura hartzeko, euskaraz jarduteko adinako gaitasuna izan behar du norberak, eta inguruan eduki behar du euskaraz norekin jardun. Bi baldintza horietan kamustasunak daude oraindik: nahiz eta euskararen ezagutzak aurrera egin duen, euskaraz badakiten herritar ugariaren gaitasunak arrakalak ditu —eta hutsune horiek sentitu egiten dituzte hiztunek—; eta inguruan duten hiztun soslaiak ere gisa berekoa, edo erdalduna. Kontuan izan behar da eskolan euskaldundutako herritar sailak ari direla guraso izaten gaur egun: ezagutzaren ikuspegitik aurrerapen nabarmena da hori, zimendua jartzen duena, baina aita-ama horien ezaugarriek hutsuneak dituzte gaitasunaren eta inguruaren ikuspegitik. Eta horrek berebiziko eragina du hizkuntza ohituretan. Sorgin gorpila da: gaitasunaren arrakalak izanik, eta inguruan euskaraz aritzeko aukera murritza, hizkuntza ohituretan erdara irteten da gailen; eta erdarazko hizkuntza ohiturek gaitasunari eragiten diote, are gehiago kamustuta. Elkar elikatzen dute euskararen ezagutzak, euskaraz aritzeko motibazioak eta euskararen erabilerak.

2. Hizkuntza hautu jakinak hartzeko arazoak

Gaitasun mugatuak eta erabilera ohitura txikiek inertzia bat dakarte: erdarara jotzea. Badira hautu kontzientea egin duten gurasoak, euskararen transmisioa eta erabilera ardatz gisa hartu dituztenak, baina gehienentzat horma handia da hori: bikote mistoak direlako, ez dutelako euskaraz jarduteko adina gaitasun sentitzen, urteetan erdaraz aritu direlako eta aldatzeko urratsa gehiegizkotzat ikusten dutelako... Horrek desioaren eta errealtatearen arteko gatazka bat jartzen die mahai gainean: nahi dute hurrek euskaraz jakitea, baina gurasoek eurek ez dute euskaraz egiten. Kode alternantzia ohikoa da: umeein euskaraz, gainerakoekin erdaraz. Gaitasunak ere zerikusi handia du horretan: euskara gaitasun mugatua dutenentzat eroso da hurrekin euskaraz egitea, seme-alabek adin bat bete arte. Hortik aurrera, errefortzu handirik ezean, erdarara gailentzen da.

Beste bi faktorek ere bultzatzen dute jokabide hori. Batetik, askotan hurrek euskara jakitearekin konformatzen dira gurasoak, eta erabilerak ez ditu hainbeste kezkatzen; inguru erdaldunetan bereziki, aita-amek askotan onartuta daukate hurrek ez dutela euskara egunerokoan erabiliko. Bestetik, euskara ikasteko motibazioa. Euskara eskolan ikasi dutenen kasuan, erabakia ez da haiena izan zuzenean, ez da haien desioan oinarritu: beren aita-amek erabaki zuten. Euskara emana iritsi zaie. Horrekin batera, badira euskara heldutan ikasi dutenak ere, batik bat motibazio instrumentalagatik: laneratzeko beharko zutelakoan.

3. Testuinguru soziolinguistikoaren eragina

Hizkuntza transmisioa fenomeno soziala da, ez da etxe arteko lau hormetara mugatzen. Alde horretatik, herriko egoera soziolinguistikoa mesedegarri edo oztopatzailerik da. Eragina handiagoa da etxeko egoera sendoa ez denean: kode alternantzia badago etxean, bi hizkuntzak transmititu badira, euskaraz aritzeko aukera eta ohitura mugatua bada, joera hori indartu egingo du herriaren egoerak. Etxean errotuta badago euskara, euskaraz aritzeko ohitura sendotua badago, arinagoa da eragina, nahiz eta nabaritu —esate baterako, gaztetxoak nerabezarotan daudenean—. Eremu euskaldunetan, rol mesedegarria du herriak: transmisiorako indargarria da, eguneroko bizitza sozialean presentzia sendoa duelako euskarak, eta euskara gaitasuna areagotzeko ere gune aproposenak dira.

4. Emozio, sentimendu eta aurreiritzien eragina, bereziki hiztun berrietan. Nola sentiitzen diren

Euskararekiko bizipenek eta sentimenduek eragin nabarmena dute transmisioan: euskara etxean jasoa duten edo ez, zerk motibatu zituen euskara ikastera, familian transmisio etenik egon den... Alegia, gurasoen biografia linguistikoak, umeak izan aurreko ibilbideak, eragina du seme-alabak izan ondorengo hizkuntza jarraipenean. Biografia linguistiko horretan, lehen hizkuntzak eragin handia du esparru batzuetako erabileran: sentimenduei eta emozioei buruz hitz egiterakoan, esparru intimoenean, lehen hizkuntzara jo ohi dute gurasoek. Hizkuntza ohiturak euskalduntzeko traba da hori, lehen hizkuntza euskara ez dutenen bikote harremanetan daukan eraginagatik.

Egia da seme-alabak izateak eragiten dituela aldaketa batzuk arlo horretan: euskara ikasteko motibazioan eragiten du —lanerako behar zutelakoan hasitako guraso batzuek ikasten jarraitzen dute seme-alabekin erabiltzeko—, etxeko hizkuntza ohiturei buruzko gogoeta eragiten du —hizkuntza mudantza egiteko garai aproposa da umeak izatea—, euskarari buruzko kontzientzia berpizteko akuilua da... Baina, kasu askotan, eragin mugatua dute errefortzu horiek guztiek: umeak koskortu ahala arindu egiten da hautu hori, eta areago nerabezaroan, umeek ere erdarara jotzean.

5. Hizkuntza ohituren aldaketa denboran (bikotean, guraso-umeen artean, umeen artean)

Badira garai batzuk non hizkuntza ohituren aldaketaz gogoeta egiten duten gurasoek: transmisioaren gaia hizpide dela, nabarmentzekoa da seme-alabak edukitzean egiten duten gogoeta. Aita-ama gehienek aitortu dute gurasoen jardunak eragin handia duela seme-alabengan, eredu direla, eta ahalegina egiten dute haurrei umetan euskaraz irakasteko eta haiekin euskaraz aritzeko. Kontua da denboran zertan geratzen diren aldaketa horiek. Haurrak izatea indargarri handia da hizkuntza mudantza egiteko, baina guraso tipologia gehienetan —biak euskaldunak eta lehen hizkuntza euskara dutenak izan ezik— horma handia izan ohi da aurrez ezarritako hizkuntza ohiturak aldatzea: ahalegina egin arren, bidean geratzen dira bikote ugari. Eta horma horrek itzala egiten die etxeko gainerako esparruei: seme-alabekiko harremana erdalduntzen joaten da urteek aurrera egin ahala, kode alternantziak baitakar hizkuntza dominatzailea gailentzea.

6. Hizkuntza ohituren aldaketan eragina familiak, lagunarteak eta lan giroak

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ezin da bakartutzat hartu, inguruko harreman sozialek ere bai baitute eragina. Familia zabalak lehenik, batik bat aitona-amonek: belaunaldi horretan da apalena euskararen ezagutza, eta umeen zaintzan protagonismo handia dutenez, etxean maiz izaten dira. Erdarara jotzea dakar horrek. Guraso batzuek landu dituzte estrategiak familia giroan euskaraz gehiago egiteko —lehengusuekiko harremana indartuz, adibidez—, baina kasu gehienetan erdaraz aritzen diren familietan bizi dira seme-alabak. Lagunartearen eragina ere kontuan hartzekoa da, esparru informalekin lotua dagoenez gero: kode alternantzia hori areagotu egiten da lagunartean maiz, guraso eta seme-alaba gehiago juntatzeko leku direnez kuadrillak —umeei euskaraz egiten diete, eginarazi ere bai, eta gurasoak beren artean erdaraz jarduten dira—. Lan esparruari dagokionez, nabarmentzekoa da esparru batzuek aukera ematen dutela euskara gaitasuna garatzeko eta erabilera eremu bat izateko —batik bat administrazio publikoko lanpostuetan: hezkuntzan, osasunean, administrazio orokorrean—, baina kasu guztietan horrek ez du islarik transmisioan eta etxeko hizkuntza ohituretan.

7. Prozesu arrakastatsurako gakoak

Transmisio prozesu arrakastatsuak sumatu dira ikerketan, bi bidetatik. Batetik, bide naturala: jaso eta eman egin duten aita-amak, familia euskaldunetan haziak eta kasu askotan eremu euskaldunetan bizi direnak. Ez dute aparteko gogoetarik egin euskararen transmisioari buruz: «natural» eman diete euskara seme-alabei. Horrek ez du esan nahi euskararekiko kezkarik ez dutenik: besteak beste, seme-alaben ahozketasunarekin eta lexikoarekin agertu dute ezinegon. Bide natural hori eremu erdaldunetan ere badago, baina gogoeta eskatzen die gurasoei, kaleko egoeratik etxekora aldaketa handia dagoenez gero. Bestetik, bide kontzientea dago: berariaz hartutako erabakia izatea euskara transmititzea, haurra jaio aurretik adostua. Zenbat eta eremu erdaldunagoa, kontzientzia maila handiagoa eskatzen du hautu horrek, ekimen handiagoa. Hautu kontziente horrek baditu oinarri batzuk; besteak beste, militantzia sozial eta politikoa edo euskara ikasten egindako ahaleginari zukua atera nahia.

8. Aldaketa erabatekoa edo apurkakoa

Hizkuntza ohiturak aldatzeari dagokionez, mugarría izan ohi da seme-alabak jaiotzea, baina aintzat hartzekoa da gurasoen artean lehenago izana dela beste mugarri bat: bikotea osatu zutenekoa. Alde horretatik, seme-alabak izatea mugarri sendoa izan arren, erdaraz finkatutako ohiturak zama izaten dira hori iraultzeko. Alde horretatik esan liteke etxe askotan aparraren erakoa izaten dela ohituren aldaketa: hasieran, bai, haurra txikia den bitartean aldatzen dituzte ohiturak —batez ere umeekin, edo haiek aurrean daudenean—, baina urteak joan ahala ahultzen joaten da. Badira, nolana ere, erabat iraultzea lortu dutenak: euskaraz aritzeko ohitura herdoildua zutenak, eta seme-alabak izatearen ondorioz atzendutako hizkuntza berreskuratu dutenak. Aldaketa erabatekoa izateko, baina, ezinbestekoa da baldintza bat: guraso bien arteko hautu kontzientea, adostasun sendoa, umeekiko harremana ez ezik bikoteko erlazioa ere euskarazkoa izan dadin.

2. Familia tipologia bakoitzaren ezaugarriak, transmisioari dagokionez

D tipologia

- 1 **Katea.** Euskara transmititzea familiako beste katebegi bat jartzea izan da guraso horientzat: jaso bezala eman dute. «Naturaltasunez».
- 2 **Ohiturak.** Euskara etxean jaso zuten guraso gehienek euskaraz aritzeko ohitura dute: ez umeak edukitzean ezarria, ez hurrekin bakarrik aritzera bideratua, baizik eta bikotean eta etxeko giroan euskaraz egitekoa. Hori da haurren transmisiorako elikagai nagusia.
- 3 **Gaitasuna.** Lehen hizkuntza euskara izanik eta euskaraz aritzeko ohitura finkatuta, tipologia honetako gurasoen artean ageri da euskaraz aritzeko gaitasunik eta erraztasunik handiena. Transmisiorako giltzarria da hori, ume-umetako transmisiotik harago joateko bidea baitakar.
- 4 **Alternantzia.** Etxeko jardunean mugatua da hizkuntza alternantzia: oro har ez dira batzuekin erdaraz aritzen eta besteekin euskaraz. Alternantziak, izan ere, maiz dakar erdara gailentzea, batik bat umeak koskortu ahala.
- 5 **Familia.** Gurasoak euskaldunak dira, euskara umetan ikasiak, eta kasu gehienetan familia esparrua ere euskalduna da: aitona-amonak, osaba-izebak, lehengusuak... Euskara transmititzeko amaraun zabalagoa izatea dakar horrek, eta euskaraz aritzeko leku handiagoa.
- 6 **Herriaren eragina.** Kaleko egoerak badu eragina tipologia horretako gurasoengan eta seme-alabengan, oztopatzaile edo mesedegarri delako, baina etxean euskarari eusteko gai dira, nahiz eta eragin hori nabaritu, batik bat erabileran, haurrak nerabezarora hurbildu ahala. Euskararen egoera sozialak ez du transmisioa kolokan jartzen.
- 7 **Etxearen irradiazioa.** Etxeko hizkuntza joerak eragina du seme-alabek gainerako arloetan duten erabileran: ohitura ezarria badute euskaraz jarduteko etxean, neurri handiagoan eusten diote etxetik kanpo ere, nahiz eta nerabezaro garaian-eta gorabeherak izan.
- 8 **Erdararen sarbidea.** Euskaraz egiteko ohitura finkatua egon arren etxean —bai umeekin, bai bikotean—, erdarak badu sarbidea tipologia horretako etxeetan ere. Telebista da sarbide nagusia, eta ikus-entzunezko plataforma berriak.
- 9 **Erdarazko jarduna.** Tipologia honetako gurasoek eta seme-alabek euskara izanik ere etxeko hizkuntza, horrek ez du esan nahi erdarari erabat uko egiten diotela. Gurasoek, adibidez, lagunartean eta lantokian erabiltzen dute, tokian tokiko egoeraren arabera; seme-alabek, berriz, nerabezaroan hartu ohi dute joera.
- 10 **Hizkuntza kalitatea.** Seme-alaben euskara kalitatearekin kezka dute tipologia honetako guraso ugariak. Galera ikusten dute ahozketasunean, esamoldeetan eta halakoetan. Euskalkiei buruzko kezka ere sumatu da.

B + tipologia

- 1 **Transmisioa, bermatua.** Lehen hizkuntza euskara izan duen gurasoak jarraipena ematen dio transmisioari, bikoteko hizkuntza ohitura edozein delarik ere. Seme-alabekin, gutxienez, euskaraz egiten du, gehien-gehienetan, era natural batean.
- 2 **Bikoteko hizkuntza.** Harremana sortu zen momentuko hizkuntza garrantzitsua bada ere, tipologia honetan, bikoteko hizkuntza euskararen aldera lerratzeko indar eragile indartsu bat dago: bikoteko euskaldun zaharra (edo jatorrizko elebiduna). Dena den, beste zenbait faktorek ere eragiten dute: euskaldun berriaren gaitasunak, bikotekide bien jarrerak, edo familiako eta herriko testuinguru soziolinguistikoak. Denak mesedegarriak direnean, handiak dira euskara bikoteko harreman hizkuntza bilakatzeko aukerak. Gero eta faktore oztopatzaila gehiago eduki, berriz, zailtasun handiagoak topatzen dituzte.
- 3 **Euskaldun berriaren hizkuntza garapena.** Tipologia honetan, bikotekidearen jarrera eta testuinguru soziolinguistikoa mesedegarriak direnean, batez ere, hizkuntza gaitasuna eta erraztasuna garatzeko baldintza egokiak izaten ditu euskaldun berriak. Horrek, halaber, eragin zuzena du etxeko hizkuntza ohituretan eta seme-alabekiko transmisioan.
- 4 **Alternantziaren eragina.** Hizkuntza alternantzia agertzen da, batez ere, euskara ez denean bikoteko hizkuntza. Orduan, seme-alabekin euskaraz egiten dute gurasoek, baina ez beren artean, eta ondorioz, taldean ere ez, askotan. Horrek eragina du seme-alaben ohituretan, batez ere, adinean aurrera egin ahala. Gurasoekin eta, batzuetan, anai-arreben artean ere erdarara jo dezaketelako.
- 5 **Bitariko familiak.** Normalean, familiako adarretako bat oso euskalduna da, eta bestea, neurri batean, gutxienez, erdalduna. Horregatik, hizkuntza ohitura ezberdinak izango dituzte, familia adarraren arabera.
- 6 **Testuinguruaren eragina.** Familiaz harago, nabarmentzekoa da testuinguru soziolinguistikoaren eragina: eskolarena, eskolaz kanpoko jarduerena, kalearena... Testuinguru hori euskalduna denean, haurrek etxean jasotakoa indartzen du, eta areago, etxeko ohituretan ere eragin dezake, euskararen alde. Aldiz, erdalduna denean, transmisioaren indarrari kalte egin diezaioke, batez ere, etxean euskaraz egiteko ohitura ez baldin bada egonkorra.
- 7 **Erdaraz, txikitatik.** Erdara sartzen da tipologia honetako familietan, eta ez telebistaren edo ikus-entzunezkoen bidez soilik. Familian bertan hainbat senide erdaldunak baitira. Horregatik, erdaraz ere txikitatik egiten dute haurrek, eta gurasoek ez dute kezkarik, alde horretatik, bietara ondo moldatzen direlako.
- 8 **Euskalkiak eta euskara batua.** Tipologia honetako zenbait familietan, euskarazko harremanetan, euskalkiak eta euskara batua, biak erabiltzen dituzte. Bikoteko euskaldun zaharra tokian tokiko hizkeran aritzen da, eta euskaldun berria, askotan, euskara batuan. Edonola ere, bikotekidearen eta inguruaren eragina ere jasotzen du, denborarekin.

B tipologia

- 1 **Ettxeko erabilera, erabakigarria.** Bi gurasoak euskaldun berriak direnean, transmisiorako erabakigarria da etxean hartzen duten hizkuntza ohitura. Euskara bikoteko harreman hizkuntza bilakatzea da bermerik handiena, seme-alabei ere horrela egiten dietelako. Bikotean erdaraz egiten badute, agian haurrei ere ez diete euskaraz egingo, edo bakarrik egingo die. Baina, oro har, alternantzia erdararen aldera joaten da.
- 2 **Erabaki kontzientea da.** Tipologia honetako familietan, euskararen transmisioa ez da kate baten jarraipen naturala, hautu kontziente bat baizik. Erabakiaren arrazoiak ezberdinak dira: batzuk lotuago egongo dira argudio sozioafektibo edo identitarioekin; beste batzuk, berriz, instrumental edo utilitarioekin gehiago.
- 3 **Euskararekiko harremana eta esperientziak, giltzarri.** Euskara ikasteko arrazoiak, esperientziak eta emozioak transmititu egiten dira. Esate baterako, arrazoi identitarioak direla-eta erabaki kontziente batez euskara ikasitakoek (1980-1990eko hamarkadetak mugimendu sozialekin lotuta, gau eskoletan edo barnetegietan) erabilerarekiko atxikimendu handiagoa dute, askotan, eskolan euskaldundu diren edo arrazoi instrumentalengatik euskaltegian euskara ikasi dutenek baino (lanpostu edo titulu bat lortzeko).
- 4 **Katea apurtu izana ere, arrazoiaren artean.** Gurasoen jarreretan eragiten duten faktore sozioafektiboetan, badago beste aldagai garrantzitsu bat: euskaldun berri horien familietan euskaldunik izan ote den lehenago, eta, hortaz, uneren batean transmisioa eten den. Etena izan duten kasuetan, harrotasuna sentitzen dute berreskuratze prozesuan ekarpena egin dutelako.
- 5 **Maila altua ez da ezinbestekoa.** Gaitasuna eta erraztasuna eskuratu izana garrantzitsua bada ere, ez da jarrera eta euskararekiko harremana bezain erabakigarria. Badaude euskaraz trakets samar egin arren bikoteko harreman hizkuntza gisa ere erabiltzen dutenak, indar handia dutelako kontzientziak, faktore identitario eta sozioafektiboek. Aldi berean, badira euskaraz zuzentasun osoz egin arren (lanpostuan erabiltzen dutelako, adibidez) etxean, oro har, erdaraz egiten dutenak.
- 6 **Transmisioaren kalitatearen inguruko kezka izan dezakete.** Askotan, euskara umetatik ikasi ez duten gurasoek zalantzak izan ditzakete seme-alabei transmititzen ari diren euskararen kalitatearen inguruan.
- 7 **Guraso izateko momentua mugarri izan daiteke.** Euskara transmititzea erabaki kontzientea izanik, guraso izateko unean hizpide da gai. Zentzu horretan, euskara etxeko hizkuntza bilakatzeko hautua egiten dute zenbait familiak. Beste askok ez dute pauso hori ematen, baina seme-alabei euskaraz egiteko ardura pizten zaie. Behin euskara transmitituta, ordea, askorentzat erabilera ez da kezka.
- 8 **Erdaraz, normaltasunez.** Tipologia honetako familietan, euskararekiko atxikimendua edozein delarik ere, erdararen presentzia normaltasunez bizi dute. Kulturatik, ikus-entzunezkoetatik edo eskolatik eta kaletik sar daitekeenaz aparte, familiako gainerako senideekin, nagusiki, erdaraz egiten dute, izan ere.
- 9 **Testuinguruaren eragin handia.** Tipologia honetako familietan, etxeko ohiturak elikatzen ditu herriko errealitate soziolinguistikoak. Eskolako eta aisialdiko giroa mesedegarria baldin bada, seme-alabek eurek sarbidea eman diezaioke euskarari etxean; oztopatzailea baldin bada, berriz, erdara barra-barra sartuko da, eta kolokan jarriko du gurasoen ahalegina.
- 10 **Eskolaren eta kalearen eraginez garatuko dute euskara.** Kasu askotan, tipologia honetako umeek etxean jasotako euskara oinarritzkoa da, edo, neurri batean, mugatua. Eskolako eta aisialdiko testuinguruek eragin zuzena dute haurren hizkuntza garapenean: bai zuzentasunari dagokionez, bai ahozkitasuna eta tokian tokiko aldaerak barneratzeari begira.

- 11 **Gurasoen hizkuntza garapenean eragin dezakete haurrek.** Aurreko puntuarekin zuzenean lotuta, testuinguruaren eragina mesedegarria baldin bada, gurasoen gaitasuna eta erraztasuna hobetzen lagundu dezakete seme-alabek beraiek. Gurasoen jarrera proaktiboa eta haurren sentsibilizazioa funtsezkoak izango dira horretarako.

A + tipologia

- 1 **Transmisioa izango da.** Euskararen transmisioak berme handiak ditu tipologia honetan, guraso euskaldun zaharrak (edo jatorrizko elebidunak) euskaraz egiten dielako seme-alabei, kasu gehienetan, hori delako haren joera naturala. Baina transmisio hari horrek faktore oztopatzaile edo mesedegarri ugari izan ditzake inguruan.
- 2 **Alternantziaren naturalizazioa.** Euskararen eta erdararen arteko elkarbizitza naturala da tipologia honetako familietan: gurasoetako batek euskaraz egiten du seme-alabekin, eta besteak, erdaraz. Seme-alabak txikitatik ohitzen dira hizkuntza batetik bestera jauzika ibiltzera. Egoera hori natural bihurtzeak eragina izan dezake euren hizkuntza ohituren garapenean.
- 3 **Familian ere, bietara.** Orokorrean, adar bat euskalduna da, eta bestea, erdalduna. Hortaz, senide batzuekin euskaraz eta beste batzuekin erdaraz aritzera ohitzen dira haurrak.
- 4 **Guraso euskaldunaren generoak eragina izan dezake.** Denborarekin generoaren eragina gutxitu baldin bada ere, badirudi ama euskalduna baldin bada errazago eusten diola euskarari seme-alabekin, testuinguru edozein delarik ere. Euskalduna aita baldin bada, gehiago kostatzen zaio, testuinguru oztopatzailea baldin bada, batez ere.
- 5 **Testuinguruaren eragina handia da.** Familia tipologia honetan ere handia da testuinguru soziolinguistikoaren eragina. Izan ere, seme-alabek bi hizkuntzak naturaltasunez jaso dituztelarik, gainerako sozializazio esparruen arabera garatzen dira bai hizkuntza batean eta bestean aritzeko trebetasuna eta erraztasuna, bai haien hizkuntza ohiturak. Alegia, inguru mesedegarrietan euskara gailentzen da haien harremanetan, eta oztopatzaileetan, erdara.
- 6 **Euskara ikasteko motibazio izan daitezke haurrak.** Euskara transmititzeko aukerarik eduki ez duten arren, behin guraso izanda, euskara ikasteko ahalegina egiten dute zenbait gurasok. Ikasketa prozesuan eta etxeko lanekin laguntzeko asmoz, baina era berean, aurrerago seme-alabekin euskaraz egiteko ilusioz ere bai, etxean euskara ere naturaltasunez bizi dela ikusten dutelako.
- 7 **Erdaldunek, euskaraz egiteari buruzko zalantzak.** Euskaraz ikasten ari diren gurasoen kasuan, zalantza edukitzen dute, dakitena haurrekin erabiltzea komeni den edo ez. Askotan eztabaida iturri izaten da gaia bikotean, eta familian ere bai. Guraso bakoitzak hoberen menderatzen duen hizkuntzan egitearen aldekoak dira batzuk.
- 8 **Nekez aldatuko da bikoteko hizkuntza.** Guraso erdaldunak euskaraz ikasteko ahalegina eginda ere, zaila da bikoteko harreman hizkuntza aldatzea. Erdaraz sortu eta urteetan garatu baita horrela.

A tipologia

- 1 **Guraso euskaldunaren ahalegina.** Transmisiorako baldintza zailagoak izango ditu familia tipologia honek. Guraso euskaldun berriarentzat euskara transmititzea ez baita naturala, ez duelako lehen hizkuntza izan, ezta etxeko hizkuntza ere. Horregatik, hautu kontzienteaz gainera, ahalegin handia eskatzen dio.
- 2 **Jarreraz gainera, gaitasuna garrantzitsua da.** Kasu honetan, euskararekiko jarrera eta harreman sozioafektiboak positiboak izanik ere, guraso euskaldunaren gaitasuna garrantzitsua da. Zenbat eta maila baxuagoa izan, orduan eta zailagoa egingo baitzaio seme-alabekin euskarari eustea, gainera, ez duelako bikotekidearen laguntzarik izango.
- 3 **Gero eta zailagoa, adinean gora egin ahala.** Euskarari eusteko zailtasunak areagotu egiten dira seme-alabek adinean gora egiten duten heinean. Batetik, gurasoaren euskarazko jarduna zuzentzen hasten direlako asko; beste tipologiaetan ere agertzen da joera hori, baina honetan bereziki ahula da guraso euskaldunaren posizioa egoera horretan. Bestetik, testuinguru soziolinguistiko oztopatzaileetan, bereziki, erdarako joera handia hartzen dutelako seme-alabek.
- 4 **Alternantzia, erdararen alde.** Etxean bi hizkuntzak erabiltzen diren kasuetan ere erdara nagusitzen da. Gurasoetako batek erdaraz egiten du seme-alabekin, bikoteko hizkuntza erdara da, eta taldekoa ere bai, gehienetan, guraso erdalduna ez ezik, euskalduna ere erosoago aritzen delako erdaraz. Anai-arreben artean ere erdaraz egiteko ohitura gailendu daiteke, testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan batez ere, etxetik kanpoko hizkuntza sozializazioaren eraginez.
- 5 **Familian, erdara nagusi.** Etxekoez aparte, gainerako senide gehienekin erdaraz egiten dute haurrek, bi adarretakoekin, gainera. Egongo dira salbuespenak, baina kasu zehatzak izango dira. Bi familietako hizkuntza nagusia erdara izan ohi da.
- 6 **Familien jatorriak ere badu eragina.** Guraso erdaldunen edo haien familien jatorriak ere eragiten du, batez ere hizkuntzarekiko jarreretan eta erabakietan. Jatorriz Espainiakoak diren familietan, euskararen kontrako jarrerak zabalduta ez badaude ere, badira euskararen erabilgarritasunari buruzko zalantzak edo erabilerarekiko axolagabekeriak.
- 7 **Familiaz kanpoko hizkuntza sozializazioa erabakigarria izango da.** Etxean euskararekiko duten harremana ahula izanik, eskolak eta aisialdiak eragin handia dute haurren hizkuntza garapenean. Giro oso euskaldun batek etxean jasotako haria indartu dezake, eta haurra euskarara lerratu; aitzitik, giroa ez baldin bada oso mesedegarria, erdarara joko du askoz errazago.
- 8 **Gurasoengan ere eragiten du testuinguruak.** Testuinguru soziolinguistikoak eragin dezake gurasoen jokabidean ere. Inguru oztopatzaileetan, euskararen beharrik sumatzen ez dutenez, zaila da euskara ikasteko edo hobetzeko ahalegina egitea. Egitekotan, umeen etxeko lanekin lagundu ahal izatea da motibazio handiena. Inguru mesedegarrietan, erabilerarekiko bultzada bat ere sentitu dezakete.

X tipologia

- 1 **Testuinguruaren eragina erabatekoa da.** Bikote erdaldunen seme-alabek erdara dute etxeko hizkuntza. Ondorioz, euren hizkuntza gaitasuna, erraztasuna eta hizkuntza ohiturak familiaz kanpoko hizkuntza sozializazioaren mende daude. Inguru oso mesedegarrietan euskara naturaltasunez barneratu dezakete, baina gainerakoetan kostako zaie etxeko eragina orekatzea.
- 2 **Gurasoengan ere eragiten du testuinguruak.** Euren hizkuntza biografiek euskararekin loturarik izan ez badute ere, inguru oso euskaldunetan euskararen behar handiagoa sentitzen dute, erdaldunagoetan baino. Horrekin lotuta, badago aldea seme-alabek euskaraz ikasteari ematen dioten garrantzian. Inguru erdaldunagoetan motibazio instrumentalekin lotzen dute (eskola, lana); euskaldunetan, sozializazioarekin ere bai. Euskaraz ikastea erabakitzen dutenen kasuan ere testuinguruaren araberakoak dira arrazoiak.
- 3 **D ereduan matrikulatzea da ekarpena.** Euskaraz ez dakiten gurasoentzat, euskara biziberritzearen alde egin zezaketen ekarpenik handiena egin dute: euren seme-alabak D ereduko eskolan matrikulatzea.
- 4 **Euskararen inguruko ikuspegi baikorra.** Tipologia eta testuinguru soziolinguistiko erdaldunenetako familiek dauzkate, oro har, euskararen bilakaeraren eta etorkizunaren inguruko ikuspuntu baikorrenak, euskararen ezagutza handitu izanarekin lotuta, batez ere. Erabilerari buruzko kezkarik ez dute, ordea.
- 5 **Gaztelania ez diren erdarak.** Familia tipologia honetan gero eta gehiago dira Espainiako Estatutik kanpo jaiotako migratzaileek osatutako bikoteak. Kasu askotan, beraz, etxeko hizkuntza ez da gaztelania. Horrek modu ezberdinean eragin dezake, testuinguru soziolinguistikoaren arabera. Inguru oso euskaldunetan, seme-alabak erosoago sentituko dira euskaraz gaztelaniaz baino. Inguru erdaldunetan, berriz, gaztelania nagusituko da haien artean.

Azken solasa: aldaketa garaian

EAEn euskararen transmisioa zertan den aztertu da ikerketa honetan, ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuta. Aldaketa betean dago euskararen transmisio moldea. Mendez mende familiaren bidez harilkatu da euskararen ehoa, baina hamarkada luzeetako gainbeheraren ondoren —hizkuntza zapalkuntzak, transmisio hausturak eta migrazio bortitzak eraginda, besteak beste—, indarberritze fasean sartua da euskara EAEn. Ezagutzen nabari da hori nabarmen —umeak dituzten guraso bikote gehienetan kideetako batek behintzat badaki euskaraz—, eta transmisioari buruzko datuetan ere badira kimu berriak, euskara etxean jaso ez zuten belaunaldiak ari direlako euskara ematen beren seme-alabei. Egiturazko aldaketak dira.

Konplexuago bihurtu da euskararen transmisioa: etxean euskara jasotzen ari diren belaunaldi berrien kasuan, izan ere, gehiena ez da familiako transmisio lineala —belaunez belaun etxean egindakoa—, baizik eta lehen hizkuntza euskara ez duten gurasoengandik edo familia mistoetatik datorren irabazia. Beste gisa bateko transmisio moldea dute horiek maiz: ez da erabat euskarazkoa —erdara ere jasotzen dute umeek aldi berean—; etxeko hizkuntza nagusia askotan ez da euskara; gurasoek beren artean ez dute nagusiki euskara erabiltzen. Hots, transmisioan izaten ari den aurrerapauso horrek baditu zailtasunak, arrosaren arantzak: euskararen ezagutza hori erabilerara eramateko egiturazko oztupoak. Erabilerarik ezaren eta gaitasuna atzentzearen arteko sorgin gupila martxan jartzen da orduan, eta ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala areagotu egiten da. Horri lotuta, aztertzekoa izan daiteke *transmisioa* kontzeptuaren adiera zeri lotu behar zaion: umetan jasotako lehen hizkuntzak definitzen ote duen erabat, edo seme-alabaren nortasuna ezaugarritu arteko ibilbide osoari.

Transmisioaren aurrerapauso horri dagokionez, komeni da kontuan hartzea oraindik badirela hutsuneak: gurasoek euskaraz dakiten kasu guzti-guztietan ez da euskara transmititzen. Heldu beharreko esparruetako bat da gurasoek euskaldun berriak direneko familia eredua: bi gurasoak euskaldun berriak direnean, adibidez, bostetik batek ez die euskara eman seme-alabei. Eskolaren ekarpenari esker, gero eta guraso gehiago dira euskaldun berriak, eta uste izatekoa da datozen urteetan handitu egingo dela horien pisua, belaunaldi berrien euskalduntze modua ikusita. Estilo horretako familietan, euskara transmititzea hautu kontziente bati lotuta joan ohi da, are gehiago euskarak presentzia sozial ahula duen lekuetan. Horrekin lotuta, tentuz zaintzekoak dira euskarari buruzko jarrerak eta motibazioak: transmisioa konplexuago bihurtu den heinean eta guraso askori ahalegin kontzientea eskatzen dien heinean, are pisu handiagoa hartzen du gurasoen motibazioak.

Transmisioari erreparatzean, ez da begi bistatik galtzekoa zein den euskararen egoera soziolinguistikoa: hazten ari da ezagutza, batez ere belaunaldi gazteetan, baina oraindik herritar gehienek ez dakite euskaraz —EAEn, 16 urtetik gorako hiru herritarretik batek daki euskaraz, Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera—, eta presentzia sozialean, eguneroko bizitzan, gaztelania da gailen. Urteotan izan dira aldaketak arlo horretan. Alde batetik, desagertzeaz da lehen gune soziolinguistikoa —euskaldunak %20 baino gutxiago dira—, eta biztanle gehieneko eremuetan gero eta herritar gehiagok dakite euskaraz; erabileran, ordea, oraintsu aipatutako egiturazko oztupo horiek tarteko, euskararen presentzia nabarmen mugatua da. Bestetik, ordea, ahultzen ari da laugarren gune soziolinguistikoa —euskaldunak %80 baino gehiago dira—, ezagutza jaitسي egin delako, eta erabilera, gehiago. Euskarak presentzia sendoa duen lekuetan transmisioak ere aiseago egiten du bidea: gurasoen hizkuntza ezaugarrien ondoren, inguru sozialak dauka eraginik handiena. Eta bultzatzaile izan daitekeen eran, oztopatzaile ere izan daiteke.

Eboluzio betean da euskararen transmisio moldea EAEn, eta egoki josteko, alderik alde harilkatu beharko dira aldagaiak: ezagutza eta erabilera, gurasoak eta seme-alabak, etxea eta kalea, familia eta eskola, hizkuntza eta kultura, motibazioa eta kontzientzia, arnasmuneak eta eremu erdaldunak. Konplexuago bihurtu da euskararen transmisioa, eta globalizazioarekin lotutako aldaketak ere bete-betean ari dira erasaten. Neurri eta diskurtso berriak beharko dira transmisio molde berriak sendotzeko eta euskararen aldeko hautua elikatzeko.

Bibliografia

- Arruti, Iñaki (1997). Euskararen familia bidezko jarraipena. In *Bat soziolinguistika aldizkaria* 22-23. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 69-110 or.
- Elkar Fundazioa, Siadeco (2018): *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak*. Txosten argitaragabea.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, EKE (1997): *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2008): *Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2008): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea, Nafarroa, Euskal Herria*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2010). *Soziolinguistika Hiztegia. Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2016): *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa. EGOD egitasmoa. Eraitza txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2016): *61. Euskal Soziometroa: euskal gizartea etorkizunaren aurrean*. [Kontsulta: 2020-01-09]. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_61/eu_def/adjuntos/16sv61.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2017): *Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa*. [Kontsulta: 2020-01-09]. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_17tef2/es_def/adjuntos/17tef2.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2018): *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2019): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. 2016*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Fishman, Joshua (1991): *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Hernandez, Jone Miren (2015). Familia hizkuntza-politika: Transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila. In *Bat soziolinguistika aldizkaria* 94. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 47-62 or.
- ISEI Irakats-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (2018): *Ebaluazio diagnostikoa 2017. Txosten exekutiboa oinarritzko hezkuntzaren egoerari buruz*. [Kontsulta: 2019-12-27]. Hemen eskuragarri: http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=d9d48006-bea8-4e81-b84b-ebc16c117a88&groupId=635622
- Juaristi, Patxi (2016). Hizkuntzaren transmisioan eragiten ari diren faktoreen azterketa. In *Bat soziolinguistika aldizkaria* 99. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 97-112 or.
- Kasares, Paula (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza*

sozializazioa familia euskaldunetan. Bilbo: Euskaltzaindia. Hemen eskuragarri:
http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/77496.pdf

Kasares, Paula (2017). Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik. In Goirigolzarri, J.; Landabidea, X. eta Manterola, I. (koord.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 27-51 or.

Martinez de Luna, Iñaki (2016). Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak. In *Bat soziolinguistika aldizkaria* 99. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 21-79 or.

Ortega, Ana; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jacqueline (2016): *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Sánchez Carrión, José María Txepetx (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo eta Adorez eta Atseginez mintegia.

Siadeco (1986). *Euskararen transmisio prozesua. Lehen zatia: Ikerketa pilotoaren emaitzak*. Donostia. Txosten argitaragabea.

Siadeco (1986). *Euskararen transmisio prozesua. Bigarren zatia: hizkuntz historia pertsonalak*. Donostia. Txosten argitaragabea.

Siadeco (1994). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa. Lehen txostena: Siadeco (1978-91) eta HPINko (1991) ikerketetan bildutako datuen arabera*. Donostia. Txosten argitaragabea.

Siadeco (1994). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa. Bigarren txostena. 1991ko zentsuko datuen arabera*. Donostia. Txosten argitaragabea.

Zinkunegi Uzkudun, J. Fco. (1995). Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartearen. In *Bat soziolinguistika aldizkaria* 15. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 75-88 or.